

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2015-01-23
EGUBAKOITZA
625. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.EUS
TOKIKOM



IMANOL GALLEGO

Jonan Fernandez | Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia

"Aurrera goaz, lehen baino askoz ere hobeto gaude" | 3

Epeleko zabortegian azpiegitura berriak eraikitzen | 2



Hasi dira udaletarako hautagaiak aurkezten | 'Herriak' saila



Nagusiendako etxebizitza tutelatua Bergaran | 8



Errepidea kale bihurtuko dute

Arrasateko Udalak, oinezkoei eta bizikletei lehentasuna eman guran, 1.135.000 euro bideratuko ditu Takolo-Goiru gunera | 11

Oinezko bat Arrasate pasealekuko zebra-bidea gurutzatzen.

JAGOBA DOMINGO

Politikariek eta herritarrek gaur inauguratuko dute Eskoriatzako antzokia

Ekitaldi ofiziala 13:00etan egingo dute, eta ate irekiak, arratsaldean | 22

Moneta sozialak aztergai nazioarteko mintegian | 4

SINADURAK

Testamentuarekin argi! | 5
ANAJE NARBAIZA

5 | Zebra-bidean
OIHANA ELORTZA

Betiko balioak | 15
MIGUEL LAZPIUR

18 | Takoi garaiak
LUKENE IGARTUA

'Ahora' | 20
OIER ARANTZABAL

40 | Seminarioko eliza
AGURNE BARRUSO



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

Erreportajea: emakume musulmandarrak

Elkarrizketa: Jose Antonio Altuna

JASO PUNTUA ETXEAN: 943 25 05 05

"Helburua ez dugu aldatu: emakumea, euskara eta kirola batzea"

Oihana Mata eta Agurtzane Elkoro | UDAko zuzendaritza | 26

SEAT LEON ST X-PERIENCE



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Hondakin ez arriskutsuak hartzeko gelaxka hermetikoa egiten hasi dira Epelen

- ▶ Espero dute apirilerako edo maiatzerako gertu izatea
- ▶ Orain dela bi urte eraiki zuten lehenengoa

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Mugimendu handia izango da datozen hilabeteotan Epeleko zabortegian. Izan ere, astelehenen hasi zituzten Gipuzkoako Hondakin Kontsorzioa bertan egiteko den konpost-planta eraikitze obra zibila. Hori bakarrik ez, Debagoieneko Mankomunitateak industria eta obra hondakinentzako gela hermetikoa berria eraikiko du han, eta, dena ondo bidean, gertu egongo da udaberriarako.

Maiatzerako bukatuta

Azken azpiegitura horri dagokionez, isurketa-gelaxka berria eraikitze, Debagoieneko Mankomunitateak 1.842.595,72 euroko aurrekontuarekin atera du lehia-kerara obra hori. Eta herenegun (eguztzena) bukatu zen eskaintzak aurkezteko epea.

Bada, esleipen prozedura egin ostean, apirilerako edo maiatzerako bukatuta izatea espero du Mankomunitateak hondakin ez arriskutsuak hartuko dituen esparru berria. Industrietatik eta obretatik eratorritako hondakinak batuko dira han.

Hektarea bateko adinako esparrua izango da, 10.000 metro koadrokoa, alegia. Laburbilduz, haxe egingo dute: lur gainean, plataforma handi batean tela moduko bat jarriko dute, lamina bat, ura behera (lurrera) pasa ez dadin; eta geruza batzuk jarriko dituzte horren ondoren; goitik behera, ordena honetan: filtroko *geotextil* delakoa, lixibiatuak drainatzeko geruza; babeserako *geotextil*-a; polietilenoazko (PEAD) geruza iraztezina eta bentonitazko geo-konposatuko geruza iraztezina. Geruza horiekin guztiekin

hektarea bateko gelaxka hermetikoa eraikiko dute.

Eta horrekin batera, urak bereizteko azpiegitura ere eraikiko dute, ur garbiak eta lixibiatuak banandu eta, lixibiatuen kasuan, Epeleko araztegi bideratzeko.

Bi urterako azpiegitura

Debagoieneko Mankomunitatearen aurreikuspena da hondakin ez arriskutsuak jasotzeko gelaxka horrek Debagoiengan bi urtean sortzen diren industria eta obra hondakinak batzeko besteko gaitasuna izatea, betiere, gaur egungo hondakin sarrerak kontuan hartzen badira. "Ezin dugu zehazki jakin etorkizunean edukiko ditugun hondakinen sarrerak", azaldu du Mikel Jaiok, Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko arduradun teknikoak.



Makinek lanean dihardute Epeleko zabortegian. | JOKIN BEREZIARTUA

Bigarren gelaxka

Izan ere, funtzio hori beteko duen bigarren gelaxka da orain eraikiko dutena. 2013. urte hasieran eraiki zuten lehenengoa eta 2013an bertan erabiltzen hasi ziren. Bi urte geroago, ikusi dute ia beteta dagoela, eta horrexegatik abiarazi du orain Mankomunitateak bigarren gelaxka eraikitze prozedura administratiboa.

"Behin beteta, gelaxka zigilatu egiten da. Modu horretan, bertara isuri diren hondakinak behetik zein ginetik eraikitako geruzen bitartez gordeta geratzen dira, kutsadurarik sortu barik", jakinarazi du Jaiok; eta gaineratu du bigarren gelaxka hermeti-

koa eraikitze obra batera, lehenengo gelaxkaren zati bat zigilatatu egingo dutela.

Konpost-planta abian

Epeleko konpost-plantari dagokionez, horri dagokion obra zibila abiarazi dute asteon, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioak esandakoaren arabera. Abenduan estolderiarekin lotutako urbanizazioaren beheko parteak eraiki ziren -hoditeria, drainatzea, saneamenduak, ur-biltegiak-; eta orain, bigarren faseari ekin diote, hiru hilabeteko atzerapenarekin. Hain justu, Amenabar enpresak aurkeztutako eskaintza ausarkeriazko baja zela kontsideratu zelako.

DEBAGOIENENKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK * A

goieskola
www.goieskola.hezkuntza.net

baikara
Gipuzkoako Basalen Gurasoen Federazioa

matrikulazio epea zabalik otsailaren 2tik 13ra

etani eta zuk zeuk ikusi

Guztion eskola guztion artean

HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, DBH eta HHI

IKASTETXEAK

Aramaio
San Martin Eskola

Aretxabaleta
Kurtzebarri Eskola

Kurtzebarri BHI

Antzuola
Herri Eskola

Arrasate
Arrasate Herri Eskola

Arrasate Institutua

EPA Arrasate HHI

Bergara
San Martin Agirre Eskola

Ipintza Institutua

EPA Bergara HHI

Elgeta
Herri Eskola

Eskoriatza/Gatzaga
Luis Ezeiza Eskola

Oñati
Errekalde Herri Eskola

Zuazola Larraña Institutua

INFORMAZIO BILERAK

Informazio zuzena eskolan bertan

Urtarrilaren 28an
17:30ean EUS / 18:30ean GAZT
Urtarrilaren 28an
18:00etan EUS / 19:00etan GAZT

Informazio zuzena eskolan bertan

Musakola: Urtarrilaren 27an 18:00etan
Bedoñabe: Urtarrilaren 28an 18:00etan
Erguin: Urtarrilaren 29an 18:00etan

Arrasaten: Otsailaren 2an 18:00etan
Aramaion: Otsailaren 3an 18:00etan
Matrikula zabalik urtarrilean

Otsailaren 3an 18:00etan

ATE IREKIAK Otsailaren 4an 18:30ean.

Matrikula zabalik urtarrilean

Informazio zuzena eskolan bertan

Otsailaren 2an 18:00etan
Haur Hezkuntzako eraikuntzan

Urtarrilaren 31an 17:00etatik aurrera

Otsailaren 4an 18:00etan

Jonan Fernandez | Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako idazkari nagusia

"Iraganaren balorazioa, armagabetzea eta kartzela politika blokeatuta daude"

- ▶ Jaurlaritzako ordezkariak esan du "lehen baino askoz hobeto" gaudela
- ▶ Huteskunde urtean egoteak giroa aldrebesten eragiten duela ere badio

UBANE MADERA | OÑATI

Bakea eta adiskidetasuna izenburuarekin Jonan Fernandezek hitzaldia egin zuen eguaztenean Oñatiko batzokian. Bisita aprobetxatu, eta azkenaldiko egoera gaiztotuaren gainean galdetu diogu, besteak beste:

Asteotako gertakariak ikusita, badi-rudi hamar urte egin dugula atzera...

Momentu tentsuak pasa ditugu, baina ez dugu egin hamar urte atzera. Aurrera goaz, lehen baino hobeto gaude, askoz hobeto. Eta hobera egiteko marjina handia dago. Bake prozesuan gaude. Eta bake eta bizikidetzaren prozesuak ez dira linealak. Zailtasunak, arazoak eta krisiak egoten dira; eta horrelako egoera bat pasatu dugu azken asteotan. Perspektiba behar da, eta oinarri sendoak. Horrelako egoera guztiak giza eskubideen printzipio etikoetatik begiratu behar dira.

Bakea eta bizikidetzaren prozesuak linealak ez izanda, norabide bat finkatzea zailagoa izango da...

Ez da zaila, badakigu eta nora goazen. Bi helburu nagusi daude: bakea betiko izatea eta bizikidetzaren normalizaziora joatea. Badakigu ze egoeratan gauden, eta arazoak ditugu. Nagusia da iraganaren ondorioak kudeatu behar ditugula. Ondorio latzak dira; zauri asko daude, eta horrelako prozesu batean zailena da zauriak sendatzea. Hori da arazo nagusia. Eta kostatuko zaigu, baina egingo dugu aurrera.

Badirudi gatatzeko parte guztiak parekoari itxaroten daudela...

Mesfidantza handiak daude. Kontuan hartu behar da iraganean ezkututzen dela erruaren diagnosa: zein da erruduna? Inork ez du nahi erruduna izan. Hor dago joko eta kostua. Eta etorkizuna finkatzeko garrantzitsua da nola ekiten diogun iraganari. Hor dago zailtasuna, onartu egin behar da zaila dela, baina ez da perspektiba galdu behar, nondik gatozen eta nora goazen; eta hobera goaz.

EAJk eta EH Bilduk asteon Legebiltzarrean babestutako testuak dio "salbuespen legediaren" isla direla bai 04/08 sumarioaren epaiketa eta espetxe zigorrak batzeaz Europako Batasunaren arauaren gainean Auzitegi Gorenaren erabakia.

Jaurlaritzak ere esan du ez dagoela ados azken erabaki horiekin, ezohiko erabakiokin. Eta Jaurlaritzak mahai gainean jarri du *Zuzenbidean* proposamena: normaltasun penala eta kartzelakoa berreskuratzeko. Azken hamar-kadan politika salbuespeneko egin da ikuspuntu penal eta kartzelatik, eta etorkizunari begira hori zuzendu egin behar da. Eta Jaurlaritzaren konprometituta dago horretan. Baina ez ditugu galdu



Jonan Fernandez, hitzaldia ematen. | IMANOL GALLEGU

behar, ezta ere, erreferentziak. Egun Europan zer da gertatzen ari dena, Parisen... testuinguru horretan gaude, eta hainbat korronte daude alde horretatik.

Bake prozesua indartzeko foro sozialak 2014an zera onartu zuen: Preso eta iheslariaren gaiari buruzko konponbide integral bat adostea; (...) presoak eragile aktiboak izatea. Asteotan Espainiako erabaki judizialek gomendio horien kontra datoz zuzen-zuzen. Zein da irakurketa?

Egin duguna da presoen birgizarteratze prozesuak ahalbidetzeko proposamenak mahai gainean jarri. Orain ari gara batzuekin eta besteekin kontsultak eginen. Badakigu Espainiako gobernua horren kontra dagoela. Adibidez, ez du onartzen presoak gerturatzeta, eta ezta beste gauza batzuk ere. Guk egin behar duguna da gure baliabideekin baldintzak sortu gauzak aldatzeko, eta Eusko Jaurlaritzaren egiten ari dena da baldintzak sortu han eta hemen dauden iraganeko arazoak bideratzeko eta konpontzeko.

Joseba Egibarrek adierazi du bake prozesua blokeatuta dagoela ETA-ren eta Madrilgo gobernuaren jarrengatik.

Une honetan, hiru blokeo puntu daude: armagabetze prozesua geldirik dago. Horretan ere Jaurlaritzak proposamena jarri du mahai gainean, hori ahalbidetzeko, jakinda Espainiako gobernuak ez duela parte hartu nahi prozesu horretan. Bigarren faktorea da kartzela politika, eta hor beste korapilo bat dugu. Eta hirugarren faktorea da iraganari buruzko balorazioa. Gaur egun, alderdien artean ez dago adostasunik iragana baloratzerakoan eta hori beharrezkoa litzateke; halako balorazio kritikoa

bat, nahiz eta txikia izan.

Aldrebestutako giroa huteskudeen testuinguruan kokatu behar da?

Neurri baten, kasu batzuetan jarre-erak esplikatzeko dira ikuspuntu elektoraletik. Aurrean, seguru aski lau deialdi egongo dira. Eta horrek eragin handia dauka. Ez nuke esango arrazoi bakarra elektorala denik, baina arrazoi bat hori dela, seguru.



EAJ eta PSE-EEko ordezkarien aulkiak hutsik, osokoen aretoan. | MIRARI ALTUBE

Josu Uribetxeberriaren aldeko elkartasun mozioa onartu dute

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Hiru dira eguazteneko ezohiko osoko bilkuran onartutako ebazpenak: Uribetxeberriaren familiarekin elkartasun adierazpena; exijitu da gaixotasun sendaezina nozitzen dituzten presoek legezko berme eta eskubideak hartu da erantzukizun eta ardurak izan ditzaketen instituzioetara mozioa bidaltzeko, testuan bertan jasotzen den moduan.

Bilduk eta Aralarrek salatzen dute "arduradun politiko judizialek" haren egoera "muturre-raino" eroran zutela eta kalean emandako denboran ere presoak "mota guztietako jazarpenak eta oinarritzko eskubideen bortxaketak pairatu" zituela. Hala, "Arrasateko Udalak, pertsona guztien giza eskubide guztiak defendatzen" dituen heinean, "salbuespeneko espetxe politi-

ka" deritzotena eta espetxe politika hori amaitzea eskatu da; "inoiz baino beharrezkoago" ikusiaz "eskubide guztien alde" egiten dutenak batzea.

EAJ eta PSE ez ziren joan

Mozioak aurrera egin du kontrako boto barik, EAJk eta PSE-EEK bilkura joateari uko egin diotelako. Hain justu, jeltzaleek dolumina adierazi diote Uribetxeberriaren familiari, eta bere garaian hark zaintza mediku egokia izan zezan aska zezatela eskatu zutela esan dute. Haren "biktimei eragindako min eta sufrimenduarengatik" eta "eragindako oinazearen aitor-tzarik" ere egon ez zela-eta, esan dute haren "aldeko inolako omenaldirekin" ez dutela bat egingo. Paco Gartzia bozeramaile sozialistak dio, berriz, mozioa ez dutela ezta baloratuko ere egingo.



Goizper Group

INDUSTRIALEKO NEGOZIOAN MUNTATZAILE LANGILEA

Lanpostua betetzeko **eskutzen diren baldintzak** ondokoak dira:

Lanbide Heziketa II edo goi mailako zikloa izatea.
(Arlo mekanikoa, elektromekanikoa, automatismoak edo antzerakoa)

Eskutzen diren **gaitasun pertsonalak**:

Disponibilitatea, inizatiba, autonomia, ahalmen sortzailea, garapen profesionalaren ardura, talde lanerako gaitasuna, egokitzapena eta ondo lan egitearen nahia.

Bete beharreko erantzukizun nagusiak:

- Balazta-Enbrage muntaia: pneumatikoak, elektromagnetikoak eta mekanikoak.
- Balazta-Enbrage neurketa funtzionala: hidraulikoak, pneumatikoak, elektromagnetikoak eta mekanikoak.
- Biraketa unitateen muntaian polibalentzia.

Interesatuak curriculum bidali beharko dute
- **urtarrilaren 26rako** -
rrhh@goizper.com "INMUL" erreferentziarekin.



Goizper Group
Elkarlanean garatzen

Goizper S.Coop.
Antigua Kalea, 4
20577 - Antzuola. Gipuzkoa

www.goizper.com

"Bizikidetzaren eta bake prozesuetan zailena da zauriak sendatzea"

Pedro Iturbe | Foru Aldundiko Lurralde Garapeneko zuzendari nagusia

"Moneta sozialekin, krisi garaian, kredituak egoten segitzen du"

- ▶ Moneta sozialen gaineko mintegia dago Arrasaten
- ▶ Diputazioak, MUK eta Bagarak antolatu dute

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean egin dute hitzordua, datoren eguenerako, moneta sozialen edo txanpon osagarrien gaineko nazioarteko mintegia egiteko. Bi zati izango ditu ekimenak: 09:00etik 13:00ak bitartean, gaur egungo moneta sistemaren arrakalak aztertuko dituzte; Europako moneta sozialen gainean jardungo dute eta moneta sozialekin oinarritutako esperientziak landuko dituzte. Arratsaldean, berriz, Debagoienerako moneta sozial baten gainean jardungo dute, mintegi eran. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiak eta Bagarak antolatu dute ekimena. Eta bertan parte hartzeko lekuak mugatuak izango dira; beraz, alde aurretik izena eman behar da. Pedro Iturbe da Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Garapeneko zuzendari nagusia eta jakinarazi du, besteak beste, moneta sozialekin oinarritutako esperientziak ibilbide luzea eginda dutela.

Moneta sozialen gaineko nazioarteko mintegia antolatu duzue; horrek

berak esan gura du nazioartean badirela moneta sozialekin lotutako esperientziak...?

Berez, martxan dauden esperientzia zaharrenak Suitza/Alemania aldean daude. Japonian ere esperientzia ugari izan dira, Ameriketako Estatu Batuetan enpresen arteko finantzazio mota bezala... **Zaharrenak noizkoak dira?**

Gaur egun ezagutzen ditugun erako txanpon osagarri zaharrenak 1930eko hamarkadako krisiaren baitan sortu ziren. WIR bankua, adibidez, Suitzan da eta gaur egun martxan da. 60.000 enpresatik gora daude sistema horren baitan. Franko suitzarrarekin batera dagoen beste txanpon bat da. Kasu hori da esanguratsua. Hasieran, hamasei enpresak txanpon bat sortu zuten euren artean ordainketak egiteko. Hazten joan zen eta 1998an eratu zen gaur egun ezagutzen dugun banku moduan.

Zeintzuk dira moneta sozialen ezaugarri nagusiak?

Moneta mota oso ezberdinak daude: enpresen artekoak, nazio mailakoak... baina Japonian, adibidez,

egon dira pertsona nagusien zaintzaren inguruko esperientziak edo komunitate oso txikietan, batzuk produzitzen dituzten produktuak saltzeko txanpon mota hau erabiltzen da edo elkartrukerako... Adibidez, Argentinan izan ziren 90eko hamarkadan esperientzia oso indartsuak elkartrukera bultzatzeko. Dirurik ez zuen jendeak txanpon mota horiek erabiltzen zituen elkarren artean produktuak trukatzeko.

Euskal Herrian zentratuz, hemen batez ere herritarren kontsumoan zentratutako txanponak garatu dira, eta, orokorrean, eremu txikietan. Euskua dugu handiena, eta aipatzekoa da bere motako monetetan Europa mailan ere esanguratsu bihurtzen ari dela. Eremua oso lotuta doa lortu nahi diren helburuetara.

Martxan dauden esperientzietan oinarrituta, eraginkorrak dira moneta mota horiek?

Eraginkorrak dira, baina beti sistema laguntzaile moduan ulertu behar dira, eta ez programa edo politika zentral moduan. Adibidez, enpresen kasuan, oso sis-



Pedro Iturbe, Goiena Komunikazio Taldearen egoitzan. | UBANE MADERA

tema eraginkorra izan daiteke enpresen finantzaziorako. Hau da, enpresa suitzar batek finantza krisia dela eta lor ezin ditzakeen euro edo franko suitzarrak WIR sistemaren bidez ordezkatzeko, eta WIR kreditu bat lortzen du. Gaur egun banku bat den arren, hasiera batean enpresen arteko kontabilitate liburu bat zen, eta orduan ez zegoen frankoen beharrik elkarren arteko salerosketak egiteko.

Ipiniko duzu adibideren bat?

Euskua hartzen badugu adibidetzat, komertzio eta produkzio lokala bultzatzeaz gainera, sozialki inplikaturako elkarteei laguntzen diegu hura erabiltzen dugun bakoitzean. Laburbilduz, beraz, moneta sozialekin erreminta bat dira. Hainbat helburu lortzeko erremintak, gainera: produkzio lokala bultzatzeko, ekonomia soziala bultzatzeko, enpresak finantzatzeko laguntzeko... eta, gainera, adibidez, kreditu eratzea ahalbidetzen duenean, Suitzaren esperientziak erakusten du krisiekiko antiziklikoa dela. Hau da, krisi garaian, kredituak, nahiz eta beste txanpon batean izan, egoten segitzen du... krisiaren efektu garrantzitsu bati aurre eginez.

"Moneta sozialekin hainbat helburu lortzeko erremintak dira"



Donostian egin zuten proiektu berriaren aurkezpeneko deia. | XABIER VALLINA

"Iraultza sexualaren aldeko makineria", abiaraztear

Bergaran aurkeztuko dute proiektu "disidentea", urtarrilaren 31n (zapata) kartzela zaharrean

U.M. | DEBAGOIENA

"Jendarte osoaren askapen prozesu bat da mahai gainean jarri nahi izan duguna: sistemak, gaitortzeko guztia kontrolatzeko, gure sexualitate, gorputz eta identitateak kontrolatu behar ditue-

lako lehenik eta behin. Kontrol hori ahalbidetzen dituzten hiru erregimen politikoei aurre egiteko proposamen politikoa garatu dugu. Sistemaren kontrako proiektu politiko iraultzailea da bi urte hauetan eztabaidatu duguna".

Haurnarketa hori abiapuntu duen proiektua aurkeztuko dute urtarrilaren 31n Debagoiengan, sexu askapenerako gazte antolaketa berri moduan. Bergaran da hitzordua, hango kartzela zaharrean, 17:00etan.

Eta aurkezpena egiteko hiri bat barik udalerrri bat aukeratzea mugimendu berri horren identitatearen beste ezaugarri bat ere bada, bultzatzaileek dioten moduan: "Euskal Herrian barna hedatzearen apustuaren seinale da. Eskualdez eskualde, indarrak batzea dugu helburu. Orain arte bezala, eskualdeen asanbladako autonomia bermatuz eta partaide guztiak gidari bihurtuz".

Sexu askapena aldarri duen proiektu berri horrek disidenteen taldean kokatzen du bere burua. Eta horren adierazle da aurkezpeneko aukeratu duten kokagunea: kartzela zaharra. "Azken egunotan berriro ere agerian geratu den moduan, disidentzia politikoa zapaltzeko erabiltzen delako. Eta Bergarako kartzela zaharra aukeratu dugu, espazio autogestionatuen eta gaztetxeen aldeko gure apustu estrategikoa irudikatuzeko".

Ordaindu plataformakoek Sotili erantzun diote

Datorren martitzenean mozioa aurkeztuko dute Arrasateko udalbatzaren osoko bilkuran

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Javier Sotilek azkenaldian eskaini dituen elkarrizketa eta balorazioei buruzko iritzia kaleratu du Ordainduk, mobilizazioetarako deiarekin batera. Nagusiki, bi dira Sotilek esandakoetatik argitu gura izan dituztenak: birkokatzeak eta Fagor Etxetresnek Mondragon Talde osoari lagatuko zorra.

Milara ez dira iristen

Javier Sotilek mila pertsona lanean daudela esan eta gero, Ordaindukoek zehazten dute 822 direla langile birkokatutakoak eta salatzen dute lanpostu berean kobratzen denaren %62 dela haien soldata; gainera, aldi baterako langileen moduan dihardutela, ekoizpen gorakadei erantzuteko. Eransten dutenez,

artean ere, 374 pertsona ei daude euren egoerari buruzko berririk gabe.

Azkenik, Ordainduk berresten du kooperatibismoak "behintzat zintzoa eta egitia" behar duela izan eta partitzeak, izaera sozialari men, "ahal den bidezkoena", "pertsonen eta haien ongizatearen mesedetan" egina.

Mobilizazioak

Sotili erantzuteaz gainera, Ordainduko kideek mobilizazioekin jarraitzen dute. Adibidez, atzo, eguna, ohiko manifestazioa egiteaz gain, datorren martitzenean osoko bilkurara joango dira mozio batekin, Ordainduk berak eta Fagorren itxierak kaltetutako bestelako kolektiboekin batera aurkeztua.

ZABALIK

ANAJE NARBAIZA
goiena.eus/komunitatea/



Testamentuarekin argi!

Aspaldi denik, zenbait pertsonaren apustu garbia izan da ez ezkontzea. Izan ere, bikotekideak pertsona nagusiak badira, behintzat, zergatik behar dute beste hirugarren baten bedekazioa ezkontzeko? Izan abade, zinegotzi, notario edo... Beraiek bizi behar dute bikotearekin batera ala? Galdera simple horri erantzunez, Trentoko kontzilioaz geroztik gizarteak aurreratu egin duela dirudi, Eusko Legebiltzarrak izatezko bikoteen maiatzaren 7ko 2/2003 Legea onartu ondoren. Izatezko bikoteen eskubideak eta ezkontuenak berdinak direla esateraino. Egia da aurrerapausoa dela, baina inondik inora ezin dugu esan eskubide berdinak dituztenik.

Askotan, gauzak esateko moduan dago akatsa, eta hortik datoz gero gaizki-ulertuak. Legezinez beti diote letra txikia irakurri behar dela. Baina zergatik ez guztia jarri letra handian herritar arruntek ongi ulertzeko? Ez da egokiagoa esatea eskubide guztiak ez direla berdinak eta zeintzuk diren azpimarratzea? Transmisioen kasuan, adibidez, larrutik ordaindu baino lehen, esku-bideak ez direla berdinak azpimarratu behar da.

Testamentua egiterakoan ere, izatezko bikote jasotzaileak ezkonduak baino gehiago ordaindu behar du. Horretaz gain, erkidego edo probintzia guztietan legedia ez da berdina eta bakoitzak bere arauak ditu. Aragoian, Katalunian, Balearretan, Nafarroan, Galizian eta Bizkaian eskubide berdinak dituzte, baina Gipuzkoan eta Araban ez.

Garbi dago izatezko bikoteen legearekin bide erdia baino ez dela egin. Zergatik ez orduan proposamen berria egin guztiontzat, ezkonduak edo ezkongabeak izan?

Eskubide berdinak eduki behar baditugu, edozein pertsonak, berak laga nahi diona izendatu behar luke, testamentu jasotzaile modura. Eta denontzat, gaur egun pertsona ezkonduen artean dagoen baldintza berak aplikatu edo denontzat baldintza berri berak sortu.

"Izatezko bikoteen legearekin bide erdia baino ez da egin, garbi dago"

USTEAK USTE



OIHANA ELORTZA | oelorza@goiena.eus

Zebra-bidean

Autoa gidatzen noala behin baino gehiagotan pasa zait zebra-bidean gelditu eta bidea gurutzatu duen oinezkoak keinu batekin eskerrak ematea gelditzearen, edo pausua azkartu berak, nire mesederako. Eta beti pentsatu izan dut: eskerrak eman behar ditu oinezkoak autoa zebra-bidean gelditu delako? Okerrena da nik ere inoiz berdina jokatu izan dudala zebra-bidea oinez gurutzatu dudanean. Eta amorratu egin izan nau jarrera horrek, berez atera izan zaidalako, normala izango balitz moduan. Badakit eskerrak ematea edo barkamena eskatzea heziketa oneko bi ezaugarri direla, baina zebra-bideetan gelditzea ere bada oinezkoak kontuan hartzen ditugun seinalea.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.eus/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Arrosa, printzesak eta superheroiak

Leire Narbaiza
eibar.org/blogak/leire/

Gabonez berba egiten dugunean, oporrez eta jan-edanez gain, opariz eta jostailuz betetzen zaizkigu elkarrizketak: Olentzero versus Errege Magoak, lagun ezkutua, non erosi eskatutakoa, zer erosi... Ehiza txakurrak dirudigu usnan, oparia jaso behar duenaren desioen atzetik. [...]

Ume sinesberen kasuan errazagoa da. Nahikoa da eskutitza idazteko esatea, bertan apeta guztiak apuntatzeko aukera emango digute-eta. Sarri askotan zer eskatzen duten deskubritzea zaila egingo zaigu, jakin ere ez dugu jakingo zer den idatziz jarri dutena, guk jostailu iragarkirik ez dugulako ikusten. Baina haurren guraria argitzeko jostailu katalogoak dauzkagu, hainbat dendak egin eta dohainik partitzen dituztenak.

Halako bat erabili zuen eta erabiltzen ari da gure iloba, iaz eta aurten, urte bietan El Corte Ingles almatzen handien katalogo mardula. Egunotan

bere *liburu* kuttuna da eta noranahi eramaten du, Olentzerorena pasatuta egon arren. Emozioz beteta seinalatzen dizkigu bere gogoko artikulua eta gai da behin eta berriro, etengabe, orriak pasa eta begira egoteko. Edozein momentu begitantzen zaio aproposa bere gogokoak gurekin konpartitzeko. Erraz asko altzora igo eta trepeta asko erakutsi, ea gu ere, era sibilinoan, gustatu eta *erortzen* garen.

Iaz aho bete hortz laga ninduen bertan ikusitakoak. Neska/mutil banaketa oso argia zen: neskentzako zena, arrosa eta more argiz seinalatuta; mutilentzako zena, berde, gorri eta kolore ilunak. Jostailuen ondoan ere neskatilak edo mutikoak ageri ziren, produktu horren hartzailearen arabera. Jakina, beti gizartearen genero-banaketaren ikuspuntu klasiko eta zorrotzetik begiratuta: panpinak, printzesak, tximeletak eta loreak, arrosak, neskentzat; eta kamioiak, superheroiak, eraikuntza-blokeak eta ninja dortokak, ilunak, mutilentzat.

Orduan sumindu egin nintzen, eta hala segitzen dut. Izan ere, aurtengoa ere berdintsua da. Horregatik ez

nau harritu Susaeta argitaletxearekin sortutako polemikak, neska eta mutilentzako ipuinak argitaratzen dituela ikusita, ezta beste merkataritza guneez ere ateratako katalogo eta iragarkietan genero desberdintasun faltua eta murriztaile hori ageri denean.

Baina nola harritzen gaitu horrek, jaio orduko niniak arrosaz ala urdinez janzten baditugu? Mozorrotzen ditugunean maitagarri eta spidermanez betetzen baditugu bazterrak? Emakumeok etengabe printzesak garelako esanez bonbardatzen bagaituzte? Horrela, pikutara aukera-berdintasuna, emakumeen imajinarioa beti izango delako ahula eta makala, hauskorra, salbatzailea behar duena, bere kabuz ezin duelako ezer lortu. Eta gizonena defendatzaile ahalguztiduna, bestea bezain faltua eta hutsala.

Rolak betiko eta indartuta, herri desorekatua baino ez dugu lortuko, eguneroko hainbat jardueratarako gai ez diren gizabanakoak, pertsona ahul eta desorekatuak. Hori ote da lortu nahi dutena enpresa handi horietatik? Makalago izanda, zaurgarriago garelako?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagire

Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Urbane Madera
Sailtako arduradunak Xabi Urzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)


Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurilaritza
diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Josu Uribetxeberriaren omenez

Mikel Albisu Iriarte, Mikel Karrera Sarobe, Maixol Iparragirre Guenetxea, Alberto Lopez de Lacalle eta Mertxe Txibite Berango

(Reauko kartzelatik)
Reau (Frantzia)

Kartzela bereizietan gintuzten Eperrak Donostiako ospitalean gose-grebari ekin zionean.

Kolektiboa sakon markatu duen gertaera izan zen hura.

Reauko kartzelan elkartu eta Josuri buruz aritu izan garenean, irribarre goxo batekin eta harrotasunez aipatu izan dugu borrokaldi hura.

Kolektiboak, aurrekontsignarik gabe, batera erantzun zion Eperra babesteko ekimenari.

Berdin du zenbat gose-greba egun edo bestelako zein ekimen egin zuen bakoitzak. Aspaldian sakabanatuta ez ezik nora ezean ere zebilen Kolektiboa

iratzartzeko gaitasuna izan zuen Josuk.

Azken urteotan, telefonozko solasaldiak izan ditugu berarekin Reauko kartzelan gauzkatzen presook –orain bost, lehen sei–.

Telefonoa eseki eta behin baino gehiagotan, eta batez ere azkenaldian, bihotzean genuena esateko ezinean ibili garela aitortu diogu elkarri.

Zer esango geniokeen aurrez aurre bagenu, hor bageunde zuekin batera? Hitzerditan ulertarazitakoa, harro geundela berarekin, bere indarra gugana helaraztea nola eskertu ez genekiela, ohore bat dela guretzat erakunde berean borrokan aritu izana.

Berezkoa omen dugu dena alderatzeko joera baztergaitza. Neurria eta hierarkia jartzen diegu gauzei bezala pertsoneri eta sentimenduei. Ez dakigu norbera den bezala hartzen eta onartzen.

Josuk zuen guztia eman du Euskal Herriaren alde Euskadi Ta Askatasuna erakundearen boluntario borrokatzeko hautua eginez.

Batzuek, agian, egitate hori atzendu, mozorrotu edo ukatu ere nahiko dute. Gure

herria oraindik ez baita aske. Baina hori egitea Josu bigarrenez hiltzea litzateke.

"Soldadutxo bat naz", esaten zuen Eperrak. Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokan denok gara Josu lez soldadutxo, eta bera bezalako asko behar dira oraindik ere.

Agur eta ohore!

300 kilometro segundoko abiadura

Josu Garitaonandia

(Oparitu Zuhaitz Bat proiektuaren arduraduna)
Bergara

Abiadura handian dator Andromeda galaxia guregana.

Izan ere, abiadura horretan, Bergaratik Gasteizera hiru buelta eman daitezke segundo batean, nik "bat" esateko behar dudan denbora bera.

Lehenengo kontaktua 3.000 milioi urte barru izango litzateke, eta Andromeda eta gu gauden galaxia (*via lactea* edo esne bidea), bi galaxiak

bat eginda geldituko lirateke 5.000 milioi urte barru.

Harritu egiten nau gizakiak duen ahalmena horrelako estimazioak egiteko, baina, bestetik, beldurtu egiten nau gizakiak Lurra planetaren bizitza suntsitzeko duen gaitasunak.

Gure ohiturak ez dira jasagarriak, eta aldatu beharrean gaude.

"Deber" gaztelera

Jon Otero Uriarren

Arrasate

Espainiako Konstituzioak zera dio, espainiar guztiek jakin behar dutela gaztelera, derrigor.

Gu ez gara espainiarrak, baina Madrilen espainiarizat gaituzte. Beraz, behartu egiten gaituzte gaztelera jakitera.

Euskara oso hizkuntza zaharra da, eta euskaldunok hori bakarrik izan dugu milaka urtetan.

Hortaz, zertara dator gurea izan ez den hizkuntza bat behartzea?

Horrek azalpen bat du: zapalkuntza nazionala. Hori, besterik ez.

Nik baldin badaukat seme-alabaren bat, euskaraz bakarrik egingo diot.

Eta 8-9 urterekin ez badaki gaztelera berba egiten, pertsona ilegala izango da? Funtsik gabea.

Euskaraz ederto badaki, zergatik izango da ilegala? Edo behartu egin behar naute nik gaztelera egitera umeari?

Jaun-andreok, ez dago hori egiteko eskubiderik, eta lege hori aldatzea premiazkoa da.

Umeez, neska-mutilek, euskara eta ingelesa bakarrik jakinda nahikoa da, nahikoa eta sobera.

Behar dira ikastolak, gurasoen aukeran, gaztelera emango ez dutenak. Gaztelera jakitea behartuko ez dutenak.

Ingelesa menperatzea ez baita erraza, eta gaztelera eskaintzen zaizkion orduak behar dira horretarako, hain zuzen ere.

Izan ere, gaztelera jakitea eskubidea bakarrik izan beharko litzateke.

Horrenbestez, alda dezagun legea.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Oñalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.

- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

ARRASATE

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

ESKORIATZA

- Iturgintza eta gasa

- Berogailuak eta petrolio-produktuak

- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

ARETXABALETA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak

- Berokuntza eta gasa

- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

ARETXABALETA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza

- Ureztatze sistemak

- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

DUELA 10 URTE

2005-01-25

Monterronerako zuhaitzak, Belgikatik

Monterron parkean botatako zuhaitzak ordezkatzeko, Belgikako mintegi batean erosiko zituen Arrasateko Udalak zuhaitz berriak. Udalak iragarri zuen 40 bat ekarriko zituela. Botatakoak baino gehiago. Izan ere, ekarriko zituztenak txikiagoak lirateke eta ez zuten hutsunerik sortu nahi parkean. Bestalde, espezie autoktonoak ekarriko zituztela adierazi zuten: haritzak, pagoak ezkiak...



Monterrongo parkea. | U.M.

2005-01-25

Bailaran elurte handiak izan ziren

Elurak eragozpen handiak sortu zituen bailaran urtarrilaren 25eko astean. Horrela, Leintz Gatzaga, Elgeta eta ibarreko auzo garaienak izan ezik, Debagoieneko herri guztiak zuritu zituen elurak eta arazo ugari sortu zituen bailarako errepideetan. Hala, Epele inguruan kamioi batek izandako istripuaren ondorioz, Arrasate, Bergara eta Oñati bitarteko zirkulazioa kolapsatu, eta bi ordu eman zituen auto barruan askok.

DUELA 5 URTE

2010-01-18

Urkulu biziberritzeko plana

Urkulu biziberritzeko prozesuan, Aretxabaletako Udalak milioi bat euro inbertitzeko asmoa azaldu zuen. Urkulu inguru osoa biziberritzeko hainbat erakunde eta elkarterekin ibili zen lanetan. Aztertutako ideien artean, Iraeban baserrian mendiarekin eta osasunarekin lotutako interpretazio zentroa jartzea zen asmoa.

ELGETA

HERRITARRAK

Maria Angeles Elkoro 37 urte egin ditu Elgetako Udalean lanean; gehienak, idazkari. Aldaketa askoko urteak izan ziren elgetarrak udaletxean bizi izandakoak, eta horien gainean jardun du. | IRATI GOITIA

"Pentsa... Udalean lanean hasi nintzenean ikurrina ez zen legezkoa"

Maria Angeles Elkorok 37 urte egin ditu Udalean lanean. Lehenengo, laguntzaile; eta gero, idazkari. Urtebete da erretiratu zela. Dio orain herriko kontu gehiago dakizkiela. 1977an sartu zinen Udalean. Aldaketa askoko urteak bizi izan dituzu. Bai, ni sartu nintzenean ez zegoen mankomunitaterik ezta Jaurritzarik ere. Bestalde, Udalean sartu nintzenean ez zegoen batzordeirik ere. Hala, administrazioaren funtzionamenduari dagokionez, asko izan dira aldaketak. Urte hauetan guztietan lege berriak ere sortu dira.

Politikari dagokionez urte zalapartasuak izango ziren hasierakoak.

Pentsa, ni sartu nintzenean ikurrina ez zen legezkoa. Bestalde, oso gogoan dut O-23a [23-F delakoa]. Etxean nintzen eta alkateari deitu nion telefonoz, larrituta. Espainiako lehenengo hauteskunde demokratikoez ere oroitzen naiz. Bestalde, hasierako urte haietan oso bilkuretan mozioak izaten ziren nagusi. Politika kontuak izaten ziren: ETaren hilketak zirela edo GALEkoak. Aldaketa askoko urteak izan ziren. Gobernu zibileria joan behar izaten genuen informazioa eskuratzera eta ikastaro ugari egin behar izaten genituen. Oroitzen naiz, adibidez, Oñatira eta Donostiara joaten ginela. Alde batetik bestera ibili behar izaten genuen. Ez dakit nola ateratzen genuen denbora... Geroago, 1988an, oposizioak ere atera behar izan genituen eta horretarako ere asko ikasi behar izan genuen.

Urteekin euskararen presentzia ere areagotu da udalean.

Bai, hori ere aldaketa handia izan zen. Dena euskaraz egitera pasatu ginen. Horren adibide izan ziren osoko bilkurak. 1996an hasi ginen aktak euskaraz idazten. Bestalde, langileok ziurtagiriak atera behar izan genituen.



Maria Angeles Elkoro azken lanegunean. | LARRAITZ ZEBERIO

"Kalean eta tabernetan ibilita gauza gehiago jakiten dira"

"Elgetan beti izan dugu diru falta, eta, hala, elurteei ere beldurra genien"

Euskarriei eta teknologia berriei dagokionez ere moldaketa asko bizi izango zenituzten Udalean.

Orduan eskuz egiten zen dena. Liburu batzuetan idazten zen. Urte dezentez jardun genuen eskuz idazten. Gogoratzen dut Elgetako udaletxean sartu nintzenean dena oso zaharkituta zegoela, eta gauzak hankaz gora. Hala, hasierako urteetan, ohiko lanaz gain, dena txukuntzen ibili nintzen: liburuak forratu, paperak jaso... Gogoan dut idazteko makina bat genuela, baina ez zegoen fotokopiagailurik, esaterako. Hala, kalkoekin egiten genituen kopiak. Urte asko pasatu dira ordutik hona. Nik uste dut urte gutxian aldaketa asko egon direla. Egia esan, ordenagailuek eta gainerako berrikuntzek asko erraztu zuten lana. Horiek erabiltzen ikasteko ere hainbat ikastaro egin genituen, Word eta posta elektronikoa nola erabili ikasteko, adibidez. Orain,

eskolan ikasten dute hori, baina guk zapatu goizetan joan behar izaten genuen ikastarotara eta udaletxean bertan ere jasotzen genituen. Hala ere, teknologia berriak erabiltzen ikasteak baino lan handiagoa eman digu dena digitalizatu beharrak. Izan ere, datu pila bat pasatu behar izan dira formatu digitalera. Behin sartuz gero erraza da, baina hasieran... Langileak ere hartzen genituen horretarako; izan ere, lan handia eskatzen zuen.

Beste hainbat kontu edo anekdota ere izango dituzu.

Elgetan beti izan dugu diru falta. Oroitzen dut, adibidez, kultura etxeko lanak egin zirenean jaso genuela diru laguntza Diputazioetik, eraikina harena zen eta hitzarmenak egin ziren. Baina gero, altzariak jartzeko ez genuen nondik atera. Hala, Patxi Basauri eta biok joan ginen Diputaziora, eta, Kultura teknikariaren bule-

gora sartu orduko, horretarako dirurik ez zegoela esan zigun. Esertzen ere ez zigun utzi. Oso gogoan dut haren jarrera. Bestalde, elurrarekin ere beldurtuta izaten ginen. Izan ere, elurteek utzitako gastua ordaintzeko diru asko behar izaten zen: makinak alokatu, kaleak garbitu... Beti esaten genuen: "Ez dezala elurrik egin!"; izan ere, aurrekontuak horren menpean egoten ziren.

Lehen, herriko albiste guztien berri izango zenuen. Orain, erretiratu zarenetik, dena jakin behar izaten duzu?

Nik uste dut udaletxean lanean nenbilenean ere, askotan, azkena izan ohi nintzela gauzak jakiten. Agian, Udaleko kontuak jakiten nituen, baina ez beti, ez pentsa. Nik uste dut kalean eta tabernetan ibilita gauza gehiago entzun daitezkeela, hor ibiltzen da albiste. Esango nuke, agian, orain gehiago jakiten ditudala herriko kontuak.

NIRE HERRIAN

HERRIKO PARKEAK

Herri barruan oso parke onak ditugula esango nuke. Adibidez, eskola ondoan egin duten parke berriak izugarriko bistak ditu, Bergara osoa ikusten da. Egindako lanen ostean, oso ederra geratu dela deritzot. Uruburun dagoena ere oso polita da. Nik uste dut horrelako guneek asko aberasten dutela herria, eta beharrezkoak direla.

PILOTA SAILAREN JARRAIPENA

Oskarbi taldeko pilota sailak lan handia egin du urtetan. Juan Luis Ubera ibili izan da horretan; adibidez, txapelketak antolatzen. Orain, ez dago hura ordezkatzeko duenik, eta niri gustatuko litzaidake horrek jarraipena izatea. Gainontzean, urtetan egindako lana eta esfortzua bertan behera geldituko dela uste dut.

HERRIAK



Nagusientzako etxebizitza tutelatua Eskusarte kalean dago. | IMANOL GALLEGU



Egongela handi bat dauka. | I.G.

BERGARA

Norberaren etxean bezala

Etxebizitzak sei erabiltzailerendako tokia eta haietzako espazio publiko eta pribatua dauka

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Populazioa gero eta zaharragoa dela ikusita, Bergarako Udalak nagusientzako etxebizitza tutelatua sortu du. Etxebizitza euren kabuz balia daitezkeen nagusiei zuzenduta dago. 160 metro koa drotan, sei logela, hiru komun, egongela eta sukaldea ditu.

Eskaintza berri horrekin, Udalak egun Gizarte Zerbitzuen Departamentutik eskaintzen dituen zerbitzuak osatzera dator. "Duela gutxi arte, egoitza izaten zen nagusiek zuten irtenbide bakarra, baina, etxe honekin, pertsonen bizi kalitatea hobetu nahi dugu euren autonomia bermatuta, betiere, ohikoa zaien ingurune naturaleratik irten gabe", dio Jaione Isazelaia alkateak.

Autonomia bermatua egongo den etxebizitza bat izango den arren, zaintzarako pertsona bat egongo da. Pertsona hori gehienez lau ordu eta erdiz egongo da bertan, astelehenetik zapatara. "Laguntza puntuala emango du", esan du Xabier Legorburuk, Udaleko Gizarte teknikariak.

Zerbitzua eraginkorra izateko, erabiltzaileek nahitaez bete beharreko baldintzak izango dituzte. Autonomoak izateaz gain, azkeneko bi urteetan Bergaran erroldatua egotea eta 60 urte baino gehiago izatea beharrezkoa da. Azken baldintza horrek, baina, salbuespenak

onartuko ditu. "Bikoteen kasuan, baten adina ez bada 60 urtera iristen, aztertu egingo dugu", gehitu du Legorburuk.

Zerbitzua osatzera

Erabiltzaile bakoitzak, bere egoera ekonomikoa kontuan hartu ondoren, hilero gehienez ere 668 euro ordainduko ditu. Maizterra autonomoa izan dadin, hilero gutxienez 287 euro lagako dizkiote. Zerbitzuaren oreka ekonomikoa mantentzeko, Udalak finantzatu egingo du zerbitzua.

Zerbitzua abiarazteak nahi baino luzeago jo duen arren, otsailaren letik aurrera martxan egongo da. Egundorretan iritsiko da oraingo etxe horrek izango duen maizter bakarra. Une honetan libre dauden bost logelak Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik kudeatuko dira. Etxe tutelatua ezagutu edo eskaerak egin nahi dituztenek hara jo beharko dute.

Etxebizitza horren aurkezpenean, Bergarako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Javi Bengoak aipamen berezia egin zuen: "Eusko Jaurlaritzako etxebizitza saileko Pablo Peñakoba eta Bergarako Udaleko alkate ohi Jesus Elortzak proiektu honen garapenean izan zuten garrantzia aitortzea beharrezkoa da". Prozesu luze baten ostean, Bergarako lehen etxebizitza tutelatuaren ateak zabalik daude.

XABIER LEGORBURU
GIZARTE
ZERBITZUETAKO UDAL
TEKNIKARIA

"Erabiltzaileen premietara egokitu gara"

Ze ezaugarri ditu etxeak?

Pertsona nagusi eta autonomoendako tokia da.

Indibidualak diren sei logela ditu, baita komunak izango diren egongela, hiru komun eta egongela.

Garrantzi handia eman diotzue autonomiari?

Hau ez da egoitza bat. Hemen ez da 24 orduko zerbitzurik egongo. Erabiltzaileei behar duten laguntza arina eskainiko zaie.

Gizarte zerbitzuak osatzera datorren zerbitzua da hau?

Herritarren premietara egokitu beharra dugu, eta eguneko zentrotik egoitzara dagoen salto horren erdian koka dezakegu etxe hori. Egokitzapenean dago Udaletik eskaintzen dugun zerbitzuaren arrakasta.



Sukaldea eta jantokia espazio berean daude. | I.G.



Etxebizitzak sei logela ditu. | I.G.



Erabiltzaile guztientzako hiru komun daude. | I.G.

Aranzadi ikastolan

denok gara




ARANZADI ikastola
 Kalitatezko Euskal Heziketa



Aurrematrikulazio kanpaina
otsailaren 2tik 13ra

Banakako bisita gidaturako hitz
ordua hartu: 943769071

Ikastetxearen aurkezpena
urtarrilaren 28an,
arratsaldeko 6:30ean

Konfiantzaren pedagogiaren
inguruko hitzaldia otsailaren 4an,
arratsaldeko 6:30ean
HIZLARIA: RAFAEL CRISTOBAL

Ate irekiak otsailaren 8an goizeko
11:30etik aurrera

Informazio gehiago
www.aranzadiikastola.eus

Ongizateari eusteko eta enpleguaren alde egiteko ahalegina

- ▶ 31.525.280 euro da aurrekontua, iaz baino 186.000 bat euro gutxiago
- ▶ Udal Gobernuak babestu du; EAJk eta PSE-EEK kontra bozkatu dute
- ▶ 2011 ezker sei milioi euro jaitsi da zorra, "kudeaketa onari" esker

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE
2014ko abenduaren 18ko osoko bilkuran onartu zen 2015eko aurrekontua. Udalak 31.525.280 euro izango ditu aurten Arrasate kudeatzeko, iaz baino 186.000 euro inguru gutxiago -2014ko aurrekontua 31.711.600 euro izan zen-. Bilduk eta Aralarrek osatzen duten Udal Gobernuak babestutako aurrekontuak dira, EAJk eta PSE-EEK aurka bozkatu zuten-eta, osoko zuzenketa aurkeztuta.

Sei ildo nagusi ditu aurtengo aurrekontuak. Hasteko, oinarriko udal zerbitzuak bermatu egingo dituzte, bereziki gizarte egoera ahulenean dauden taldeak babestuta. Bigarren, "apustu irmoa" egingo dute, beste administrazio eta erakunde batzuekin elkarlanean, enplegua sortzearen alde: "Aurten ere enplegua sustatzen jarraituko dugu, enpresekin, Saiolanekin eta unibertsitatearekin elkarlanean; Lanbai azoka antolatzen, Udaletik langabeak kontratatzen, enpresetan herriko langabeen kontratazioa sustatzen eta titulatu berriendako bekak sortzen", adierazi du alkateak. Hirugarren ildo da orain arteko gastu arrunta arrazionalizatzeko prozesuari eutsi egingo zaiola, kostuak murriztuta, azpikontratutako zerbitzuetan "emaitza onak" hobetuta, aurrezteko auke-

rak atzemanda eta baliabideak "hobeto" erabilia. Laugarren lerro nagusia da udal zergen bidez herri-tarren zerga karga ez dela gehituko, eta bosgarrena, berriz, finantza-zorra kontrolatu eta murriztu egingo dela -2011 ezker sei euro milioi inguru murriztu da-. Azkenik, azken urteetako joerari eutsiz,

inbertsioak faseka egingo dituzte, betiere plangintza "egoki" baten oinarrituta.

Askotariko inbertsioak aurten
Aurten 4.283.805 euro bideratuko dituzte inbertsioetara; garrantzitsuenak faseka egingo dituzte: Takolo-Goiru zeharbidea berriro



Azoka Plaza eguaztenean; igogailua amaitzeaz dago. | JOKIN BEREZIARTUA

Azoka Plazaren proiektu gidatzailea

Proiektu estrategikoetako bat da Azoka Plaza biziberritzea. Igogailua jartzeko lanak iaz urri amaieran hasi ziren eta laster bukatuko dituzte. GUreztatu ekimenak bideratutako parte-hartze prozesuan jasotako proiektu gidatzailea martxan jartzeko urtea izango da aurtengoa, aurreikuspenak betetzen badira. Izan ere, proiektu horren obrak aurten esleitu eta lanekin hastea espero dute. Aurten 200.000 euro bideratuko dituzte azokara.

INAZIO AZKARRAGURIZAR | ALKATEA

"Akordiorako, bi aldeek behar dute borondatea"

Oposizioak kontra bozkatu izanari "hauteskunde usaina" ikusten dio alkateak. Bestalde, agintaldi hasieratik "oinarri" izan duten justizia soziala lortzeko lanean jarraituko dutela nabarmendu du.

Iaz EAJrekin lortutako akordioaren balioa nabarmendu zenuen. Aurten ez dago akordiorik. Zergatik?

Akordiora heltzeko, alde bietatik behar izaten da borondatea eta aurten borondate hori ez dute erakutsi EAJk eta alderdi sozialistak. Esango nuke hauteskunde usainak izan duela eraginik euren jarreraren. **Nola ulertzen duzu jeltzaleek nabarmendu duten sintoniarik eza?**

Ez da oso ulergarria, 2014ko konpromisoak bete egin ditugu-eta. Jolasparke estaliak egiteko azterketa egina dago; ibilbide luzeko autobus geltokia egitea zen beste konpromiso bat, eta 2015ean Kaskonategin egingo da bat; lurpeko edukiontziei dagokienez, sistema hau garestia eta problematikoa den arren, konpontzen ari gara izorratuta daudenak; fatxadak garbi mantentzeko planteatu genuen herriko eragile, alderdi eta sindikatuarekin batera aukerak aztertzea. EAJ ere, ados egonik, gurekin batera ibili da gaia lantzen. Azkenik, enpleguaren inguruan esandakoa bete egin dugu; Arrasaten enplegua sustatzeko lau ildo berri jarri genituen martxan eta aurten horiekin jarraituko dugu. **Sozialisten arabera, aurrekontu kontinuitateak dira eta lidergo zein anbizio falta igartzen da Udalean. Zein da zure iritzia?**

Agintaldi hasieratik argi izan dugu zein den gure helburua: justizia soziala oinarri izango duen beste eredu bat eraikitzea. Aurtengo aurrekontuak ere horretara bideratu dira, eta, zentzu horretan, kontinuitate



"Gizarte izaerako laguntza guztiak mantenduko ditugu aurten ere"

izango dira. PSE-EEKo bozera-maile Aritz Arrietarekin sintonian ibili gara aurrekontuen negoziazioan; harrigarria izanda, adostasun giro horren ostean, Arrietak dimisioa aurkeztu izana. Lidergo eta anbizio faltarekin ez gaude ados; halako salaketak argudioirik ez dutenen ahotik etorri ohi dira. **Ongizatea da lehentasuna.**

Hala da. Arrasatear guztien ongizatea babestea dago-kigu eta ez dugu herri honetan inor sozialki baztertuta egoterik nahi. Gizarte izaerako laguntza eta programa guztiak mantendu egingo ditugu, eta, behar izanez gero, gehitu egingo ditugu.

Udalaren zorra 2011n zortzi milioi euro zen eta 2015ean bi milioi izatea aurreikusten da. Zelan lortu da hori?

Orain arteko kudeaketa onari eutsi izanagatik gaude orain gauden egoeran; gastu arruntetan zorrotz jokatu dugu eta inbertsioak aldirikakotasunaz egin ditugu. Horixe izan da formula eta halaxe jarraituko dugu 2015ean ere.

Ezer gaineratu gura duzu?

Azpimarratuko nuke orain arte egin dugun ibilbidea. Iparra argi dugu eta norabide horretan pausoak eman ditugu: gutxi dutenei laguntza eskaini, mugikortasuna bultzatu, kontsumo arduratsua eta jarduerajasangarriak sustatu...

GAINERAKO ALDERDIEN BALORAZIOA

Juan Karlos Garitano | EAJko bozeramailea

"Epe luzerako ikuspeirik ezak behartu gaitu aurrekontuari osoko zuzenketa aurkeztera"



"2015erako aurrekontuak pobreak dira, gure iritziz, eta azken urteko balorazioa ez da ona. Besteak beste, ez dira bete gure kaleak garbi mantentzeko proiektua -pintadak, pankartak, zikinkeria...- eta lurpeko edukiontzien konponketa. Aurrekontuak ez dio Arrasateko egoerari konponbiderik ematen, eta epe luzerako ikuspeirik ezak behartu gaitu aurrekontuari osoko zuzenketa aurkeztera. Langabezia gure arazo nagusia den heinean, hori arintzeko esleipena 108.000 euro murriztu da. Gizarte krisi betean gaudenean, 100.000 euro jaitsi da

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak finantzatzeko aurreikuspena. Udal Azokaren proiekturako bi milioi euroko inbertsioa egingo da 2015erako eta 2016rako, bere kokaleku desegokia mantenduz. Gainera, Arrasate pasealekua oinezkoendako moduan jartzeko 1,3 milioi euro inbertituko dira, trafikoaren egoeraren azterketa bat egin gabe.

Bestalde, ez ditugu partidak ikusi Laubideko aparkalekurako, TAO sistema zabaltzeko edota umeen jolasparkearen bat estaltzeko. Kontrara, gastu berriak ere ezarri dira; auzo-konposterako, adibidez".

Paco Gartzia | PSE-EEKo bozeramailea

"Konformistak eta kontinuitateak dira, eta jarrera antisoziala erakusten dute"



"Bilduren Udal Gobernuak 2015erako aurkeztu dituen aurrekontuak azken urteetako konformistenak dira. Ez dago inbertsio garrantzitsurik eta aurrekoen jarraipena dira, aurrekontu kontinuitateak. Egungo krisia ez da kontuan hartzen; gure ustez, erakundeek ahalegin osagarria egin beharko lukete aurrekontu hauetan jasotzen ez diren zerbitzuak zabaltzeko.

Era berean, aurrekontua ez da herritar guztiei begira egin, baizik eta egin dira Bilduren lagunak direnendako bakarrik. Horren adierazle da Udal Gobernuak ingurumenarekiko duen kezka, baina aldi

berean ez da gai herria garbi egotea lortuko duen udal ordenantza bat ateratzeko. Udal Gobernu honek ez du ideiarik eta lidergo falta igartzen zaio.

Horregatik, jarrera immobilista ikusten dugu eta sozialistek gizarte arloan aurkezten ditugun proposamen guztiak sistematikoki atzera botatzen dituzte. Aurrekontuaren kontra egoteaz gain, Bilduren kudeaketa ereduaren aurka gaude, erakutsi duen jarrera antisoziala ikusita. Horren adibide garbia da herritarrak ez zituela entzun atez atekoaren aurka tinko agertu zirenean".

Takolo-Goirurako lehen fasea aurten

Takolo eta Goiru arteko gunea berriro urbanizatzeko planaren barruan bederatzia fase daude. Aurten lehen fasea –F izenekoa– hasteko asmoa du Udalak. Arrasate pasealekuko bi biribilguneen arteko zatia, Foruen eta Udala plazen arteko gunea, kale bihurtu gura dute, oinezkoei eta bizikletei lehenetsia emanda. 1.135.000 bat euro bideratuko dituzte aurten. Lanek sei hilabete iraungo dutela zehaztu dute; asteen esleitu diote obra Amenabar enpresari.



Errepidea kale bihurtu nahi da, oinezkoak eta bizikletak lehenetsita. | J. DOMINGO

urbanizatzeko lehen fasea (1.135.000 euro), Azoka Plaza biziberritzea (200.000 euro), San Josepe berriro urbanizatzeko lehen fasea (310.000 euro), Udala auzoa urbanizatzea (410.000 euro), Zarugaldeko mendi hegalaria eustea (110.000 euro), argiteria publikoko inbertsioak (175.000 euro), hezkuntzako inbertsioak (185.000 euro) Etxaluze-Musakola bizikleta bidea egokitzea (80.000 euro), Udal Euskaltegiko lokal berriak (100.000 euro), Maka-

tzenako atzealdeko errepidea (73.000 euro) eta Meatzerrekako errege bidea (85.000 euro), besteak beste.

Aukea zena, Udalaren egituraren Aurtengo berritasunetako bat da Aukea erakunde autonomoa zena Udaleko egiturako parte izatera pasatu dela. Herritarrek zein langileek ez dute aldaketarik sumatuko eta Udalak espero du "epe ertainera" kostuak "nabarmen" txikituko direla.

AURREKONTUAK SAILKA (2014-2015)

SAILAK	GASTUAK 2015	GASTUAK 2014	ALDEA 2015-2014	% 2015-2014
Udal zerbitzuak	11.436.290	13.189.720	-1.753.430	-5,30
Ingurumena	2.729.030	889.630	1.839.400	5,79
Hirigintza	2.572.740	2.487.270	85.470	0,32
Kultura	2.242.150	2.369.290	-127.140	-0,36
Pertsonala	2.002.590	2.347.470	-344.880	-1,05
Ongizatea	1.971.540	2.343.530	-371.990	-1,13
Kirola (iaz Aukea)	1.706.870	990.610	716.260	2,26
Euskara	1.255.880	1.153.360	102.520	0,34
Enplegua	1.024.630	1.132.950	-108.320	-0,31
Finantza-zorra	1.000.450	1.120.340	-119.890	-0,35
Ogasuna	907.510	1.091.050	-183.540	-0,56
Hezkuntza	801.490	744.510	56.980	0,19
Gazteria	735.940	688.960	46.980	0,16
Gobernu organoak	677.990	718.750	-40.760	-0,12
Emakumea	311.460	228.490	82.970	0,26
Iturbide	148.720	215.670	-66.950	-0,25
GUZTIRA	31.525.280	31.711.600	-186.320	-0,6

DIRU SARRERAK ETA IRTEERAK

SARRERAK, 100 EURO BAKOITZEKO

- ▶ **49,64 €** udal zergetatik.
- ▶ **42,49 €** diru laguntza arruntetatik (Foru Funtsa).
- ▶ **3,39 €** zorpetzearen edo mailegu berrien bidez, "teorian". Udalak ez du espero mailegurik sinatzea.
- ▶ **0,76 €** ondare sarreretatik.
- ▶ **0,69 €** inbertsioak finantzatzeko kapital diru laguntzetatik.
- ▶ **0,65 €** ondare saltzetik edo hirigintza karga eta aprobetxamendutik.
- ▶ **0,29 €** langileen aurrerakinak itzultzetik eta beste kontzeptu batzuetatik.

IRTEERAK, 100 EURO BAKOITZEKO

- ▶ **32,79 €** pertsonal gastuak.
- ▶ **31,63 €** udal zerbitzuak.
- ▶ **15,49 €** transferentziak edo diru laguntzak.
- ▶ **13,59 €** inbertsioen zuzeneko exekuzioa.
- ▶ **3,17 €** banketxeekin hartutako konpromisoak.
- ▶ **2,49 €** beste erakunde batzuen inbertsioak diruz laguntzeko edo elkarrekin finantzatzeko.
- ▶ **0,84 €** finantza aktiboak erosteko.

Musakolako Zalduspe-Osinaga zubian konponketa lanak egingo dituzte

I. B | ARRASATE

Musakola auzoko Zalduspe-Osinaga zubian konponketa lanak hasiko dituzte datorren astelehenean.

Hainbat aldaketa izango dira han: batetik, herdoila kenduko diote egiturari; bestetik, irristakorra den egurrezko zubiari zorua aldatuko diote, oinezkoek arriskurik izan ez dezaten; eta azkenik, argiztapena osatuko

dute farola berriak jarrita. Erabiltzaileek pozik hartu dute berria, eta itxita dagoen bitartean ahalegin berezia egin behar du dute.

Bi hilabetez itxita

Lanak irauten duten bitartean, zubia itxita egongo da, eta erabiltzaileek buelta handiagoa egin behar du alde batetik bestera igarotzeko.



Musakola auzoan dagoen Zalduspe-Osinaga zubia. | JOKIN BEREZIARTUA

Arbolapetan landatuko duten zuhaitz motaren aukeraketan botoa emateko aukera zabalik

Arbolapetan landatuko duten zuhaitz berriaren aukeraketan hiru zuhaitz motaren artean dago lehia. Eguazteneko datuen arabera, haritz kandudunak 204 boto ditu (%44,25); ezki hostotxikiak, berriz, 35 boto (%7,59); eta astigar zuriak, 222 boto (%48,16). Hain zuzen ere, Arrasateko Udalaren webgunean eman daiteke botoa (Arrasate.eus/eu).



Danbor hotsak txikien eskutik

Arizmendiko umezaintzako hurrek ere danbor hotsekin ospatu zuten San Sebastian eguna. Goizean goiz hasi ziren prestatze lanetan, 11:30ean ekitaldia egiteko. 100 ume inguru ibili ziren danbor hotsetan murgilduta, gunean bertan, eta, horren ostean, hainbat doinu jo zituzten Arrasateko Iturbide egoitzan.

OMEGA
Urban
Service

24h

945 290 308

www.igogailuak.com

debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak
Igogailuen
Mantentze-lanak

Maria Ubarretxena izango da EAJren alkategaia

Adierazi du Arrasate dela euren lehentasuna eta proiektu "sendo eta errealista" aurkeztuko dutela

TXOMIN MADINA | ARRASATE

EAJk asteon aurkeztu du udal hauteskundeetarako alkategaia: Maria Ubarretxena. 34 urtekoa eta Giza Zientzian eta Enpresan lizentziaduna, gaur egun ere udalbatzako zinegotzia da, baita Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiko zuzendaria eta Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Goreneko presidentea ere. Arrasateko EAJren batzarrean aho batez aukeratu dute alkategairako.

Hautagaiaren aurkezpenean, Ubarretxenak berak azaldu zuen Arrasaterentzat proiektu "sendo

eta errealista" aurkeztuko dutela, herria berriz ere bailarako motor bilakatzeko, haren esanetan. Horretarako, hiru bide erabiliko dituztela azaldu du: "Akordioa, negoziazioa eta herritarrei entzutea; udal baliabideen kudeaketa eraginkorra; eta ekintza plan errealistak". Eta gaineratu zuen: "Arrasateren etorkizuna da gure lehentasuna eta ekonomia eta enplegua sustatzea izango da gure apustua, baina herritarrengan eragina duten beste zenbait gai albo batera utzi gabe". Gai horien artean herriaren garbitasuna aipatu zuen.



Maria Ubarretxena, EAJren Arrasateko alkategaia. | TXOMIN MADINA



Iñaki Telleria, Iker Agirre, Maialen Unanue eta Asier Garai. | I.G.

Iñaki Telleria, Iker Agirre, Maialen Unanue eta Asier Garai | EHE taldeko kideak eta Jai Zaleko zerbitzariak

"Poteorako baino gehiagorako"

IRATI GOITIA | ARRASATE

Egubakoitzean inauguratu zuen Euskal Herrian Euskaraz taldeak Jai Zale taberna.

Zelan sortu zen taberna irekitzearen ideia?

I.T.: Aspalditik datorren kontua da. Euskalgintzak taberna baten falta sumatu izan du ekintzak antolatzeko orduan. Abenduan aukera azaldu zitzaigun eta salto egin dugu.

Poteorako gunea baino gehiago izango da?

I.A.: Bai, hainbat funtzio izango ditu tabernak. Horien artean dago poteoa, baina planteatzen duguna da egitarau bat antolatzeko, euskalgintzako jendearen bilgune edo topaleku izan dadin.

Zer motatako egitaraua?

I.T.: Oraingoan, bi kontu antolatu ditugu: inaugurazio egunean Txorbela otxoteak abestu zuen eta zapatuan The Convicts taldeak eskaini zuen kontzertua. Kultura batzordea sortu dugu

eta asmoa da hilean behin zerbaitekin prestatzea: antzerkiak, hitzaldiak, kontzertuak...

Zein eragilerekin zabilzate harremanetan?

I.A.: Oraindik martxan jartzeko dago, baina AEDrekin eta Zahar Berrirekin ekintzak antolatzea aurreikusten da. Hala ere, elkarlana ez da euskalgintzako erakundeetara mugatuko; atek zabalik ditugu.

Zein izango da funtzionamendua?

M.U.: Asteazken zehar 11:00etan zabalduko dugu eta 23:00etan itxi. Egubakoitzean pixka bat beranduago itxiko dugu eta zapa-tuetan parrandarako aukera izango da. Domeketan ere zabalik egongo da. Bestalde, eguenean pintxo-potea eskainiko dugu. A.G.: Esan behar da bertako produktuen aldeko apustua egin dugula. Hala, ZerB eskaintzen dugu, adibidez. Jakietan ere bertako ekoizleen aldeko apustua egin nahiko genuke.

Martxoaren 8rako kartel lehiaketa deitu du Emakume Txokoak

Martxoaren 8rako kartel lehiaketa deitu du Emakume Txokoak. Aurtengo leloa *Feminismoaz danok aurrera goaz!* da. Aurkezten diren kartelek derrigorrean eraman beharko dute lelo hori, baita *Martxoak 8* testua ere. Lanak otsailaren 20ra arte aurkez daitezke BAZen, bertara eramanda edo postaz bidalita. Irabazleak 450 euroko saria jasoko du. Informazio gehiago emakumetxokoak@arrasate-mondragon.net helbidera idatzita edo 943-79 41 39 telefonora deituta.

Abaroako kuotak ordaintzeko epea 26tik martxoaren 1era

Abaroako zuzendaritza-batzordeak ohartarazi dute ezinbestekoa dela 2015eko kuota ordaintzea, ekintzez gozatu ahal izateko. Ordaindu beharrekoa 11 euro da eta urtarri-laren 26tik martxoaren 1era bitarte egin beharko da. Ordainketak helbideratuta dituztenen kasuan, banketxeko kontutik kenduko zaie kopurua. Bestalde, otsailaren 3an hasiko da Ederne Uribesalgok eskainiko duen eskulan ikastaroa. Parte-hartu nahi dutenek bulegoan eman behar dute izena.



LANGILE ETA LANGABETUENTZAT IKASTAROAK %100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA			
FMEH0109 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA			
	UF0883: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA.	30	2015/03/02 - 2015/03/24
	UF0877: LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUEN PREBENTZIOA	30	2015/03/02 - 2015/03/24
MF0090_2 UF0880: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOKO FABRIKAZIO-PROZESU OSAGARRIAK. HIDRAULIKA			
	UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA. FRESA HEIDENHAIN	80	2015/01/08 - 2015/02/26
FMEE0308 FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUEN DISEINUA			
MF0107_3 UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS			
	UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2015/03/02 - 2015/05/07
	UF0455: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUAREN DOKUMENTU-KUDEAKETA	30	2015/05/11 - 2015/06/01
FMEE0208 EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINERIAREN MUNTAKETA ETA ABIARAZTEA			
	UF0457: SISTEMA MEKANIKOAK ABIARAZTEA ETA ERREGULATZEA	50	2015/02/12 - 2015/03/17
KATALOGOZ KANPO			
	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. MCOSMOS	30	2015/04/20 - 2015/05/07
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE0109 BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA			
	UF0888: LOKALETAKO, SALTOKIETAKO ETA INDUSTRIA TXIKIETAKO INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, BTEEAREN ARABERA	50	2015/02/09 - 2015/03/10
ELEM0311_2 AUTOMATIZAZIO-SISTEMA INDUSTRIALEN MUNTAKETA ETA ZAINKETA			
	UF2235: AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMAK ABIAN JARTZEA	90	2015/01/26 - 2015/03/24
	UF2236: LANEKO ETA INGURUMENEN ARRISKUAK PREBENTZEA AUTOMATIZAZIO INDUSTRIALEKO SISTEMEN MUNTAIAN ETA MANTENTZEAN	30	2015/04/13 - 2015/04/28
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA			
ADGD0208 GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETA INTEGRATUA			
	MF0233_2 UF0321: EXCEL AURRERATUA	50	2015/02/23 - 2015/03/25
	MF0237_3 UF0342: GIZARTE SEGURANTZAKO PRESTAZIOAK KALKULATZEA	30	2015/03/02 - 2015/03/24
	MF0238_3 UF0345: GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETARAKO LAGUNTZA ADMINISTRATIBOA	60	2015/04/20 - 2015/05/21
BESTE BATZUK			
	ORGA-JASOTZAILIEN ERABILERA	23	2015/04/20 - 2015/04/29
	ZUBI-GARABIEN ERABILERA	17	2015/03/16 - 2015/03/26



Literatura lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalik da

- ▶ Ipuinak, poesia eta bertso-paperak jasoko dituzte
- ▶ Martxoaren 14ra arte bidal daitezke lanak lehiaketara

MAIALEN TORRES | ARRASATE

Hemendik martxoaren 14ra bitartean, poesiaz, ipuinez eta bertsoz beteko da AED elkartearen postontzia. Izan ere, martxan da Arrasate literatura lehiaketa, eta dagoeneko hasi dira lehen lanak iristen. Parte hartzeko asmoa dutenek, ordea, oraindik badute denbora euren lanak bidaltzeko, betiere, elkarteak finkatutako baldintzak kontuan hartuta.

Lau maila bereiziko dituzte aurten ere: LH-5 eta LH-6 mailetakoena lehena, DBH-1 eta DBH-2 mailetakoena bigarrena, DBH-

3 eta DBH-4 mailetakoena hirugarrena, eta batxilergoko ikasleena eta nagusiena. Ipuinak, poesia edo bertso paperak aurkeztu beharko dituzte, eta gaia librea izango da. Gainera, epaimahaiaren aurrean egileen animotasuna bermatzeko, goitizenez sinatuko dituzte lanak.

Parte hartzaileak

Gehienbat lanak ikastetxeetatik jasotzen dituztela azaldu du Artolak, eta are gehiago orain, gazteen parte-hartzea Arrasateetik Debaioen osora zabaldu zutenetik.

Horrela, 100 lan inguru jasotzetik, guztira 180 biltzera pasatu dira. "Maila guztietan inguruko herrietakoei ere parte hartzeko aukera eman nahi genien", dio AEDko kide Itxaro Artolak.

Nagusien mailak adin mugarik ez badu ere, "parte-hartzaile gehienak gazteak" direla onartu du AEDko kideak, baina gogoratu du hortik gorakoek ere atek zabalik dituztela.

Lehiaketa, interes pizgarri

Gauzak horrela, Artolak ikastetxeen laguntza eskertu du, haren

esanetan "erabakigarria" da eta lehiaketaren arrakastan. "Literatura idaztea ez dago boladan gazteen artean, ahalegina eskatzen duen ekintza delako, baina poztekoa da badirela benetan zaleak diren batzuk ere", dio Artolak. Izan ere, azaldu duenez, zenbait parte-hartzailek, ikastetxean egindako lanaz gain, eurek etxean idatzitako lan gehiago ere aurkeztu dituzte, eta badira ikastetxeak ez bultzatu arren euren kabuz parte hartu nahi izaten dutenak ere, baina, "zoritarrez, gutxi dira".

Bestetik, Artolak aitortu du "ulertzekoa" dela gazteek lanak aurkezteko denborarik ez izatea, bestela ere "lanez lepo" ibiltzen direlako.

Ipuinen saila da arrakasta handien izan ohi duena, baina AEDn badakite sail bakoitzeko lan kopurua aldatu egiten dela urtez urte, ikastetxeetan egiten duten lanketaren arabera. "Edozelan ere, formatu batean edo bestean, eta datozen tokitik datozela, pozik jasotzen ditugu lanak", esan du Artolak.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Lasagabaster - Haizea's Weah	7-3
Arrasate Taberna - Ostantz	4-6
Dribling 2.0 - Betrayer	8-1
Drink Team - Kantzerlauten	3-3
Abokajarro - Aldatz	0-5
Sonografos - Jibaros F.C.	4-3
Iluntz - Alytis FK 2.0	4-4

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1. Dribling 2.0	22	8
2. Aldatz	21	8
3. Jibaros F.C.	18	8
4. Sonografos	15	8
5. Alytis 2.0	14	8
6. Abokajarro	12	8
7. Lasagabaster	12	8
8. Ostantz	10	8
9. Haizea's weah	8	8
10. Kantzerlauten	8	8
11. Betrayer	8	8
12. Drink Team	5	8
13. Arrasate Taberna	3	8
14. Iluntz	2	8

PARTIDUAK

URTARRILAK 24. ZAPATUA	
10:00	Dribling - Kantzerlauten / Jibaros F.C.
11:00	Abokajarro - Jibaros F.C. / Dribling 2.0
12:00	Haizea's Weah - Sonografos / Abokajarro
13:00	Iluntz - Aldatz / Haizea's Weah
URTARRILAK 25. DOMERKA	
11:00	Arrasate Taberna - Lasagabaster / Betrayer
12:00	Betrayer - Alytis FK / Drink Team
13:00	Drink Team - Ostantz / Alytis FK

Osasuna zainduz kirola egiteko, teknika da gakoa

Kiroldegiko arduradunek azaldu dute teknika ezagutu ezean kirola kaltegarria izan daitekeela

M.T. | ARRASATE

Astlehenean ekin zioten osasun asteari, *Bizkarra ondo, ni ere ondo* izeneko hitzaldiarekin. Bertan, kirolaren eta osasunaren arteko lotura izan zuten hizpide, besteak beste, eta, Juani Errasti Udaleko Kirol teknikariaren esanetan, hizlariak helarazi nahi izan zuten mezua argia da: "Kirola egitea ona da, baina jakin egin behar da nola, zenbat denboraz eta zein intentsitatearekin egin behar den".

Horren ildotik, beharra ikusi dute teknika arloan laguntza

eskainiko duen aholkulari bat kiroldegiko erabiltzaileen eskura jartzeko, batez ere, igeriketan eta korrika ibiltzen direnei begira, haiek dira eta kirolik zabalduenak. "Kirol batean ibili eta teknika ondo ezagutzen ez bada, gorputzari onura ekarri ordez, kalte egin diezaiokegu", dio Errastik, eta, horregatik, baieztatu du Udaleko Kirol Zerbitzuak aholkularia jartzearen aukera aztertuko duela: "Zaila izango da, baina proposamen interesgarria da".

Hain zuzen, gimnasioan abendura arte izan zen langilearen



Osasun astean zehar egindako pilates saioetako bat. | ARRASATEKO UDALA

funtzio antzekoa izango luke aholkulariak, baina beste kirol eremu batzuetan. Errastik esan duenez, figura hori berreskuratzeko asmoa ere badute.

Ate ireki "arrakastatsuak"

Osasun asteari lotutako saioak amaitu ez diren arren, Errastik dio arrakastatsuak izan direla.

"Aurreikusita genituen parte-hartzaile mugak bete egin dira", azaldu du. Oraindik etortzeko diren ekintzen artean, *nordic walking*-en eta pilatesen zerrendak beteta daude, baina *hata yoga*-n oraindik geratzen da tokia; beraz, gura duenak lehenbailehen eman behar du izena, plaza guztiak agortu aurretik.

Revolta Permanent taldearen kontzertua gaur Iluntz tabernan

Hip-hop eta doinu elektornikoak batzen dituen taldea da Revolta Permanent, eta gaur, 23:00etatik aurrera, euren *Genesis* lana eskainiko dute Iluntz tabernan. Barakaldoko taldeak urte batzuetako etenaldiaren ondoren kaleratu zuten azken lana, eta orain, bi taldekide berrirekin, eraberrituta itzuli dira.

Euren musika eta letrak -guztiak euskaraz- ezagutu nahi dituenak *Revolta permanent.bandcamp.com* webgunean ditu entzungai. Bertan bada euren albuma erosteko aukera, 5,99 eurotan, eta abestiak banaka ere saltzen dituzte.

25 urteko bidea, erakusketa batean

M.T. | ARRASATE

Maiatzean Arrasate Margo Taldeak 25. urteurrena ospatuko du, eta, horren harira, erakusketa bat eta bazkari bat antolatzeko asmoa dute. Data zehatzik finkatu ez duten arren, Kulturaten egingo dute erakusketa, eta bertan, taldeko kide diren eta izan diren guztien lanak bildu nahi dituzte. Horieta askoren kontakturik ez dutenez, publikoki egin nahi izan diete gonbidapena, eta eskatu diete erakusketan edo bazkarian parte hartu nahi dutenei *arrasatemargotaldea@gmail.com* helbidera idatz dezaten.

Orain arteko biltzeko asmoa

Erakusketaz eta bazkariaz gain, ordea, urteurrena ospatzeko eta,



Arrasateko Margo taldeak iazko apirilean egindako erakusketa. | IMANOL SORIANO

era berean, taldearen historia biltzeko, liburuxka bat kalera-
tzeko asmoa dute Arrasate Margo Taldekoek, Udalaren laguntzarekin. Bertan, argazki eta

testu bidez, orain arte egindakoa jaso nahi dute, batetik, orogarrigisa gordetzeko, baina, bestetik, aurrerantzean taldeak egindako lanaren testigu izan dadin.

ISA, Etxez etxeko ile-apaintzailea

17 urteko esperientzia duen ile-apaintzaileak etxetik etxera egongo du; manikura, pedikura, depilazioan eta makillajea diplomaduna

605 72 51 38

Orraztu 11 €

Orraztu + Manikura + Aurpegiko depilazioa 20 €

Prezio ezin hobeak!

Kontsultatu konpromiso barik!

Egubakoitzeko pintadek zeresana sortu dute herrian

- ▶ Udalak, adierazpen askatasuna errespetatu arren, ez du modua zilegi ikusten
- ▶ Eraikin publiko eta monumentaletatik kendu egingo dituzte

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Egubakoitz gauean, ETArean, euskal presoekin eta Josu Uribetxeberriaren aldeko pintada ugari agertu ziren erdiguneko zenbait eraikinetan. Hori dela eta, Udalak adierazpen instituzionala eginda bere iritzia azaldu du.

Adierazpen askatasuna

"Adierazpen askatasuna errespetatzen dugu, baina iragan asteburuan Bergarako erdiguneko hainbat monumentu, guneko publiko eta pribatu eta udal altzari 36 pintada egiteko euskarri moduan erabiltzeaz ez deritzogu zilegi"; horrela hasten da gobernu taldeak pintaden inguruan egin duen

DATUA

36

PINTADA

Josu Uribetxeberria, euskal presoak eta ETA goraiatzeko dituzte erdiguneko hainbat eraikinetan agertu diren pintadak.

adierazpen instituzionala. Herri-tarrei gogoratu diete ideiak nahiz sentimenduak errespetuz eta inorri kalterik egin gabe adierazteko badirela beste hainbat modu, kanal eta euskarri.

Udal Gobernuak azaldu du bakea lortzeko aldarriarekin eta giza eskubideen errespetuarekin bat egiten duela. Horren haritik, euskal presoekin eta bereziki gaitxoekin Espainiako gobernuak daraman "politika suntsitzaileak" bake prozesuari kalte besterik ez diola egiten salatu dute. Eta gehitu dute: "Bide honek talka egiten du euskal herritarren gehiengoak sustatu nahi duen ibilbidearekin".

Gobernuak elkartzasuna adierazi nahi die Euskal Herritik urrun dauden preso eta iheslariak. Baita "politika errepresibo honen biktima izan den Josu Uribetxeberriaren senide eta lagunei".



Domingo Irala kalean agertu den pintadetako bat. | ENEKO AZKARATE

Udaletik adierazi dute ez datozela bat pintada batzuetan egiten den gorazarrearekin: "Horrelako adierazpenek kalte egiten diote egun herritarren gehiengo zabalak indartu nahi duen lan ildoari, eta, aldiz, mesede, bake prozesuari etengabe trabak jartzen dizkionten".

Orain arte agertu diren pintadekin egin duen moduan, Udalak eraikin publiko eta monumentaletan dauden pintadak kendu egingo ditu.

Pintaden egileei isunak?

Herrian agertu diren pintadak baloratu ditu Bergara Garbiak. Euren ustez, onartezinak dira,

eta galdetzen dute: "Pintaden egileek ez dute isunik jaso behar?". Plataformaren ustez, EH Bilduk ez ditu "berek" zigortuko.

Bosgarren edukiontzia alderako plataformaren prentsa oharra ez da pintadetar mugatzen, eta EH Bilduk hondakinen kudeaketarekin "inposatu eta zigortu" besterik ez duela egin diote.

Euren ustez, jendeak ez badu bilketa sistema errespetatzen, gobernu taldeak hezkuntza eta adostasunerantz egin beharrean "inposizioaren bidea" hartu duela da. Bergara Garbiaren ustez, kontsultan ateratako sistema martxan jarritz konponduko litzateke arazo hori.

Herriko batzordeak ekin dio Korrika antolatzeke ibilbideari

I.G. | BERGARA

Jarduneko, Udaleko, Mariaren Lagundiko, Aranzadiko eta Ipinzako ordezkariak hilaren 13an egin zuten Korrika batzordeko lehen bilera; bada, martxoaren 23an herritik pasatuko den Korrikaren harira egingo diren lanak zehazteari ekin zioten.

Herritarren parte-hartzea

Hain zuzen ere, herriko eragile eta norbanakoek garrantzi

berezia izango dute. Horregatik, ekintzek auzolana eta elkarlana bultzatuko dute. Ahalmen pertsonalen eta kolektiboen aktibazio horretan, herriko beste eragile batzuen laguntza eskatuko dute.

Datorren martitzenean kultura etxeko ganbaran egingo duten bilerako ateak zabalik egongo dira. Hortik aurrera, 15 eguneko behin batuko dira, 18:30ean, toki berean.

Irabazi asmorik gabeko elkarteek Erramu Zapatuko txosnen ustiapen eskaerak egin ditzakete

Martxoaren 28an, Erramu Zapatuko azoka dela eta, San Martin eta Munibe plazetan txosna bana jarriko dute, ohi moduan. Bada, pleguak eta baldintzak onartu ostean, irabazi asmorik gabeko elkarteek eskaerak aurkezteko epea otsailaren 20an 13:00etan bukatuko zaie. Eskaera orriak eta baldintzen pleguak idazkaritzan jasotzeko aukeraz gainera, *Bergara.eus* webgunean ere badaude.

Aste bukaera bizi-bizia izango dute Xabaloteko gaztetxoek

Bihar arratsaldean gazteek gogotik egin beharko dute lan, Irizar jauregiko bigarren solairutik botako dituzten arrautzak lurrera apurtu gabe irits daitezten

I.G. | BERGARA

Arratsaldeko batzarrarekin irekiko dute gaur asteburuko agenda potoloa Xabalote gaztelekuko kideek. 19:00etan, gaztelekuan bertan eta herrian sortzen diren kezken inguruan hitz egingo dute. Hain zuzen ere, gazteak, bertako hezitzaileen laguntzarekin, kekek konponbide bihurtzen saiatuko dira.

Arrautza jaurtiketa

Bihar, jolasa eta azkartasuna batzeko asmoarekin, 19:00etan arrautza jaurtiketa egingo dute Irizar jauregiko bigarren solairutik. Arrautza lurrera osorik irits dadin, gazteek sormenez betetako babes tramankuluak asmatu eta eraiki dituzte.



Gaztetxo ugari batzen dira astebururo Xabaloten. | XABALOTE GAZTELEKUA

Bukatzeke, zinea

Hasierako bi egun horien ostean, domeka lasaiagoa izango dute. 18:00etan, Xabaloten bertan, lasai eta eroso, azken urteetan arra-

kasta handia lortu duen *El hobbit; un viaje inesperado* filma ikusteko aukera izango dute. Krispetekin eta fantasiarekin borobilduko dute aste bukaera.

TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Hilaren 29an egingo du Taila Eskolak urteko batzar nagusia

Bi deialdi daude: lehena 18:30ean eta bigarrena 19:00etan, Taila Eskolan bertan. Batzarra aurreko urteko gestioaren azalpenarekin hasiko da. Horren ostean, batzorde berria aukeratu dute, eta ondoren, 2013-2014 urteetako aurrekontua onartuko dute. Eskaera eta galderekin amaituko da bilera.

San Joxepekoak hasi dira urteko batzar nagusia prestatzen

Martxoaren 25ean egingo dute urteroko bilera elkarte tabernan, eta bertan, besteak beste, ezarritako lanaldia bete ondoren, zuzendaritza batzordeko lau kide ordezkatu dituzte. Batzordean sartu gura duten herritarrek elkarte bulegoan jaso dezakete prozesuaren gaineko informazio guztia.

Ireki dute otsailaren 22ko domekako azokarako izen-ematea

Hurrengo domekako azoka otsailaren 22an izango da, eta dagoeneko eman daiteke izena *Bergara.eus* webgunean. Eskaera kopurua kontuan hartuta, lehentasuna bigarren eskuko material saltzaileek izango dute. Haien ostean, herriko artisauen eskariak hartuko dira kontuan; eta azkenik, bailarakoak.

San Paulo zaindariaren jaiak ospatuko dituzte gaurtik domekara arte Uberan

Txupinaren osteko Mari Justaren eta Pedro Joxeren ongietorriarekin hasiko dituzte festak auzoan

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Gaur hasiko dira uberarrak auzoko jaiak ospatzen. 20:30ean, txupinarekin eta Mari Justaren eta Pedroren ongietorriarekin leher-tuko da jaiak. Horren ostean, auzotarrek txikiteoa hasiko dute, eta, 21:00etan, trikitilariak girotutako afaria eta dantzaldia izango da.

Jaiak zapatu eguerdian jarraituko du. 12:00etan, umeek jolasten duten bitartean, nagusiek salda eta txistorra dastatuko dute. Gero, tortilla eta tarta txapelketa egingo dute; lehen sailkatuak, gainera, saria jasoko du. Eta eguna borobiltzeko, 14:30ean, auzo bazkaria egongo da.

Domeka, egun handia

Zaindariaren eguna domekan denez, ekitaldiz betetako eguna izango da. 10:00etan, Bergarako txistularien dianak iratzartuko



Auzotarrak iazko San Paulo jaiak ospatzen. | GOIENA

ditu auzotarrak. Diana amaitu eta gero, 10:30ean, meza nagusia izango dute.

11:30ean, meza amaitu eta gero, Alai taldeak eta Moises Azpiazu dantza taldeak saioa egingo dute, eta orduan ere salda eta txistorra egongo da.

San Paulo Txiki

Asteburuko lo falta atzean utzi eta gero, festak astelehenean jarraituko du. 11:00etan, mezarekin hasiko dute eguna. Elizkizunaren ostean, eta jaiak bukaera emateko, auzotarrek salda eta txistorra dastatuko dute.

Autoek eta oinezkoek, Bidekurutzeta berria

Esleitu eta gero, lanek hiru hilabete iraungo dute

I.G. | BERGARA

Bidekurutzetatik oinezko eta auto ugari pasatzen dira egunero, eta, espazio hori hobeto antolatzeko, Udalak plataforma bakarreko

kalea egingo du. "Kale bereko eta Ramon Maria Lili kaleko espaloiak malda txikiko konexio eroso batekin lotuko dira", azaldu dute Udaletik. Azalekoak izango

dira kale horretan egingo diren lanak, orain arteko azpiegiturak mantendu egingo dira-eta. Euri-uren kanalizazioa eta kable elektrikoak sartzeko instalazioa, baina, berriro egingo dituzte.

Oinezkoak eta autoak

Proiektuaren arabera, oinezkoentzako espaloia eta autoentzako errepidea maila berean egongo dira. Espaloia zementuzkoa izango da eta errepidea, berriz, asfaltzkoa. Bakoitzak kolore ezberdineko kapa bat izango du.

Urbanizazio proiektu horretan, guztira, 757 m2 eraberrituko dituzte. Orain arte, oinezkoentzako 214 m2 zeuden, eta, proiektua betetakoan, 353 m2 izango dira. Autoentzako espazioa, aldiz, 543 m2-koa da eta obra amaitutakoan 405 m2-ra murriztuko da.

Hirigintzako Plan Orokorrean aipatzen den moduan, helburua da hirigune historikotik pasatzen den zirkulazioa zerbitzu eta sarbideetara mugatzea eta oinezkoek lehentasuna izatea. Aurrekontua onartu eta proiektua esleitu ostean, lanek hiru hilabete iraungo dute.



Lanak egingo diren eremua. | IMANOL GALLEGO

San Martingo eraikin berria bihar inauguratuko dute

I.G. | BERGARA

Haur Hezkuntzako eraikina inauguratuko dute bihar. Ekitaldia 10:00etan hasiko da LHko ikasleen krosarekin. Ordubete geroago, ekitaldi ofizialaren txanda izango da. 11:45ean, HHko eraikinean, guraso elkar-tearen eskutik, umeentzako tailer, puzgarri eta jolasak egingo dituzte.

Goiza ederto pasa eta gero, 14:00etan txikien bazkariaren txanda iritsiko da, eta 14:30 aldera nagusien txanda izango da. Bada, nagusiek bazkaltzen duten bitartean, 17:00ak arte Jardun euskara elkarteak bideratutako ipuin kontaketa eta jolasak izango dituzte txikiak. Eta egun alai horri behar bezalako amaiera emateko, 17:00etan, nahi duen guztiak dantza egiteko aukera izango du. Horrenbestez, herritar guztiak bat egiteko moduko festa antolatu dute San Martin eskolatik.

Kartzela zaharra atontzeko Auzolan Atomikua deitu dute

Gaztetxea txukuntzeko asmoarekin, Auzolan Atomikuari ekingo diote asteburu honetan. Biharko eta etziko bi deialdi egin dituzte, goizekoa 10:00etan hasiko da eta arratsaldekoa, 16:00etan. Astelehenean emango dizkiote azken ukituak kartzela zaharri; hain zuzen ere, 10:00etan batuko dira boluntarioak.

Bergarako Orfeoien kontzerturako sarrerak salgai daude

Orfeoia, ganbera-orkestra baten laguntzarekin, Haendel-en *Mesias* obra eskainiko du otsailaren 7an, San Pedro parrokian, 20:00etan. Gaurtik aurrera, sarrerak salgai daude, 10 eurotan, kultura etxean, Benjamin oinetako-dendan eta Pikupen. Batzen den dirua Stolz-Freres organoa konpontzeko izango da.

NIRE USTEZ

MIGUEL LAZPIUR



Betiko balioak

Duintasunez bizitzeko lan egin behar da; gehienbat hemen, industria aberastasun gehien sortzen duen sektorea da, eta gehienago bertan lan egiten dugu. Ez dago dudarik, enpresak ondo joateko, balioak oinarritzeko dira.

Kontzeptu hau ez da berria, beti egon da hor, baina horrek ez du esan nahi ez dela kudeatu behar, eta hobetu behar. Hau bi modutan egin behar da, enpresa barrutik eta kanpotik, gizartetik.

Denborarekin gauzak aldatu egiten dira, eta belaunaldi aldaketekin balio batzuk galdu egiten dira, eta beste batzuk agertu. Balioak bide onetik eraman behar dira, argi dago ondo egindako lanarekiko maitasuna ez dela gorantz doan balio bat; aisialdia, berriz, bai.

Betiko balioak ezin ditugu zalantzan jarri, hauek edozein enpresa edo erakunde pribatu edo publiko ondo joateko ezinbestekoak baitira. Ilusioa, konpromisoa eta ondo egindako lanarekiko maitasuna.

Balio hauek oinarritzeaz gain, gako dira gure enpresak eta ongizateak funtzionatzeko. Horretarako, beharrezkoa da berotu eta argitzen duten sugarrak piztuta mantentzea bizi-rik jarraitzeko.

Sugarrak piztuta mantendu ahal izateko aspektu garrantzitsuak badaude: komunikazioa, gardentasuna, ezagutza, zintzotasuna eta eredu. Neure zalantzak daukat balio hauek mantendu eta hobetzeko erantzukizuna dutenak beharrezkoak diren ahalegin guztiak egiten ari diren.

"Oinarri diren betiko balioak ezin ditugu zalantzan jarri"

AITONAK

TABERNA
(Jubilatuaren etxea)

Bazkariak
•
Afariak
•
Ospakizunak
•
Kintadak

ETOR ZAITEZ!
08:00etatik 21:00etara zabalik!

Tel.: 628 443486
Boni laskurain, 9 behea
BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

disdira

ile-apaindegia
edertze gela

Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

**TELEIXA
BILTEGIAK**

Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Berriz ere Emakumeen Itzulia ekartzeko asmoa du Lokatzak

Aste honetan egindako batzar orokorrean, aurtengo egutegia zehaztu dute

JULEN IRIONDO | BERGARA

Iaz egin zen aurreneko aldiz Emakumeen Gipuzkoako Itzulia, eta Bergara izan zen lasterketari hasiera emateko ardura izan zuen herria; Lokatza kluba, zehazki. Ordukoa arrakastatsu gertatu, jende askoren ikusmina eragin, eta aurten esperientzia errepikatuko dutela ematen du. Lokatzak

martitzenean egindako batzar orokorraren ostean, Jon Unamuno presidentek Goienari adierazi zion %80-90eko aukera dagoela Bergarak har dezan berriz ere lasterketaren hasiera. Lehenengo edizioan, kadete, junior eta elite mailetako txirrindulariek hartu zuten parte, eta maila nagusian Bizkaia-Durango taldeko

Leire Olaberria ikaztegiatarra izan zen irabazlea; Olaberriak berak irabazi zuen Bergaran ere. Agorrosinen hasi eta, herriko kaleetan barrena, San Martin plazan amaitu zen 1,7 kilometroko erlojuaren kontrako atariko izan zen. Aurten ere gauza bera egiteko asmoa du Lokatzak, nahiz eta zehaztu barik eduki ibilbidea

zein izango den eta iazkoa baino luzeagoa izan ote daitekeen. Maiatzaren 15ean, egubakoitza, izango da lasterketa.

Txirrindulari kopuruaz, kezka

Batzar orokorrean kezka agertu zuten aurten Lokatzan ibiliko den txirrindulari kopuru txikiagatik. Bost gazte izango dira, eta kadeterik ez dago. Eskolarteko mailan hamar bat dituzte. Zuzendaritzatik Bergarako gaztetxoak animatu nahi dituzte txirrindularitza proba dezaten.

Bestalde, Lokatzako zuzendaritzan talde berak jarraituko du aurten ere, eta iazko kontuak eta aurtengo aurrekontua onartu zituzten batzarrean.

LASTERKETAK:

Martxoak 29: Gorlako Igoera.

Apirilak 25: Labegarietako lasterketa.

Maiatzak 2: Eskolarteko lasterketa.

Maiatzak 15: Emakumeen Gipuzkoako Itzulia.

Maiatzak 22: Pentekoste lasterketa.

Ekainak 13: San Antonio lasterketa.

Data horiek aldatetaren bat izan dezakete, Jaurlaritzaren Segurtasun Sailak berretsi behar ditu-eta. Bestalde, aurten ez dute zikloturistentzat martxarik egingo, baina badute asmoa horrekin lotutako eguna egiteko.



Umeek danborrak astindu dituzte San Sebastian egunez



SAN MARTIN AGIRRE, ARANZADI IKASTOLA ETA MARIAREN LAGUNDIA

San Martin Agirre eskolako, Aranzadi ikastolako eta Mariaren Lagundiko umeek San Sebastian eguna ospatu zuten martitzenean. Hala, Sarriegiren erritmoak jarraituz, ederto eta gogotsu astindu zituzten danborrak hiru ikastetxeetako ikasleek. Gehienek, gainera, eurek eskuz egindako sukaldari txapela zeramaten jantzita. Asko eta asko izan ziren etxeko txikiaren erakustaldia ikustera joan ziren gurasoak, eta, hain zuzen ere, argazki-kamera eskuetan hartuta, ez zuten euren seme-alaben unerik galdu nahi izan; hala, adi-adi izan ziren.

KOMUNITATEA GOIENA | HERRIKO HIRU IKASTETXEAK

Lehia garrantzitsua du bihar Bergara KEk Ereintza Aguaplast-en aurka; partidua 17:30ean da

Azken jardunaldian 31-18 galdu zuten bergararrek. Indupime Basauri Mutilak talde indartsuaren aurka neurtu zituzten indarrak eta ezin izan zuten irabazi. Hala, sailkapenean hamargarren postuan dira hamaika punturekin. Jardunaldi honetan, Ereintza Aguaplast taldea hartuko dute etxean, Labegarietako kiroldegian. Sailkapenean euren atzetik daude kanpotarrak –hamaikagarren postuan–. Bada, norgehiagoka garrantzitsua izango da. Partidua bihar da, 17:30ean.

Soraluze Bergara KEkoek gaur neurtuko dituzte indarrak Oiartzengo Saskilagunak-en aurka

Ondo dihardute saskibaloiko mutilek. Azken norgehiagoka 50-36 irabazi zieten Viento Sur taldekoei –sailkapenean euren aurkari zuzena da, postu bat beheago dago orain–. Bergararrek 23 puntu dituzte eta bosgarren dira sailkapenean. Aste honetan Oiartzunen lehiatuko dira. Lehia gaur izango da, 20:00etan. Oiartzungo Saskilagunak SKT atzetik doa sailkapenean –hamargarren postuan–; hala ere, ez da partidua erraza izango bergarrendako.

19:30ean hasita infantil eta gazte mailetako bi partidua jokatu dira Udal Pilotalekuan gaur

Astero moduan, partidua dituzte gaur arratsaldean pilotazaleek. Izan ere, Udal Pilotalekuan, infantil eta gazte mailetako pilotariak Gipuzkoako Txapelketa barruko norgehiagokak izango dituzte. 19:30ean hasiko da pilota jaialdia, txikiaren eskutik. Zehazki, Tartaloetxekoan aurka lehiatuko dira herriko infantil mailako pilotariak. Eta ondoren jokatu dute gazte mailako gaztetxoek. Eskuz binaka ibiliko dira Zumaiako pilotarien aurka, hain zuzen ere.

Virginia Imazek ipuin kontaketa egingo du hilaren 27an, 19:30ean

Heldu zein umeentzako saioak antolatu dituzte

IRATI GOITIA | BERGARA

Helduentzako ipuin kontaketa saioa egingo du urtarrilaren 27an Virginia Imazek osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Azaldu du Nicolai Troshinsky idazlearen *El domador de sueños* liburua izango duela oinarri, baina hainbat ipuin kontaketa dituela: "Botikan bezala, denetarik sartuko dut eta hainbat ahozko tradizio erabiliko ditut. Ipuin batzuek barrezka utziko dute entzulea, beste batzuek hunkitu egingo dute, eta izango dira zer pentsatua emango dietenik ere". Imazek jendea animatu nahi izan du: "Aurreiritzia da ipuinak umeentzako direla, baina gero askok ikusten dute oso ondo pasatzen dutela istorioak entzuten".

Ipuin kontaketa hori Udaletik helduentzako antolatu duten zirkuituaren baitan sartzen da. Izan ere, hilero ipuin kontalari batek egingo du saioa –gaztelania eta euskara txandakatur–. Bestalde, umeentzako kontaketa ere izango dira –eskuineko taulan zehazten da noiz izango diren.

IPUN SAIOAK

UMEENTZAKO:

Urtarrilak 30: Maider Galartza.

Otsailak 27: Amaia Arriaran.

Martxoak 27: Raket Imaz.

Apirilak 24: Lupe Lekuona.

Maiatzak 29: Dorleta Kortazar.

HELDUENTZAKO:

Urtarrilak 27: Virginia Imaz.

Otsailak 24: Belen Azkarate.

Martxoak 24: Mujeres imperfectas.

Apirilak 28: Nerea Eluztondo.

Maiatzak 19: Marisol Abreu.

Elorrietaren eta Markezen berbaldia hilaren 29an, 19:00etan

Mikel Markezek eta Eñaut Elorrietak *Baga, biga, higa: euskarazko musikaren transmisioa eta sustapena* izeneko berbaldia egingo dute Zabalotegin hilaren 29an, 19:00etan.

Roman Gonzalezen margoak ikusgai, Gure Ametsa elkarte

Astelehenean zabalduko du Roman Gonzalezek bere margo erakusteta San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarte. Otsailaren 6ra bitartean izango da horretarako aukera.

San Bizente jaiak ospatuko dituzte domekan Parteittin

Meza izango dute 12:00etan ermitan. Ondoren, Kataide txakolinaren aurkezpena eta luntxa egingo dituzte Zabar-teko aterpean. Musika ere ez da faltako.

Miren Elgarresta izango da EAJren alkategaia

Kudeatzaileztat du bere burua eta Bilduren alternatiba izatea da bere asmoa

O.E. / J.I. | OÑATI

Miren Elgarresta (Zumarraga, 1965) izango da EAJren alkategaia maiatzaren 24an egingo diren udal hauteskundeetan. Elgarrestak Albaitaritza ikasi zuen Zaragozan eta baserri munduko eta lehen sektoreko enpresetan lan egin du urte luzez. Azken urteetan, aldiz, ingurumen alorrean dihardu lanean; egun, Arantzazuko parketxean proiektuen teknikari. "Gure herriak aurrean dituen erronkei ongien aurre egingo dien hautagai egokiaren bila ibili gara azken hilabeteetan eta esan dezakegu pertsona ezin egokiagoa aurkitu dugula", adierazi zuen Uri Buru Batzarreko lehendakari Mikel Iturrosek atzo, eguena, egindako aurkezpenean.

Iturrosek gaineratu zuen Elgarrestak ez duela bere ibilbidea politikagintzan egin eta bere burua kudeatzaile modura ikusten duela: "Horregatik, gure herriaren kudeaketari eta garapeneri ekarpen handia egin diezaiokeela uste dugu".

Kudeatzailea

Proposamena "harriduraz" jaso zuela onartu zuen Elgarrestak: "Nire profil profesionala ez da politikoa". Hala ere, EAJren proiektuekin, pentsamolde eta ildo politikoekin bat egiten duela adierazi zuen, nahiz eta politikan esperientziarik ez izan. Miren Elgarrestaren hitzetan:



Miren Elgarresta, jeltzaleen alkategaia. | JULEN IRIONDO

"Nire profila kudeaketan garatu da; hain zuzen ere, lehen sektorean". Jeltzaleen alkategaia enpresetan ibilia da urte askoan aholkularitza tekniko eta ekonomikoa ematen; azken urteotan, baserria eta landa-lurak albo batera utzi gabe ingurumen alorrean ibili da lanean. "Beraz, kudeatzaile naiz, kudeatzaile sentitzen naiz, eta halaxe aurkeztu nien nire burua alderdikideei; Oñatirako nire ekarpen eta asmoa da kudeaketa bide horri jarraitzea", adierazi zuen Elgarrestak. Bere iritziz, "udalerriko eginkizunek, politikarekin baino, kudeaketarekin dute zerikusi handiagoa; azken finean, herri batean, herriak berak dituen ondasunek eta herritarren beharrek dute lehentasu-

na". Alkategai jeltzalearen nahia da Bilduren udal taldearen alternatiba izatea, Oñatiri eta oñatiarrei "udal kudeaketa ona" eskaintzeko; "Gobernu ona ezartzeko, gardentasunean oinarrituko dena, improbisaziorik gabea, plangintzan oinarrituko, egonkorra eta eraginkorra izango diren proiektuak bultzatuko dituen".

Politikaren ardatz nagusiak ekonomia izan behar duela adierazi zuen: "Industria garatzen duten enpresei, bai handiei eta baita txikiei ere, bultzada ematea beharrezkotzat jotzen dugu; halaber, Oñatiko EAJ alderdiak industria jasangarriagoan sinesten duela eta ildo horretatik lan egitea izango dela gure asmoa".

Hispaniola Elgetako portura joango da, altxorraren bila

KOMUNITATEA GOIENA | GANBARA
AITOR BIAIN | OÑATI

Urtarrilaren 17an, 1.100 pertsona elkartu ginen Oñatiko Zubikoako frontoian. Denak helburu batekin: *Altxorraren uhartea* aurkitzea. Louis Stevensonren nobela ezagunean oinarritutako muskala eskaini genuen egun hartan. Eta egia esan, dena borobil irten zen. Muntai handia bazen ere (agertoki handia, mikro asko, argiztapen konplikatu...), dena primeran irten zen, koordinazio handia egon zen-eta gure taldearen aldetik. Zerbait azpimarratu beharko banu, egindako esfortzu eta talde lana izango litzaiteke. Umeak, tramoia, jantzi eta makillajeko arduradunak, teknikaria, sarrerako arduradunak... Denok bat egin dugu proiektu honetan. Hasiera-ha-

sieratik sinistu baitugu muntaiaren. Eta *feeling* hori agertokiko izkina guztietan nabaritu zela uste dut. Jendea oso-oso pozik gelditu zen musikalarekin. Historia polita, dinamikoa, musika ederra, erraz ulertzekoa... Hitz horiek izan ziren errepikatu zirenak. Baina, batez ere, egindako talde lana azpimarratu zen.

Azkenik, eskerrak ikusle guztioi. Zuek izan zineten-eta magia hori sortzeko beste osagai nagusietako bat. Eskerrik asko *Ganbara Faktoriak* sortutako proiektu hau bultzatze-gatik. Hori bai, beste altxor batzuen bila hasita gaude, laster jakingo duzue zein portutan porturatuko den Hispaniola itsasontzia! Horieta bat Elgeta izango da. Apirilaren 25ean goaz Espaloiara (ikus 35.orria).



Musikalarren une bat. | GOIENA

Bilduren alkategaia hilaren 31n aurkeztuko dute

Mikel Biain da orain arteko hautagaia alkatetzarako

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Mikel Biain gertu dago Bilduren alkategaia izateko, baina oraindik ez da bukatu alderdi horrek hauteskundeetara begira jarri zuen pro-

zesua. Urtarrilaren 31n dute azken herri batzarra eta orduan finkatuko dute behin betiko alkategaia. Egun horretan emango dute bukatutzat EH Bilduk udal hauteskundeetara begira egiten diharduen prozesuaren bigarren fasea.

Izan ere, irailean abiatutako prozesuarekin aurrera jarraitzen du. Irail eta azaro artean alorrez alor 2011-2015 agintaldiko balantze zehatza egin ostean, 2014ko azaroan, lehenengo hauteskunde tailerrean, programa egiteari ekin zioten bederatzi taldetan banatuta. Azaro eta urtarril artean programarako ideiak jasotzen eta hautagaia proposatu eta onartzeko prozesuarekin aritu dira. Prozesua 31n amaituko da bigarren hauteskunde tailerrekin (10:00-13:00 gaztelekuan). 13:00etan ekitaldi irekia egingo dute alkatetzarako hautagaia aurkezteko.



Mikel Biain hautagaia. | GOIENA

Pintadak eta kartelak kentzeko eskatu du EAJk

O.E. | OÑATI

Herriko kaleetako pintadak garbitzeko eta kartelak kentzeko eskatu dio EAJk Udal Gobernuari. Jeltzaleek adierazi dute adierazpen askatasunaren alde dardela, baina horretarako bideratutako eremuak erabil daitezkeen eskatu dute, kartelak kentzeak eta pintadak garbitzeak gastu handia eragiten diolako Udalari.

Bestetik, EAJk adierazi du Udal Gobernuak kartelak eta pankartak jartzeko adierazpen taulen "jarraipen zehatzagoa egin" eta "horiek hobeto kudeatu beharko lituzkeela".

Horren harira, Udal Gobernuak adierazi du kale garbiketa zerbitzuarekin zehaztuta dagoe-la hamabost egunean behin adierazpen guneak garbitu edo libra-

tzeko protokoloa, eta protokolo horren inguruan udaletxean ez dela kezarik jaso. Datorren astean beste hiru taula jarriko direla ere esan du, Errekalden, Kale Barrian eta Foruen plazan. Hala, hamabost egongo dira guztira. EAJren prentsa oharra hauteskunde giroan kokatzen du, "Udal Gobernuaren kudeaketa irudia desitxuratzeko saiakera" moduan.



SAGARDOTEGIKO MENUA SORALUZE OSTATUAN

URTARRILEAN ETA OTSAILEAN
OSTIRAL ETA LARUNBAT GAU GUZTIAN

25 €

(edaria eta kafea barne)

KUPELEKO SAGARDOAREKIN!

EGIN EZAZU ZURE ERRESERBA
943 71 61 79 / INFO@soraluzeostatua.es



Liburuan datozen argazkietako batzuk. | ALBERTO ALONSO



Kopuru eta maila handia bertso-paper lehiaketan

Sari banaketa gaur iluntzean da, gaztelekuan, eta Amets Artzallus txapelduna etorriko da

O.E. | OÑATI

Joan den urtean baino lan kopuru handiagoa aurkeztu da aurten bertso-paper lehiaketara, eta antolatzaileak, Oñatiko bertso eskola eta gaztelekua, oso pozik daude. Are pozago, aurkeztutako lanen maila onagatik. "Parte hartu duten guztiak zoriondu gura ditugu. Neska-mutikoez egin duten ahalegina azpimarratzekoa izan da eta horrela agertu dute aurkeztutako lan guztietan", adierazi dute antolatzaileek.

Guztira, 168 lan jaso dituzte (95 Lehen Hezkuntzan eta 73 DBHn) eta hiru ikastetxeetako gaztetxoek hartu dute parte. Epaimahaia, berriz, sei kidek osatu dute.

Sari banaketa gaur, egubakoitza, izango da, 18:00etan, gaztelekuan, eta Amets Artzallus txapelduna izango da sariak banatzen. Guztira, zortzi saridun egongo dira eta denek ikasmateriala gastatzeko diru txartelak eta bertsolaritzarekin lotutako saria jasoko dituzte.

Pescador, Ejea eta Pinedo kirolariak datoz gaur zortzi, euskarari eta kirolari buruz berba egitera

Elkar Hezi ikastetxeak gonbidatuta, puntako kirolariak datoz datorren egubakoitzean, euskarari eta kirolari buruz berba egitera. Etorriko direnen artean daude, besteak beste, Pasai Donibaneko arraunlari Ane Pescador, Bera Bera eskubaloitza taldeko eta Espainiako Selekzioko jokalaririk Eli Pinedo eta Aritz Ejea mendilerakaria. Ekitaldia urtarrilaren 30ean izango da, 19:30ean, Santa Ana aretoan, eta bi zati izango ditu: mahai-ingurua, bate-tik, eta sari banaketa, bestetik.

Bazkide berriak egiteko mahaia jarriko du Txirrinka taldeak bihar goizean udaletxepean

Txirrinkak bazkide berriak egiteko mahaia jarriko du bihar, zapatua, goizean kontzejupean. Iaz egindako ekintzen argazkiak jarriko dituzte eta kamisetak ere izango dituzte salgai. Dagoeneko bazkide direnak bazkide izaten jarraitzeko, hamar euro sartu beharko dute taldeak Laboral Kutxan duen kontu korrante zenbaki honetan: 3035 0005 33 0050069509. Beste aukera bat da norberaren kontu korrante zenbakia taldeari ematea.

NIRE USTEZ

LUKENE IGARTUA



Takoi garaiak

Takoiak, bere erabiltzaile garaiago egiteaz gain, haren bernak lirainagoak egiten dituzte. Hauek dira takoiak erabiltzen dituztenen bi arrazoi nagusiak, eta niretzat ulergaitza izan arren, bakoitzak erabili dezala gogokoen duena. Ulergaitza diot, takoi altuek gure garaieran ez ezik, erabiltzailearen bizkarrean eta mokorrean duten eragina zuzena eta kaltegarria delako.

Takoi buruz gustuko ez dudana zera da, emakumeei inposaturiko (edo autoinposaturiko esan beharko nuke?) ohitura bat dela. 10 zentimetroko takoiak eder eta lirain bezain deseroso sentiaraziko dute emakumeak.

kumea, baina gure gizarteko ereduaren emakume bat dotore janzterakoan takoitzarrak ageri dira beti: ETBn eguraldia aurkezteko 10 zentimetroko takoiak behar al dira? La Sextan egon al da inoiz emakumezko aurkeztaren bat oinetako lauekin irteteko ausardia izan duenik? Bi medio aipatzearen bakarrik...

Ni arduratzen nautena eredu horiek dira, egunero-egunero medioetan 10 zentimetroak normaltzat agertzea eta beharrezko izatea. Ni neu, aldami batera igota erosoago sentituko nintzateke, 10 zentimetroko takoi gainean baino. Lagun askok hitz egin didate takoiaren erosotasunaz. Wyoming edo Urko Aristi 10 zentimetro gainean ikusten ditudanean, sinisten hasiko naiz.

"Eredu horiek arduratzen nauten ni"

Potemkin taldearen ibilera, argazki eta DVDan jasota

Taldeari lagundu diotenei eskerrak emateko eta oroigarri gisa atera dute

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Bere ibilbidea nolakoa izan den erakusten duten argazkiak eta DVDa batu ditu Potemkin (2003-2011) taldeak izen bera duen liburuan. "Argazki liburua Alberto Alonsok taldeari kontzertuetan ateratako argazkien bilduma bat da, bigarren diskoaren (*Gauaren zaindariak*, 2010) aurkezpen biran. DVDan, berriz, denetarik sartu dugu. Bi zatitan dago banatua: lehenengo zatian, 2007ra artekoa, sanferminetan jo genuen kontzertuko irudiak eta Bonberenean zuzenean grabatutako abesti baten bideoklipak ikus daitezke, baita argazki galeria bat ere. Beste zatian, bigarren diskoari dagokiona, zuzenean kalitate profesionalerik grabaturiko lau pabost abesti ikusi eta entzuteko aukera dago, Hondarribiko Psilocic-

benean grabatuta", azaldu du taldeko kide Iker Martinez de Zuatzok. Argazkiak Oñatin, Zornotzan, Legazpin, Elgoibarren, Donibane Garazin, Bilbon, Bonberenean eta Bakion egindako kontzertuetan ateratakoak dira, besteak beste.

Hiru laguni eskainia

Aspaldiko asmoa da produktua, baina hainbat arrazoi direla-eta oraintxe atera dute. Martinez de Zuatzok azaldu duenez, jende askok hartu du parte proiektu horretan: "Guztiak aipatzea zaila izango litzateke. Horietako bat da, adibidez, Alberto Alonso, bere argazkien bilduma delako. Bestalde, DVDan partaidetza zabala izan dugu; Kepa Aranburu eta Aitor Perosterenarena, esaterako. Maketazioa, berriz, Ruben Idigo-

rasek egin du. Taldekideok ere hartu dugu parte prozesuaren zati batean edo bestean". Hasiara baten, taldekideontzako eta era batera edo bestera taldearen inguruan ibili eta taldeari lagundu diotenendako atera dute, euren lana eskertzeko eta oroigarri gisa. Edizio mugatua da, beraz.

Produktua, gainera, taldearendako esanguratsua izan diren hiru laguni eskaini die Potemkinen. "Patxi Hipolitori, Oñatiko kulturaren eta gazterian egindako lan handiagatik eta Alonsok berekin zuen harreman estuagatik; Juanan Gartzia, taldekideon lagun-mina, lehen diskoa grabatzen ari zela joan zitzaigun; eta Mikel Ugarte, taldearen soinu teknikaria izandakoa, langile eta lagun fina", azaldu du *Marti-k*, taldeko gitarra jotzaile ohiak.

Ezagutu ez zuen ama hil egin dela jakin duen neskatoaren istorioa

'Arrastoak' antzezlanak dakar Dejabu laborategiak domekarako Santa Ana antzokira, 19:30ean

O.E. | OÑATI

Martxora bitartean bost antzerki ikuskizun antolatu ditu Udalak, umeendako bi eta helduendako hiru. Horietako bat, *Arrastoak*, domekan antzertuko dute Santa Ana, 19:30ean.

Dejabu Papin Laborategiaren lana da *Arrastoak*. Aztarnarik uzteke alde egin zuen amaren gorpuaren agerpenak agerrazitateko mamuen kontra borroka

egin behar duen Lur protagonistaren istorioa kontatzen du.

Antzezleak dira Urko Redondo, Miren Alkala, Iñigo Aranbarri eta Ainara Gurrutxaga. Testuak, berriz, Antzele taldearenak eta Oier Guillanek dira. Azaroan estreinatu zuten antzezlanak, eta harrezkeroko herri askotan izan dira; joan den asteburuan, esaterako, Arrasateko Amaia antzokian taularatu zuten.



Arrastoak. | ARTEZBLAI

Sarrerak salgai daude aurrez *Bibe.me* atarian. Leihatilan ere bai, emanaldia hasi aurretik.

Haurrendako ere bai

Martxora bitartean antolatu dituzten umeendako bi antzezlanetako bat, *Mollie Malonen ipuin sinestezina*, bihar, zapatua, ikusi ahal izango da Santa Ana antzokian. Informazio gehiago, 31. orrian.

Film laburrak eta musika asteburuan gaztetxean

Katihotsak Logia kultura ekimenaren lanak ikusteko aukera izango da gaur; bihar, punk gaua

I.G. | OÑATI

Aste barruan bi hitzordu izan dituzte Antixenek gaztetxean, urtarrileko egitarauaren baitan. Astelehenean, drogen eta mugimendu sozialen gaineko auto-

prestakuntza izan zuten, hain zuzen ere. Eguaztenean, berriz, *Adierazpen libreko gunea* fanzineko laugarren zenbakia aurkeztu zuten. Hainbat hedabidetan argitaratutako edukiak batzen

ditu, eta salgai izango da euro baten gaztetxean bertan eta Arrano tabernan.

Asteburuan hainbat ekintza

Aste barruan bi ekintza izan dituzte eta astebururako beste bi hitzordu prestatu dituzte Asanbladako kideek. Gaur, egubakoitza, Katihotsak Logia kultura ekimenak egindako bi film labur ikusteko aukera izango da: *Ataun of the Dead* eta *Joxean's Hil Eben*. Gainera, lan horien zuzendariak gaztetxean bertan izango dira eta eurekin hitz egiteko aukera izan-

go dute joandakoek. Emanaldia 22:00etan hasiko da.

Bihar, zapatua, musikaz gozatzeko aukera izango da. Izan ere, punk gaua antolatu dute. Hiru talde igoko dira gaztetxeko taula gainera: Azpeitiko Baserriko Oilaskuak Labin, Aretxabaletako Guapaheroes eta Zumaiko Brote. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira eta sarrera bi euro ordaindu beharko da.

Datorren astean, hilak 30, Physis vs Nomos bakarleri donostiarraren emanaldia izango da, 22:00etan.

Argazkigintza ikastaroa Ilunpetan taldearen eskutik

Ilunpetan Argazki Taldeak argazkigintza hastapeneko ikastaroa eskainiko du, kamera nola erabili ikasteko. Otsailaren 3an hasi eta martxoaren 24ra arte izango dira saioak. Prezioa 60 euro da eta izena emateko interesa dutenek ilunpetan@gmail.com helbidera idatzi behar dute, edo 605 75 39 66 telefono deitu.



Osoko bilkuran txostena aurkezteko egin zen bilera informatiboa. | ARATZ LOSADA

Herritarren %45ek egiten dute kirola edo jarduera fisikoa

Hori da Kirol Management enpresak egindako azterketatik ateratako ondorioetako bat

J. IRIONDO / I. GOITIA | OÑATI

Joan den urtean martxoan ekin zioten udalerriko jarduera fisikoren eta kirol jardueraren gaineko egitasmoari. Helburua da Oñatiko Udako Kirol Zerbitzuaren lanaren eta kudeaketaren norabidea eta egitasmoak finkatzea. Eta egitasmoak bi fase ditu: azterketa eta plangintza. Bada, lehen fasearekin jardun dute orain arte; diagnosiarekin. Eta utzi duen datuetako bat izan da herritarren %45ek egiten dutela kirola edo jarduera fisikoa. Kirol Management enpresak egindako azterketak balio izan du berresteko kirol kultura eta praktika handiko herria dela Oñati, Gipuzkoako batez bestekotik gora nabarmen. 10 eta 45 urte arteko adin tartea da, zentzu honetan, esanguratsuen, eta eskola kirolean, kirol elkarten jardueretan eta aisialdiko kirolean, guztietan jarduten dute herritarrek.

Bada zer hobetu

Egindako diagnosiak erakusten du kirola non egin ere aukera zabala dagoela, nahiz eta zer hobetu egon. "Parke instalazio duina dauka herriak, baina oso zaharkitua. Adibidez, Zubikoa kiroldegia 31 urte bete ditu berrikuntza asko egin gabe. Hori nabaria da kirol eskaintzaren

kalitatean", adierazi du Oskar Carrascalek, Kirol teknikariak. Azterketak adierazi du baita hainbat espazio masifikatuta daudela. "Agerian geratu da plangintza bat behar dugula kirol instalazioei dagokienez. Horrek inbertsio plan bati atxikita joan behar du epe motz, ertain eta luzera", zehaztu du Kirol teknikariak.

Bestalde, Carrascalek beste puntu bat ere nabarmendu du egin den diagnostikotik: "Oñatin kirola egitea merkea da ezaugarri berdintsuak dituzten herriekin alderatuta. Hau da, Udalak baliabide askotxo ematen ditu herrian kirola egiteko".

Ekarpenak egiteko aukera

Azterlanaren emaitza herriko eragileei aurkeztu diete kontrasterako. Joan den egunean egin zuten bilera informatikoa osoko bilkuren aretoan. Orain, ekarpenak egiteko epea zabalduko dute. "Edonork egin ditzake eta plangintzan kontuan hartuko dira", esan du Kirol teknikariak. Txostena eskuragarri izango da udaleko webgunean.

Hurrengo urratsa izango da Oñatiko kirolaren ildo estrategiko nagusiek zeintzuk behar duten erabaki eta egin beharrekoak kronograma baten bidez planifikatzea.



Langileentzako lehenetsitako ikastaroak 2015

LANERAKO PRESTAKUNTZA HOBETUZ 2015

%100ean diruz lagunduak. Epea zabalik!

IKASTAROAK	KODEA	ORDUAK	DATA
FABRIKAZIO ARLOA			
Mekanizazioa tornu eta fresatze-makinan:			
• Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-prozesua.	UF0881		2015
• Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio-produktuen egiaztapena.	UF0883	110	martxoa
CNC programazioa:			
• Piezak txirbil-harroketa bidez egiteko CNC programak egitea	UF0879	80	2015 maiatza
Soldadura, estalitako elektrodoekin:			
• Planoen interpretazioa soldaduran.	UF1640		
• Ebaketa-prozesuak eta ertzak prestatzea.	UF1622	220	2015/02/23
• Altzairu karbonozko profil eta xafraz estalitako elektrodo bidezko soldadura, errutilozko elektrodoak dituen.	UF1623		
MUNTAIA ETA MANTENTZE-LAN ARLOA			
Muntaiak eta mantentze-lan mekanikoa:			
• Sistema mekanikoen muntaketa eta konponketa.	UF04S6		
• Sistema mekanikoen abiaraztea eta erregulazioa.	UF04S7	120	2015/03/02
Automatismo pneumatikoak eta hidraulikoak:			
• Ekipo-ondasunen eta industria-makinen sistema pneumatikoen eta hidraulikoen muntaketa eta konponketa.	UF04S9	90	2015 martxoa
Automatismo elektropneumatikoak eta elektrohidraulikoak:			
• Linea automatizatuen sistema mekanikoa, pneumatikoa eta hidraulikoa.	UF0624	70	2015 maiatza
DISEINU ARLOA			
• Ordenagailu bidezko diseinua (CAD). 3D		40	2015/02/09
• Ordenagailu bidezko diseinua (CAD). 2D		40	2015 apirila

Informazioa eta izen-ematea:

IES R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI LARRAÑA Lanbide Heziketa egoitzan.

San Lorenzo z/g • Tel.: 943 78 21 50

harrera@onati.net • www.onati.net



Aratuste-domekako herri bazkarirako txartelak salgai astelehenean hasita

Izaro Sanchez aretxabaletarrak egindako kartelak iragarriko du aurtengo mozorroren festa handia

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Hiru aste geratzen dira Aratusteetarako, eta Kultura Saila azken gertatze lanetan dabil. Astelehenean hautatu du mozorroren jaia ze kartelak iragarriko duen: Izaro Sanchez aretxabaletarrarenak, hain zuzen ere. Sei lan aurkeztu dira lehiaketara eta Sanchezek egindako irudi nahastea aukeratu du epaimahaia.

Herri bazkarirako txartelak

Herri bazkarirako kontuak ere lotu dituzte. Astelehenean hasita eska daitezke txartelak Arkupen, Kultura Sailekoen bulegoan, 09:00etatik 15:00etara bitartean, eta, orain arte legez, kuadrillak jaso behar dira. Horretarako, kuadrillako kide guztien izen-abizenak eman behar dira, eta bertan ordaindu. Hona menuak: helduena (16 euro): babarrunak, txerri-masailak saltsan eta tarta izozkiarekin edo goxua; eta umee-na (12 euro): makarroiak, hamburgerak saltsan patatekin eta izozkia. Bazkaria kiroldegian izango da, azken urteotan legez, eta 600 lagunendako lekua dago.

Lokaletako giltzak Arkupen

Mozorroak gertatzeko lokalak, oster, joan den astea ezker dituzte gertu herriarrek. Iaz legez, kontu txikiararako dago Mitarte plazakoa, eta muntaia handiatarako Eskoriatzako Torrebaso pasealekuan dagoen G pabiloioa. Hiru kuadrillak dagoeneko hartu dituzte giltzak, eta gainerakoek Arkupeneko harreraren eska ditza-kete. Giltza jasotzeko arduradun



Aratuste-martitzenerako dantza pausoak ikasten. | MAIDER ARREGI

bat izendatu behar du kuadrillak eta hark nortasun agiria eraman behar du eta araudiaren berri duen dokumentua sinatu. 20 euroko fidantza ordaindu behar da. Adingabeen kasuan, guraso bat izango da arduraduna.

Dantzaren pausoak

Bestalde, Aratuste-martitzenari begira asmatutako kantua laster zabalduko dute ikastetxeetan. Arizmendi Ikastolako 16 urteko gazteek asmatu dute hori, *Ez da egun txarra izango!*, eta astean egin dituzte lehen dantza entseguak. Bideoan jaso dituzte dantzaren pausoak eta gero ikaste-txeetara eramango dute bideoa ikasleek ikas dezaten.

500 bat ume elkartzeko dira Aratuste-martitzen goizean Herriko Plazan, 2 eta 12 urte arteko



Aratusteetako kartela. | IZARO SANCHEZ

herriko neska-mutiko guztiak, eta txaranga izan ohi dute lagun kalejiran. Aurten, lehenengoz, guztiak batera abestu eta dantzan egingo dute.

egongo dira gero. Horren ostean, dantzan jarriko gaitu DJ AbiTxinek.

Aratusteei ongi torria egiteko iaz herriko ikastetxeetatik pasatu zinen; aurten ere egingo duzu halakorik? Bai, bai, oso ondo hartu ninduten eta umee. Otsaileko lehen astean izango da; hortaz, umeak, adi egon! **Helduen kuadrillek mozorro dotoreak gertatzen dituzte, baina atzetik badatoz gaztetxoak ere, ezta?** Bai, oso garrantzitsua da hori, jarraipena izateko harrobia ondo zaindu behar da eta. Odolean daramagu, eta UDAko harrobia bakarrik ez, Aratusteetako ere ziurtatuta dago.

Aratuste-martitzenerako abestia asmatu dute aurten. Zeuk ere ikasiko duzu dantza?

Ikasteko asmoa badut, bai, baina dantzan ez naiz oso abila...

Mezurik aretxabaletarrendako? Munduko Aratuste onenak dira, eta animatu eta gozatu guztiok!

Kintoak hasita daude dantza entseguen

1996an jaiotako 55 bat lagun elkartuko dira Santa Ageda kantuan eta eskean jarduteko

M.A. | ARETXABALETAKO

Santa Ageda kantuan eta eskean ibiliko diren kintoak hasita daude gertatze lanetan. Dagoeneko bi dantza entsegu egin dituzte, eta oraingo egubakoitzean txistulariekin elkartuko dira pilotalekuan, 22:00etan.

1996an jaiotako neska-mutirik 55 bat baserri-kalekale 4an baserri-kalekale 5ean kalerik kale kantuan ibiliko direnak. 55 bat gazte, guztira. Aurten, hiru egunean egingo dute dantzan Herriko Plazan: Santa Ageda egunean

eta hurrengo bi domeketan (otsailak 8 eta 15). "Beste egunen bat ere hartuko genuke, baina ez dago gaizki", jakinarazi du Maddi Garrok. Dantzan egiteko, baina, aurretik gertatu egin behar, eta entseguak fruituak ematen dabilzala jakinarazi du: "Asko gara dantzan ibilitakoak eta gainerakoek segituan ikasi dituzte banakoaren pausoak. Beste kontu bat dira fandangoa eta arin arina...". Agurra eta desafioa dantzatuko dituztenak ere jo eta sua dabilzta ikasten.

Datozen hiru astelehenetan etorriko dira odola ateratzera Arabako odol bankuko kideak

Datorren astelehenean (urtarrilak 26) eta otsailaren 2an eta 9an etorriko dira Arabako odol bankuko kideak osasun etxera odola ateratzera. Hona ordutegia: 16:30etik 20:00etara.

Urteko lehen odol ateratzeak izango dira, eta odol emaleen elkarteko kideek animatu gura dituzte, batetik, beti ematen duten herriarrek, eta bestetik, orain arte emateko ohiturarik ez dutenak, batez ere gazteak.

Edonorendako zabalduko dituzte Algara ludotekako ateak hilabeteko azken egubakoitzetan

Urtarrilean hasita, hileko azken egubakoitzetan ate irekiak egingo dituzte Algara ludotekan. Hala, datorren egubakoitzean, urtarrilak 30, herriko edozein ume gerturatu ahal izango da Gernika plazan dagoen egoitzara hori ezagutu eta bertan jolas egitera. Bi txanda zehaztu dituzte: lehenengoa (17:00etatik 18:15era) 3, 4 eta 5 urtekoendako izango da; eta bigarrena (18:15etik 19:00etara), 6 urtetik gorakoendako. Harpidedun ez direnek izena emateko aukera izango dute.

NIRE USTEZ

OIER ARANTZABAL



'Ahora'

Aurten be ondo hasi deuen urtia... Urtarrileko bigarren zapatuan, urtero legez, egin gendun Bilbora eskursioa. Bazkaltzeko iritsi eta urteroko tokian bazkaldu ostian, Hondarribiko lagunekin elkartu ginen, urtero bezala, parke baten. Eguraldia uste baino freskoagoa izanda be disfrutatu gendun Guggengeim inguruak bisitatzen, pixka bat pasiatzen... Egixa esan, nola aldatu dan inguru hau 20 urtetik hona! Eta zenbat euskera entzuten dan Bilbon urtarrillero bigarren asteburu hontan!

Udaletxeko zubi aldera gerturatu ginen, eta Bilboko kale batzuk gurutzatu genituen jende artian. Formato berrian, hori bai, umeek ederto pasa zeben

argi fosforeszenteekin jolasian.

Etxera bueltatu ginen urteroko pentsamentuakin: "Ia datorren urtian Bilbo bisitatzeko beste eskusa bat topatu biher dogun..." Jarraian gertatutakoek ez dabe hontan lagundu, mate batekin hasi eta mateari xake zapatuan, jende piloz betez Donostia. Eta segiduan atxiloteta gehixago, honek ez dauka bukaerarik.

2013an Tolosan Kilometroak ospatu genituen; orduan *Ahora* lema zentzu bikoitza zeukan. Pentsatu zeiken erdaldunentzako mezua zela, *Ahora es el momento de aprender euskera!* Baina *Euskara ahora* eramatea zen helburu nagusia, euskera daki-gunok erabiltzea, alegia. Oraingoan, zentzu bakarra hartzen du hitzak: *ahora, orain, now...* Euskal presoak Euskal Herrira!

"Mate batekin hasi eta mateari xake zapatuan"

TXAPEL TXIN | ARATUSTEEN IRAGARLEA

"Odolean daramagu eta harrobia ziurtatuta dago"

Aratusteak iragarriko dituen Txapel Txin ere hasita dago mozorroren festa gertatzen.

Hasi zara Aratusteak gertatzen?

Bai, bai, ia prest daukat guztia. Eguraldiak laguntzea gurako nuke egunean bertan, hori da nire kezka, baina Pello Zabalarri gutuna idatzi diot eguraldi ona eskatzen.

Mozorroaren berri ematerik baduzu?

Hori beti da sorpresa! Baina lasai, laster bideotxo bat egingo dut, pista txikiren bat eman eta girotzen hasteko.

Otsailaren 7an zeure eguna da; egitaraua aurrera dezakezu?

Goizean, betiko legez, trikitilariekin txikiteoa egongo da eta gero torrada



Txapel Txin. | GOIENA

lehiaketa. Ia *Atxurdi*-i konpetentzia egingo dion inor aurkezten den... La Troupe de la Rue taldeak girotuko ditu kaleak eta sari banaketa eta pregoia

Otsail erdialderako gertu Gernika plaza

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Gernika plazako jolasguneko lanak eguaztenean hasiko dituzte, urtarrilak 28. Aurretik, baina, orain dauden elementuak kendu behar, eta astean hasi dira udal langileak horretan. Orain arte han egon diren zabuak Arizmendi Ikastolak jasoko ditu, eta Almen gunera eraman.

Bada, jolasgune berriaren muntaia lanak hasita, aste pare bat -eguraldia lagun- beharko dute guztia bukatzeko. Udalak jakinarazi du nahiz eta lanean jardun astelehenetako azoka bertan egingo dela, betiko legez.

Udalak parte-hartze bidez hautatu du Gernika plazako jolasgunea. Hiru proiekturen artean aukeratu ahal izan zuten, batetik, ikastetxeetako neska-mutikoei, eta bestetik, herritarrek. Eta hautatua izan zen Lappset enpresak egindakoa.

Zortzi jarduera izango ditu jolasguneak, eta horien artean daude sei metroko garaiera duen etxetxoa, hamaika metroko txirrista eta kulunkak. Baita esfera itxurako jolasak ere, lurrean. Hori horrela, osagai batzuk ume txikiendako dira eta beste batzuk, nagusiagoendakoak.



Gernika plazako zabuak erretiratzeko lanak hasita. | MIRARI ALTUBE

OHARRAK

IPUIN KONTALARIA LIBURUTEGIAN

Maite Franko kontalariak ipuinak kontatuko dizkie neska-mutikoei bihar, zapatua, 11:30ean, Udal Liburutegian. Sarrera debalde da.

'MAGIA A LA LUZ DE LA LUNA' FILMA

Helduek *Magia a la luz de la luna* (Ameriketako Estatu Batuak, 2014, 98 min.) filma izango dute gaur eta bihar (22:00), etzi (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *Pingüinos de Madagascar* (95 min.) marrazki bizidunak dituzte bihar eta etzi (17:00).

'MAGICAL GIRL' FILMA ZINEKLUBEAN

Zineklubaren barruan, Goya sariak eskuratzeko hainbat izendapen dituen *Magical girl* (Espainia, 2014, 127 min.) eman-go dute. Sarrera, 4 euro.

GAZTELEKUKO KIDEAK ELOSUARA

Atxagaztekoak Elosuara joango dira. Zapatuan eta domekan izango dira han eta hainbat jarduera egingo dituzte.

'BASOAREN AZALA' ERAKUSKETA

Arkupan dago *Basoaren azala* argazki erakusketa hilabetea bukatu artean.



M.A.

Danbor hotsak han eta hemen

Han eta hemen entzun dira danbor hotsak azken egunotan, Aretxabaletako neska-mutikoei ere izan dute-eta gogoan San Sebastian. Astelehenean Basabeazpikoei astindu zituzten danborrak eta martitzenean, Pausokako txikiak eta Kurtzebarri eskolakoak; azken horiek, Herriko Plazan. Gurasoak, aitaita-amamak eta lagun asko izan zituzten inguruan danborrari gaztetxoek ekitaldian.

KURTZEBARRI, ARETXABALETAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIK* A



goieskola



www.goieskola.hezkuntza.net

BILERA INFORMATIBOAK: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza (2-12 urte)

Urtarrilaren 28an, asteazkenean liburutegian
- 17:30ean euskaraz.
- 18:30ean gazteleraz.

MATRIKULA EPEA:
OTSAILAREN 2TIK 13RA.

Santa Kurtz 19
Tel.: 943 79 00 49
012015aa@hezkuntza.net



Zaintza
zerbitzua
egongo da.



Ateak zabalik ditu Zaldibar antzokiak, gaurtik aurrera, kulturarendako

Ekitaldi ofiziala 13:00etan egingo dute eta arratsaldean bisita gidatuak dituzte herritarrek

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Zaldibar antzokiaren ateak parez pare zabaldu eta ongietorria egingo diote eskoriatzarrek kulturaren topaleku berriari. Udal ordezkariak bisitatuko dute lehenengo, eguerdian, eta arratsaldean, gainerako herritarrek.

Historia dokumentalean

Ekitaldi ofiziala 13:00etan izango da. Udal Gobernuak kideak izango dira han, Beñat Herce alkatea buru dela, eta oposizioko kideak eta beste hainbat eragile ere gonbidatuta daude. Baita Aldundiko Kultura Saileko ordezkariak ere. Zinta mozketak ofizial egingo du inauguratzea, eta, alkatearen ongietorri berbak entzun ondoren, eraikinaren gainean egindako dokumentala ikusiko dute: *Zaldibar antzokia*. Eraikinaren historia jaso dute ikus-entzunezko horretan, 1578an eraiki zenetik gaur arteko historia. Irudiak eta argazkiak erabili dituzte eta osatu dute hori eskoriatzarren bizipenak jasota: "Mojen eskolan ibilitakoen bizipenak, zinema izan zenean lanean jardundakoenak eta gaztetxeko kontuak jaso dira", jakinarazi du Arantza Untzuetak, Kultura teknikariak.

Arratsaldean herritarrendako zabalduko ditu ateak Zaldibarrek, eta hiru bisita gidatu egingo dituzte -liburutegian dauden gonbidapenak behar dira toki arazorik ez izateko-: 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan. Alkateak egingo diete harrera haiei, eta gero filma emango dute. Eta buka-



Zaldibar antzokiaren aurrealdea. | IRATI GOITIA

tzeko, nor bere kasa ikusi ahal izango du eraikina.

Gose ikusteko sarrerak salgai

Bada, ateak zabaldu ostean, kultura izango da protagonista areto berrian. Bihar, zapatua, Demode Quartet taldeak *Epa!* ikuskizuna eskainiko du, umorea eta kanta arrakastatsuen *a capella* bertsoak nahastutako ikuskizun bitxia. Domekan, ostera, pailazoak izango dituzte umeek, baina sarre-ak dagoeneko agortuta daude.

Eguenean, Gure Esku Dago lantaldeak antolatuta, *Jostunak* dokumentala emango dute eta *#ehuntzen* programa aurkeztu. Eta hilaren 31n, Gose taldeak *Gosariak* ikuskizuna eskainiko du. Sarrerak salgai daude (10 euro; Atxorrotzeko bazkideek, 8 euro) honako leku hauetan: Eskoriatzan: Inkernu, Azkoagaenea eta Goxotxiki; Arrasaten: Ttukun; Bergaran: Pol Pol; eta Oñatin: Arrano.

EGITARUA

URTARRILAK 24

22:30 Demode Quartet.

URTARRILAK 25

17:30 Poxpolo Ta Konpainia pailazoak (sarrerak agortuta).

URTARRILAK 29

19:00 *Jostunak* filmaren proiektzioa.

URTARRILAK 30

19:00 Musika eskolako kontzertua.

URTARRILAK 31

23:00 Gose taldearen kontzertua.

'Zumba' dantzatu eta areto txirrindularitzan jardungo dute bihar

Kirolariz beteko dira pilotalekua eta kiroldegia 'Zhunba day' eta 'Ziklon day' ekitaldiekin

M.A. | ESKORIATZA

Zhunba day eta *Ziklon day* egingo dituzte bihar goizean Eskoriatzan, Udalak eta E-goitek kirol zerbitzuak antolatuta. Bi ekitaldiok izango dira martxoaren 24an Oñatin egingo dituzten maratoiak gertatzeko: *zumba* eta areto txirrindularitza maratoiak, hain zuzen ere.

100 bat kirolari

Zumba-n jarduten duten kirolariek Joseba Iñurrategi pilotalekuan dute hitzordua bihar, 10:30ean. Ordu eta laurden inguru iraungo du ekitaldiak, eta bi irakaslek gidatuko dute. 40 bat lagun elkartuko dira han, eta musika lagun dutela dantza eta kirola bateratuko dituzte.

Ziklon day ekitaldiak, osterara, spinningean eta areto txirrindularitzan jarduten duten kirolariak elkartuko ditu Manuel Muñoz kiroldegian. Bi talde osatu dituzte, eta bietan 30en bat txirrindulari elkartuko dira: 09:15ean lehenengoak eta 10:45ean bigarrenak. Ordu eta erdian eragingo diete hankei geratu ere egin barik.

Beste hiru ekitaldi

Ikasturteko hirugarren ekitaldiak dira biharkoak (*Zhunba day* bigarrena), eta oraindik beste hiru egingo dituzte martxoaren 24a baino lehen: otsailaren 7an, Arrasaten; 21ean Legazpin (*Ziklon day* bakarrik); eta martxoaren 7an, Antzuolan.



Hainbat lagun *zumba* jarduera egiten. | ASIER ARREGI

Nagusiendako antolatzen duten termalismo programan izena emateko epea zabalik dago

Imerso bitartez estatuko administrazioak nagusiendako antolatzen dituen termalismo programan eman daiteke izena. Abuztura arteko txandetan lehentasuna izateko izen-emate epea bukatu da, baina itxaron-zerrendan sartzeko eman daiteke oraindik. Irailetik abendura arteko txandetarako -lekua aukeratzeko lehentasuna izateko- maiatzaren 18a arte dago zabalik. Izena emateko Gizarte Zerbitzuetara jo behar da.

Pultsometroa erabiltzen ikasteko oinarrizko ikastaroa egingo dute urtarrilaren 30ean

Gero eta kirolari gehiagok darabilten pultsometroa zelan erabili ondo erakutsiko du Asier Penabad txirrindulari bergararrak egubakoitzean, hilak 30, Joseba Iñurrategi pilotalekuan (18:30-20:00). Udalak eta E-goitek kirol zerbitzuak antolatu dute eta izena kiroldegian eman behar da, 5 euroko fidantza ordainduta -norberak ez badu pultsometrorik, jakinarazi harreran-. Oinarrizko ikastaroa izango da, praktika eta guzti, eta bost pultsometro dituzte antolatzaileek ikastarora doazenei uzteko.

Eskoriatzako Korrika batzordeak bigarren bilera egingo du datorren eguaztenean, hilaren 28an

Korrika batzordea hasi da dagoeneko lanean eta bigarren bilera deitu dute datorren eguaztenerako, 18:30ean, kultura etxean. Atxorrotx kultur elkarteak, Leintz Udal Euskaltegiko, Arizmen- di Ikastolako, Luis Ezeiza herri eskolako eta guraso elkarteak kideak elkartu ziren orduan, eta ateak zabalik ditu batzordeak.

Eskoriatzako izen guztiak dituen mapa herritarren eskura dago

M.A. | ESKORIATZA

Eskoriatzako toponimiaren gainean egindako lanak interes handia sortu du eta herritar asko elkartu zen joan den egubakoitzeko aurkezpen ekitaldian. Lan horren emaitza mapa batean jaso dute, Eskoriatzako leku-izen guztiak jasotzen dituen mapa osatua. Eta mapa hori herritarren eskura jarriko dute laster.

Izenak galtzeko zorian

Lanaren ardurak izan duen IkerMap enpresako zuzendari Imanol Goikoetxea oso pozik dago herritarrengandik jaso duten laguntzagatik: "Zeresan handia izan dute herritarrek; batetik, informatzai-

le moduan, jakinduria handiko informatzaileak izan dira, gainera; eta bestetik, emaitzak eman ostean ere ekarpenak egin dituztelako, oraindik informazio gehiago ekarrita. Oso esperientzia hunkigarria izan da".

Era berean, kezkatuta azaldu da toponimiaren egoeraz: "Toponimia tradizionalak garai bateko funtzionaltasuna galdu egin du. Izenak higadura prozesu batean sartu dira eta galtzen ari dira. Lan honekin desagertzeaz zegoen ondare hori berreskuratu egin dugu eta, nolabait, herritarrei luzatu", eta gaineratu du gizartearen lana izango dela hori mantentzea, nolabait, eta ez galtzea.



Goikoetxea aurkezpenean. | I.S.

Egindako lan mardularen emaitza mapa izan arren, lana ez dute bukatutzat eman IkerMapeko kideek: "Toponimia erabat bizia delako eta halako lana ez delako sekula bukatzen".

Inbertsio gehiago egingo dituzte, aurrekontuen diru sarrera igo egin delako

2015erako aurrekontua 2.626.968 euro da; iaz baino 100.000 euro inguru gehiago ditu aurtengoak

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Onartuta 2015erako aurrekontua. Martitzenean egin zen ezohiko osoko bilkura. Aurtengo aurrekontua Bilduren aldeko botoei esker onartu da (sei). EAJ alderdiko bi zinegotziek, aldiz, aurka bozkatu dute.

2015erako aurrekontua bi milioi eta seihun mila euro pasatxo da; iaz baino 100.000 euro gehiago ditu. Diru sarrera handiagoa denez, inbertsio gehiago egiteko aukera izango du aurtengo Antzuolako Udalak. Aldundiko foru funtsetik diru kopuru gehiago jaso du Udalak eta zorra txikitu izanak ere eragin du aurrekontuen sarrera aurtengo handiagoa izatea. Horrek inbertsiorako aukera handitu egin du.



Martitzenean egindako ezohiko bilkura. | MAIDER ARREGI

Oinezkoendako plana

2015ean Udalak egingo duen inbertsiorik garrantzitsuena da oinezkoendako herriko kaleetan egingo den plana. 12.000 euro bideratuko dira. "70 sinadura jaso ditugu eskola eta parke ingurua oinezkoendako bilakatzeko eskatuz. Herriarrek batera adosutako plana da; proba moduan jarriko dugu hasieran eta aukerak zabalik utziko ditugu aldatzeko egin behar badira egiteko", azaldu du Ima Beristain alkateak.

Inbertsio asko aurtengo

Irisgarritasun planarekin ere jarraituko dute aurtengo. Hala, udal txanekin igogailua jarriko dute, eta sarrera egokitu. Eskolako atea ere egokituko dute, eta automa-

tiko bilakatu. Modu horretan, eskolako beroak ez du alde egingo, atea ez delako irekita geratuko. Pilotalekuko atea ere berrituko dute, hondatuta dago eta.

Aisialdirako, berriz, 25.000 euro bideratuko dituzte eta aurtengo skate parkea egingo dute. "Udalak materiala gordeta zeukan lokala hustu du skate parkea jartzeko bertan. Gazteendako ping-pongeko mahaiak ere jarriko dira". Bestalde, baserriko ur-sarea osatzeko eta auzo-konposta herriar gehiagori zabaltzeko diru-partida bat ere bideratuko dela azaldu du alkateak.

EAJren desadostasuna

Inbertsioekin ados egon arren, formekin ez dagoela ados azaldu du EAJk. Aurrekontuak zehaz-

tasun eta anbizio txikikoak direla gaineratu du Maria Eugenia Agirrezabalaga bozeramaileak. Hondakinen bilketak urtetik urtera defizita eragiten duela azpimarratu gura izan du: "Zaborrak eragindako defizita urtetik urtera handiagoa da; diru horrekin beste gauza asko egin daitezke. Herriarren esku utziko genuke eta ea zer pentsatzen duten gai honetaz; diru horrekin zer egin nahiko luketen galdetuko genieke". Alkateak, Agirrezabalagari erantzunez, hauxe argitu gura izan du: "Hori Agirrezabalagaren iritzia da. Ez dakigu ze datutan oinarritu den. Gastu arrunten eta kapital transferentzien kontzeptuak ezin dira zaku berean sartu eta nahastu".



Hesiari falta zitzaizkion xaflak jarri dizkiote. | TTIPI TTAPA TALDEA

Hilerrira bidean dagoen hesia konpondu du Udalak

Ttipi Ttapa taldeak Udalarekin izandako elkarlana "oso positiboa" dela azaldu du

M. A. | ANTZUOLA

Landatxoeko erretiratuek sortutako Ttipi Ttapa elkarteak fruitua ematen dihardu. Izan ere, egindako irteeretan taldeak topatutako oztopo eta akatsak zeintzuk diren Udalari jakinarazi zitzaizkion iaz. Eta Udalak positiboki hartu zuen auzolanean erretiratuek egindako lana. Aurtengo ere erantzun ona izaten ari da.

Hilerriko bideko hesia

Iaz, zenbait konponketa lan egin zituen Udalak; besteak beste, bankuak eta espaloiak konpondu zituzten, Ttipi Ttapak eskatu moduan. Orain, hilerrira

rako bidean dagoen hesia konpondu du Udalak. Hain justu ere, hesiari falta zitzaizkion egur xaflak jarri dizkiote, eta hesia guztiz lotu.

Landatxoekoako oso gustura daude Udalak azaldu dutako jarrerarekin. "Balorazioa oso ona da; hartu-eman ona izan dugu Udalarekin. Orain, beste talde bat osatzen ari da. Bertan, herriko erretiratu guztiak batuiko ditu Herri Lagunkoia izeneko taldeak", azaldu du Landatxoeko zuzendaritza batzordeak. Hala, Ttipi Ttapa taldeak egindako lanaren erreleboa aurrerantzean Herri Lagunkoia taldeak hartuko du.

Hezkuntza emozionala lantzeko ikastaroan izena emateko azken eguna da gaur, egubakoitza

Iaz hasitako ikastaroari jarraipena emateko asmoz, aurtengo gurasoendako hezkuntza emozionala lantzeko ikastaroa eskainiko dute. Otsailaren 4an, 11n eta 18an izango dira, 18:00etan, Orlanen. Interesa dutenek izena emateko azken eguna dute gaur, hilak 23. Udaletxeko bulegora (943-76 62 46) edo Gizarte Zerbitzuetara jo beharko da izena emateko. Doako ikastaroa da.

Patxi Luque musikari antzuolarrak zuzeneko eskainiko du hilaren 25ean, domekan

Poli-tics taldeko Patxi Luquek bakarkako lehen zuzeneko eskainiko du Torresoroan, domekan, 18:30ean. Bertsioko akustikoak eta lasaiak eskainiko ditu. Ausartenendako, berriz, mikrofonoa zabalik izango da garai eta estilo askotariko kantuak abesteko. Sarrera doakoa da. Esan behar da Poli-tics taldea bateriaz janzaila bila dabilela. Interesa dutenek 630 217 596 telefonora dei edo poli-ticks@terra.com helbidera idatz dezakete.

'Ez dot moztuko bizarra!' taldeak herritarren parte-hartzea eta borondatea eskertu gura du

Eskubide zibil eta politikoen alde egiten duen *Ez dot moztuko bizarra!* taldeak herritarren parte-hartzea eskertu gura du: "Eskerrik asko Antzuolako dendari, tabernari eta gainerako negozioei euskal presoentzako laguntza emateagatik. Baita, herritarrei ere herrian antolatzen diren ekintza eta mobilizazioetan parte hartzeagatik". Bestalde, Gabonetako saskiaren zenbaki saritua hauxe da: 1.539. Eta horren ordezko zenbakia: 221.



JESUS KORTABARRIA

**Domekan
jokatuko da
txapelketako
final handia**

Partaidetza polita eta giro ezin hobea izan da aurtengo herriko mus txapelketan. Guztira, 33 bikotek hartu du parte. Finala hilaren 25ean, domekan, Arin jatetxean jokatuko da, 16:30ean. Lehiatuko diren bikoteen artean, lauk parte hartuko dute Debagoieneko herriaren arteko mus txapelketan.

KOMUNITATEA GOIENA |
MUS TXAPELKETA | ANTZUOLA



Iazko maiatzean egindako lehen saioa; Patxi Zubizarretaren *Xia Tenzinen bidaia miresgarria* izan zen liburua. | SAN MARTIN ESKOLA

Irakurzaletasuna bultzatu eta komunitatea sendotzera

'Ir a Kurrin Kurrin' ekimenaren bigarren saioa gaur San Martin eskolan (20:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Irakurzaletasuna bultzatu eta San Martin eskolako kideen elkarbizitza sendotzeko helburuarekin, *Ir a Kurrin Kurrin* izeneko saioa egingo dute gaur eskolan bertan. Iazko maiatzean antolatu zuten lehenengoz eta gaurkoa bigarren saioa izango da. Castillo Suarezren *Ebelina Mandarina* liburua oinarri hartuta, afari-merienda, saio dialogikoa eta jaialdia egingo dituzte, 20:00etan hasita.

Iazko arrakasta ikusita, eskolako arduradunek ikasturte hasieratik "garbi" zuten aurretan ere errepikatu egingo zutela: "Ikasleak, irakasleak eta gurasoak kontuan hartuta, 40 bat lagun elkartu ginen. Arratsaldea eta gaua ederrak izan ziren, horrela adierazi digute bete ziren ebaluazio-orrietan. Gehienek

proposatzen zuten ikasturtean halako bi edo hiru saio egingo. Pentsatuta genituen helburuak bikain bete genituen: irakurzaletasuna bultzatzea, eskolako komunitateko kideen arteko harremanak sendotzea eta ondo pasatzea", adierazi dute eskolako arduradunek.

'Ebelina Mandarina' liburua
Iazko antzeko plana mantenduko dute. 20:00etan eskolako jantokian elkarrekin afalduko dute: "Afariaz zer izango den sekretua da oraindik". Ondoren, eskolako gimnasioan literatura saioa egingo dute: "Parte hartuko dugunok Castillo Suarezren *Ebelina Mandarina* liburua irakurrita izango dugu ordurako. Bost taldetan banatuko gara eta talde bakoitzean dina-

miztzaile bat izango dugu. Taldeetan ikasleak, gurasoak eta irakasleak izango gara, eta denon iritziek berdin balioko dute".

Gurasoen parte-hartzea "oinarritzakoa" dela uste dute antolatzaileek: "Bilerak egiteaz aparte, eskola hurbilago sentitu eta ondo pasatzeko ere gurasoekin kontaktzen dugu. Gainera, ikasleen motibazioa biderkatu egiten da eta, oso garrantzitsua, harremanak sendotu egiten dira". Gurasoendako ere "oso bereziak" izaten dira halako saioak: "Guraso batzuek adierazi digute lehen aldiz etxeko guztiek irakurri dutela liburu bera eta horrek oso jarrera positiboak eragin dituela". Gaur ere espero dute arratsalde eta gau hunkigarria izatea, "emozioz bete".

'Herri txiki infernu handi' saioa domekan

J.B. | ARAMAIO
"Mundiala". Hitz horrekin definitu du Aramaio herria EITB-rako *Herri txiki infernu handi* telebista saioa ekoizten duen Orrio Produzioak enpresak. Domeka honetan (ETB1, 21:30) Aramaio

eta aramaioarrak ezagutzera etorriko dira Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga. Bizikletan ibiliko dira Aramaio paraje ederretan barrena; Gurrutxagak, alkatearen bizikleta ofizialarekin, hainbat lagun ezagutuko ditu bere ibilbi-

dean. Herriko meteorologoa ezagutuko du, hodeiak zenbatzen trebezia berezia duen emakumea. Era berean, herriko asmatzaileak hainbat asmakizun erakutsiko dizkio, bertako ehiztaririk onena ezagutuko du eta Ibarrik urrutien dagoen baserrira egingo du bisita, umeengan ikara sortzen duen baserri berezira.

Bestetik, Mikel Pagadi Aramaiori *Suitza txikia* zergatik deitzen dioten argitzen saiatuko da, eskopetarekin oso trebeak diren familia bereko hiru kide ezagutuko ditu, ahari margolari batekin egingo du topo, Euskal Herriko artzain-txakur trebeak aginduak ematen saiatuko da eta bi milioi erleren artean onik irtetzen ahaleginduko da...



Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga bizikletan, Aramaio sarreran. | EITB

Bost aramaioar izango dira aurtengo Arabako Bertsolari Txapelketan

Manex Agirre, Iker Agirre, Xabi Igoa, Paula Amilburu eta Peru Abarrategi sailkatu dira

J.B. | ARAMAIO

Domeka honetan Dulantzin abiatuko da 2015eko Arabako Bertsolari Txapelketa. 18 bertsolarik hartuko dute parte; 2013ko bost finalistek eta 2014an jokatuak aurre-kanporaketetan sailkatutako 13k. Aramaio bost bertsolari izango dira aurretan: Manex Agirre, Iker Agirre, Xabi Igoa, Paula Amilburu eta Peru Abarrategi.

Dulantzin, Laudion eta Legution jokatu dira lehen kanporaketak. Manex Agirre izango da abesten lehena, Laudioan, eta beste lau aramaioarrek Legution abestuko dute. Fina-

laren aurreko saioak bi itzultan banatuko dira, hau da, bertsolariek bi finalurrekoetan kantatuko dute eta bi saioen arteko puntu metaketak eman go die giltza finalean sartzeko. Saio bakoitzean sei bertsolari arituko dira; Aramaio saioa otsailaren 21ean izango da, kultura etxean, 17:30ean.

Finala martxoaren 21ean

Final handia martxoaren 21ean jokatu da Gasteizko Printzipal antzokian (17:30). Bi itzultan puntuazio metaketa onena duten sei bertsolariak sailkatuko dira finalerako.



Langraiz Okan aurkeztu zuten 2015eko txapelketa. | ARABAKO BERTSOLARIE ELKARTEA

Hausnarketa prozesua irekiko dugu euskal komunitatearen egoera aztertzeko

KOMUNITATEA GOIENA
TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEA | ARAMAIO

Txirritolako kideok hausnarketa prozesua irekiko dugu herriko euskal komunitatearen egoera aztertzeko, euskarak herriaren duen presentzia eta indarra ikertzeko, Txirritolaren funtzioa aztertzeko eta esparru horretan aurrera begira jarraituko diren ildo nagusiak finkatzeko. Bazkideei eta oro har herriko eus-

kal komunitateari dago zuzenduta. Hiru saio egingo ditugu: urtarilaren 28an izango da lehena, 18:00etatik 20:00etara, osoko bilkuren aretoan. Hurrengo bi saioak izango dira otsailaren 11n eta martxoaren 4an. Prozesuari ekiteko, lehen saioan Topaguneko ordezkariak hartuko dute parte, soziolinguistika aldetik hainbat aspekturen gaineko gogoeta sustatzeko.

Pilota partiduak izango dira bihar: lagunarteko bat eta Euskal Ligako buruz burukoa, gazte mailan

Pilota partiduak izango dira bihar herriko pilotalekuan. Lehen norgehiagoka Aramaio pilotarien arteko lagunartekoa izango da, infantil mailan (18:30). Bigarren partidua, berriz, Euskal Ligako buruz buruko gazte mailako txapelketari dagokio, Aramaio eta Andoaingo Gazteleku taldeen artekoa. Oihan Bideburu aramaioarra izango da protagonista; 19:00 aldera hasiko da partidua.

Bolada txarrari buelta ematen saiatuko da areto futboleko Aramaio taldea bihar etxean, 17:00etan

Azken jardunaldietako dinamika txarrari buelta ematen saiatuko da talde aramaioarra bihar etxean, Rotos taldearen aurka (17:00). Hamar partidutatik bi irabazi eta zortzi galdu dituzte eta azken bigarren sailkatuak dira orain bertan. Partiduaren ostean urteroko egutegiaren zozketa egingo dute Añai tabernan (19:30): lau lagunendako afaria, Añain bertan.

Antzerkia, mariatxiak eta dantza saioa Espaloian

III. Monologo Mostra aurkeztu dute: Queque, J.J. Vaquero eta Iñaki Urrutia dira aurtengo izarrak

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aste bukaerako lehenengo kultura eskaintza *La Maratón a Nueva York* izeneko umorezko antzezlan izango da, gaur, barikua, 22:30ean. Madrilgo Criadero de Morsas konpainiak egingo du. —Ikus. 32. orria.

Mariatxiak, zapatuan

Bihar, zapatua, Eibarko mariatxia izango da Elgetan. Hamahiru lagunek osatzen dute taldea: bost gitarra-jotzaile, bi biolinista, tronpetaria, akordeoilaria, baxu-jotzailea, vihuela-jotzailea, eta bi abeslari. 22:30ean hasiko dute

emanaldia. Sarrera hamar euro da, aurrez zortzi euro.

Herrixa Dantzan, domekan

Etzi, hileroko dantza saio irekia egingo du Patxi Monterok antzokian. 19:00etan hasita Europa osoko dantzak egingo dituzte.

Umore azkarra eta ausarta iragarri dute

Eguaztenean aurkeztu zuten Espaloian Elgetako III. Monologo Mostra. Lehen lerroko umoristak gonbidatu dituzte: Iñaki Urrutia eta Juan Jose Vaquero (otsailak 20-21), Queque (otsailak 27-28), eta Maribel Salas, Asier Hormaza eta Gemma Martinez (martxoak 6-7). Sarrerak salgai daude 12-15 eurokotan. Mostra osorako bonua 30 euro da. Harrera ona izan dute aurreko bi mostrek. Mailari eustea da bultzatzaileen apustua.



Elgetako III. Monologo Mostraren aurkezpena eguaztenean. | L.Z.

Sebastian bat bada...

Jendaurreko bi saio egin zituen martitzenean Herri Eskolako danborradak. Eguerdian kofradiako nobleendako jo zuten umeek, eta gurasoendako arratsaldean. Unax Isasi izan da, aruten, danbor nagusia. Irudian, frontoi zaharrea gurasoendako egindako saioa.



L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Zorrozteko harria ostu egin dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Joan den egubakoitz goizaldean, Gatz Museoaren kanpoko aldean Udalak utzita zuen zorrozteko harria lapurtu egin zuten ezezagun batzuek.

Hain justu, bezperan, eguean eraman zuten udal ordezkariak harri hori Gatz Museoa aldera, Udalaren asmoa zelako zorrozteko harria museoan erakustea.

Izan ere, Goierrri aldean izan dute zaintzen harri hori urte hauetan guztietan, harik eta Udala Gobernuak erabaki arte museoan erakutsiko duela.

Baserritarrak haserre

Horren harira, haserre daude Goierrriko auzotarrak: "Ba, bai,

eurak ibili dira eta beti harria zaintzen, eta ustez leku seguru batera joango zelakoan, eta begira, harria bertara eraman eta hurrengo egunean bertan lapurtu egin dute", esan du Eugenio Otsoa alkateak.

Salaketa jarriko dute

Otsoak jakinarazi du oraingo astean bertan duela Ertzaintzan salaketa aurkezteko asmoa. "Herriarendako ondare historiko handia zen, balio etnografikoa dauka", azaldu du. Eta eskatzea libre denez, GOIENA papera baliatuta, lapurrei harria bueltatzeko eskatu gura die alkateak.

XX. mende hasierakoa da ostutako zorrozteko harria. Pedalen bitartez mugiarazten den sistema

erabilia aizkorak eta zorrozteko erabili izan den harria, hain justu. Eta duen balio horrexegatik zuten Udalak Gatz Museoan jartzeko asmoa.

Bi lagun, gutxienez

Lapurretarekin lotutako susmoiek dagokienez, berriz, harriak duen tamaina kontuan hartuta, bi lagun eta autoa baino handiagoa den ibilgailua beharrezko ikusten dituzte lapurreta egiteko. Kontuak kontu, errealitatea da Gatzaga nahiko zigortuta dabilela izaten azken hilabeteotan lapurreteak dagokienez: Eskoriatza eta Gatzaga bitarteko telefono-haria lapurtu zuten (azaroan), transformadorea (lehenago)... Kontuz ibiltzea komeni, bada.

FUTBITO TXAPELKETA

Beste hiru partidu aste bukaeran

Lehen jardunaldiaren ostean, Astuan Villa kokatu da ligaxkako lehen postuan. Goleatzaileen sailkapenean Adrian Gorostiza da *pitxitxi*-a —bost gol—. Bigarren postuan daude, lau gol sartuta, Eneko Oianguren, Jaime Aeropeña eta Mikel Beretxinaga.

AZKEN EMAITZAK

Intxortas Crew - Astuan Villa	0-19
Nahaste Borraste - Tzibaz United	5-4
La Kokotxa - Txapela	4-4

PARTIDUAK, DOMEKAN

10:30	La Kokotxa - Intxortas Crew
11:30	Txapela - Jaitxo
12:30	Tzibaz United - Astuan Villa

Udalak idazkari-laguntzaile lanposturako deialdia egin du; aurkezteko otsailaren 3ra arte dago

Asteon egin du Udalak proben deialdi irekia. Egun erdiz lan egiteko urtebeterako lan kontratua eskaintzen du. Administrazio kudeaketan erdi mailako edo goi mailako titulazioa, EGA titulua, eta gutxienez azken bi urteotan Elgetan erroldatuta egotea eskatzen dituzte, besteak beste. Argibide gehiagorako, jo udaletxera.

Udal Liburutegiak ordutegi berria estreinatu du eta gaur umeendako Ipuinen Ordua izango da

Astelehena ezkerko ordutegi zabalagoa du liburutegi zerbitzuak. Itxiera ordua ordu erdi luzatu dute astelehenetik eguenera, 19:30etik 20:00etara, hain zuzen ere. Eta gaurko, barikua, 3 urtetik gorako umeendako ipuin kontalari saioa iragarri dute. Horrekin lotuta, aurrerantzean, arduradun batek igo beharko du saio amaieran umeak jasotzera; umeak ezingo dira bakarrik irten.

OHARRAK

BISITA GIDATUA DOMEKAN

Kafe antzokian dagoen interpretazio zentrotik 10:00etan abiatuta. Argibideak eta izenemateak: 943-79 64 63 edo turismo@debagoiena.net.

KANTSATZEKE TALDEA

Eguaztenean, hilak 28, bazkide edo federatu txartela egiteko aukera kultura etxeko bigarren solairuan, 19:00etatik 20:00etara.



AMALUR GARITAOHANDIA

LEINTZ GATZAGA

Danborradaren doinuak herrian

"Primeran ibili gara", esan du Amalur Garitaonandiak, Luis Ezeiza ikastetxeko Gatzagako irakasleak, 2-4 eta 5 urteko neska-mutikoei egindako Sarriegiren doinuen erakustaldiaren harira. "Musika ezagutzen dute, eta danborra bitarteko izanda...". Argazkian pozik asko azaltzen dira umeak eta gurasoak.

Oihana Mata eta Agurtzane Elkoro | UDAko zuzendaritzako ordezkariak

"Emakumeondako zerbait antolatzen denean, jendeak erantzun egiten du"

- ▶ Zabalik dago Emakumeen II. Frontenis Txapelketarako izen-ematea
- ▶ Aretxabaletan jokatuko dituzte partiduak, zapatu eta domeka goizetan

XABIER URZELAI | ARRASATE

Seguru Martxoaren 8rako han eta hemen ekitaldi mordoa antolatuko dituztela. Eta bereziki, egun horretan lau emakumezko lanpetuta ibiliko dira Aretxabaletan, erraketa eskuan, pilotari eman eta eman. Egun horretan -domeka- Emakumezkoen Frontenis Txapelketako finalak egongo dira jokoan, Iturrigorriko frontoian. Txapela janzteko gauza dela uste duenak edo, batez ere, lagunartean frontenisean jokatzeko gogoz dagoenak segi dezala irakurtzen.

Iaz hogeitau bikote batu zirenen frontenis txapelketan. Aurten 30 bai?

Elkoro: Hori da gurako genukeena, baina ez dakit iritsiko garen. Iaz 20 bikote izan ginen, eta oso txapelketa txukuna izan zen. Aurten erronka hori jarri diogu gure buruari, baina egia da emakumezkoen zuzendutako txapelketa bat izaterakoan, zailagoa dela halako bikote kopurua lortzea. Iaz, azkenean, 60 emakumezko izango ziren txapelketan, eta kopuru handia da. **Bi urtez txapelketa bertan behe-ron egon eta gero, indarrak itzuli da, horrenbestez.**

Mata: Egia da, lehenago, Lora-mendi Euskara Elkarteak antolatzen zuenean ere neska askok hartzen zuela parte. Gero, Lora-mendin aldaketa batzuk tarteko bi urteko hutsunea izan zen, eta iaz UDAn erabaki genuen ostera ere antolatzea. Helburu nagusia, baina, lehengo berbera da: emakumea, kirola, eta euskara batzea.



Mata eta Elkoro, astelehenean, *Harmailatik* saioa hasi aurreko unean. | XABIER URZELAI

Aurten martxoaren 8a domeka da, ezin proposago txapelketako finalak egunean bertan jokatzeko.

Elkoro: Bai, iaz ere zorzea izan genuen zapatua izan zelako martxoaren 8a, eta aurten domeka. Horrek esan gura du 30 bikotetako kopurura iristen bagara ligaxkako partiduak bai zapatuan eta domekan jokatu beharko ditugula, bestela ez dugu astirik izango.

Txapelketa bailara osora zabaldua, partiduak aste barruan jokatzeko baino proposagoa da asteburuan jokatzeko.

Elkoro: Bai, aste barruan jendea topera ibiltzen da, eta aretxabaletarrek errazago izango lukete aste barruan jokatzeko, herrian bertan direlako partiduak. Baina kanpotik datozenak... Horregatik, asteburuan errazagoa da goiza libre hartzea, seme-alabak eta dituztenek gizonen esku uztea eta tarte bat hartzea frontenisean jokatzu gozatzeko.

Emakumea eta kirola. Komentatu izan dugu lan handia dagoela

oraindik egiteko, baina zerbait antolatzen denean...

Elkoro: Emakumeondako zerbait antolatzen denean jendeak erantzun egiten duela ikusten dugu, eta ilusio handia antzematen da, gainera. Horrek erakusten du emakumezkoen gogoz hartzen ditugula guretako antolatzen diren ekimenak, eta parte hartzeko gertu egoten garela.

Mata: Gainera, txapelketa honek asko du aldarrikapenetik. Martxoaren 8ko ekitaldien barruan

"Iaz hogeitau bikote izan ginen; aurten beste pauso bat eman gura dugu"

"Partiduak asteburuetan izango dira, taldeen arabera"

"Helburua ez dugu aldatu: emakumea, euskara eta kirola batzea"

"Txapelketak asko du aldarrikapenetik; egunero da Martxoaren 8a"

"Partiduetan giro polita egoten da frontoian, etxeok, lagunak..."

antolatuko dugu, lagunartean kirola egiteko hitzordu bat da, baina Martxoaren 8ak egunero izan beharko lukeela adierazi gura dugu.

Datorren martitzenera arte luzatu duzue izena emateko epea.

Elkoro: Bai, hogeita hamar bikoteko kopurura gerturatzeko izen-ematea luzatzea erabaki dugu; gainera, ez dugu asti luze-rik jarri izen-ematea egin ahal izateko. Horrenbestez, datorren martitzenera arte, hilak 27, jasoko ditugu II. Frontenis Txapelketarako eskaerak. Izena emateko nahikoa da mezua bidaltzea emakumeenfrontenisaUDA@gmail.com helbidera. Anima dadila jendea!

Antxintxika Triatloi Taldea izendatu dute 2014ko talderik onena

Duela gutxi aurkeztu du Antxintxikak 2015ean izango duen taldea, eta aurten badute motibazio estra bat, federazioak 2014ko talderik onena izendatu duelako Antxintxika, bai duatloietan, eta baita triatloietan ere.

Ez da lehenengo aldia sari hori jasotzen dutena, baina txalotzekoa da, guztira 77 talderen artean nabarmendu dira eta debagoiendarrak. Bailarako triatloi taldearen helburua gehiago da jendea kirol horretara erakartzea; ez horrenbeste kirol emaitza onak eskuratzeko. Baina, antza, etxeko atletak ez dira hankamotzak.

Arrasateko jauzilariak ondo Gipuzkoako txapelketan

Gipuzkoako Txapelketan ondo jardun zuten Arrasateko jauzilariak. Eneko Carrascalek -ezkerrean- urrea eskuratu zuen luzera saltoan eta salto hirukoitzean. Urrea jantzi zuten, baita ere, Istar Dapenak eta Malen Ruiz de Azuak, eta, txapelketatik kanpo, Iñigo Uribarren -eskuman- Europako Txapelketako gutxieneko markatik lau zentimetro geratu zen (15,66 m).



Aloña eta Bergara, jaitsiera postuak atzean uzteko lehian

Antzuola zulotik irteten saiatuko da Hernanin eta UDAk lidergoa sendotu gura du Martuteneren aurrean

MIREN ARREGI | ARRASATE

Antzuolak izan ezik, gainontzeko Debagoieneko futbol taldeek etxean jokatu dute asteburu honetan. Besteak beste, Bergarak Anaitasuna hartuko du Agorrosinen, bihar, zapatua, arratsaldeko lauretan. Aretxabaletak eta Aloña Mendik domekan jokatu dituzte partiduak, Martuteneren eta Zarautzen kontra, hurrenez hurren. Bi partiduak jokatu dira 16:30ean; Aretxabaletaren eta Martuteneren artekoa Ibarren eta Aloña Mendiren eta Zarautzen artekoa, Azkoagainen.

Ohorezko Erregional mailan ari diren taldeen artean Antzuola da kanpoan jokatu duen bakarra. Hain justu, Hernaniko Zubipe futbol zelaian jokatu dute herriko taldearen kontrako partidua bihar, zapatua, 16:30ean. Ezinbestekoa du irabaztea, sailkapenean azkena da-eta.

Ez da denboraldi borobila izaten ari Debagoieneko taldeen dako. Salbuespena da Aretxabaleta; izan ere, sailkapeneko lehe-



Bergarako jokalaria Jokin Baltzategi baloia babesten. | GOIENA

nengo postuan dago, 40 punturekin. Ez da hori Bergararen, Aloña Mendiren eta Antzuolaren kasua; izan ere, hurrenez hurren, sailkapeneko hamahirugarren, hamalagarren eta hemezortzigarren postuetan daude. Jardunaldi erabakigarria dute honako hau hirurek ere, azken postuak utzi eta jaitsieraren mamuari ihes egiten hasteko.

Mondrak, bihar

Bestetik, bihar, zapatua, jokatu du Mondrak, Mojategin, 16:00etan, Beasainen kontra. Hasiera baten, ez dirudi Arrasateko taldeak lan handia izango duenik sailkapeneko azken aurreko postuan dagoen talde goierritarra bere gain hartzeko. Izan ere, Mondra seigarren postuan dago, 24 punturekin.

Etxean jokatu dute asteburuan Ford Mugarrik eta Bergarak

M.A | ARRASATE

Elgoibarren kontra jokatu du etzi, domeka, Ford Mugarri taldeak, arratsaldeko seietan, Arrasaten, Iturripen. Pablo Gartziairen taldeak sailkapenean seigarren postuan dagoen Elgoibar hartuko du etxean -Ford Mugarri hirugarrenean dago, 25 punturekin-. Hain zuzen ere, bost puntuko alde-gatik gailentzen zaio talde arrasatearra elgoibartarrari sailkapenean. Ford Mugarrik hirugarren postuari eusten dio denboraldian hamabi partidu irabazita, bat berdinduta eta hiru galduta, eta Elgoibarrek hamar irabazi eta sei galdu ditu txapelketa hasi zenetik.

Ez da Ford Mugarri asteburuan etxean jokatu duen Debagoieneko eskubaloitako talde bakarra izango; izan ere, Bergara Kirol Elkartek ere etxean jokatu du, Ereintzaren kontra. Labegarietako kiroldegian izango da norgehiagoka, bihar, zapatua, 17:30ean.

Begarako taldea sailkapenean hamargarren postuan dago hamaika punturekin eta segika du biharko aurkaria, hamaikagarren postuan dago-eta, hamar punturekin. Norghegiokak osagai guztiak ditu parekatua izateko, horrenbestez. Eta gogorlan egin beharko dute bergararrek, bi puntuak eskuratu gura badituzte.



Ford Mugarriko Unai Rodriguez jaurtiketa egiten. | GOIENA

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ATXEN MUNGIA /

NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PILOTA

Beñat Rezusta bergararra jokatzeko gertu da; gaur lehiatuko da Hendaian

- Retegi Birekin batera, Irujoren eta Barriolaren aurka
- Aitor Mendizabalek galdu egin zuen astelehenean

IRATI GOITIA | ARRASATE

Hilaren 9an Bergarako Udal Pilotalekuan jokatzeko Eskuz Bina-kako Txapelketako partiduan eskuak minduta amaitu eta gero, kantxetatik kanpo izan da Beñat Rezusta bergararra. Txapelketako laugarren jardunaldiko partidua izan zen hura, eta minduta amaitu zuela-eta, ezker eskuari errekupeatzeko denbora ematea erabaki zuen. Ondorioz, Tolosako Beotibarren jokatzekoa zen bosgarren jardunaldiko neurketan ez zen izan. Ceciliok orde-

katu zuen -Julen Retegik eta Ceciliok 12-22 galdu zuten Ezkur-dia eta Zabaletaren aurka.

Jokatzeko gertu

Aste honetan pilotalekuan proba gogorra egin eta gero, berriz ere jokatzeko moduan da bergararra. "Nahiko entrenamendu luzea eta gogorra egin genuen astean eta ez nuen minik sentitu. Prest nago", adierazi du Rezustak. Hala, gaur, egubakoitza, jokatuko du Julen Retegirekin batera Irujoren eta Barriolaren aurka. "Partidu zai-

la izango da. Irujo eta Barriola dira iazko txapeldunak, eta zerbaitegatik da hori". Gainera, Irujo eta Barriola garaipen beharrean daude, bosgarren doaz sailkapenean. "Bi puntu bakarrik dituzte eta derrigorrean hasi behar dute norgehiagokak irabazten. Euren ere arazoak izan dituzte eskuetan, baina pentsatzen dut gaur ondo egongo direla. Hala ere, guk gurea egin behar dugu", dio Rezustak. Gaineratu du saiatuko direla Irujo saihesten eta jokoa atzera bidaltzen: "Ea Barriola ahalik eta atzeren mantentzen dugun; izan ere, hortik etorriko dira gure aukerak". Retegik eta Rezustak oso ondo ekin zioten txapelketari, baina azken hiru partiduetan galdu egin dituzte. Bada, bolada txar horri buelta eman nahi diote gaur: "Txapelketa luzea da - hamalau



Beñat Rezusta, min hartu zuen partiduan. | JOSETXO ARANTZABAL

"Partidu zaila izango da, saiatuko gara Irujo saihesten eta atzean jokatzen"

"Txapelketa luzea da eta baditugu sailkatzeko aukerak"

jardunaldi dira- eta baditugu sailkatzeko aukerak. Oraindik ez dago ezer erabakita. Hala ere, komeni da poliki-poliki puntuak lortzen joatea". Horretarako onena gaurkoa irabaztea izango da, 20:30ean hasiko da -ETB1ek eskainiko du.

Pilota aukeraketa eguaztenean egin zuten. "Denbora ematen duten pilotak aukeratu ditugu eta azkarrak saihestu", zehaztu du bergararrak.

Mendizabalek, galdu

Astelehenean jokatu zuen Aitor Mendizabal antzuolarrak Eskuz Binakako Promozio Txapelketako lehenengo partidua Julen Urruzolarekin batera, Jakaren eta Tolosaren aurka, Beotibarren. Emaizta ez zen antzuolarraren eta haren bikotearen aldekoa izan; 18-22 galdu zuten. Hala, Mendizabal eta Urruzola sailkapeneko laugarren postuan daude, zero punturekin.

SASKIBALOIA

Porrotaren ostean, MU garaipena lortzera joango da Pielagos-en etxera

I.G. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak Pielagos-en (Kantabria) jokatuko du domekan, 12:00etan. Lehia zaila izango dela aurreikusten da; izan ere, sailkapenean oso aurrean ez doan arren, oso talde ona da, jokalaririk indartsuak dituena. Azken partidua galtzetik datoz arrasatearrak -92-50 galdu zuten Estelaren aurka-. Aurkari gogorra izan zuten aurrean, ikuspuntu fisikotik ondo prestatutako kirolariak dituena eta altura handikoak. Gainera, arrasatearrak ez ziren kantxara horrelako talde bati aurre egiteko beharrezko grinarekin irten eta jokaldietara berandu iristen ziren. Hala ere, Mondragon Unibertsitateko mutiak ondo dabilta. "Pentsatzen

genuena baino hobeto", dio Larretegi entrenatzaileak, eta irabazteko asmoz goango dira Pielagos-en etxera.

Natra Oñati eta Eskoriatza

Natra Oñatik etxean hartuko du Ibaizabal, sailkapeneko bigarrena. Bihar izango da norgehiagokak, 18:00etan hasita. Aurreko jardunaldian Mungiaren aurka galtzetik datoz oñatiarrak (61-72).

Bestalde, Eskoriatzako neskek Donostiara doaz hirugarren jardunaldi honetan, Internazionalen aurka jokatuz. Bi taldeek bihar, zapatua, neurtuko dituzte indarrak, 16:00etan hasita. Aurreko asteburuan Orioren aurka galdu zuten eskoriatzako neskek (32-37).



Mondragon Unibertsitateak partidua jokatzen, etxean. | GOIENA

ATLETISMOA

Antxintxiketaneok Madrilerako doaz maratokia egitera

Antxintxiketan taldeak Madrilerako bidaia antolatu du asteburu honetarako maratoian, maratoi erdian eta 10 kilometroko lasterketan parte hartzeko. Domeka goizean irtengo dira eta itzuli, berriz, astelehenean, bazkalostean.

ERRUGBIA

Etxean hartuko du Kanpanzarrek Uni Bilbao gaur, 14:00etan

Arrasateko mutilek gaur arratsaldean, 16:00etan, jokatuko dute Uni Bilbao taldearen aurka, Mojategin. Hala, arrasatearrak etxekoan aurrean saiatuko dira lidergoa defendatzen.

ARETO FUTBOLA

Basaurin jokatuko dute Eskoriatzako mutilek domekan, 18:00etan

Eskoriatzako mutilek Soloarte taldearen etxea bisitatuko dute domekan, arratsaldeko seietan, Basaurin. Aurreko jardunaldian atsedean izan zuten, baina lagunarteko bi lehia jokatuko dituzte, Eskoriatza Kirol Elkartearen 50. urteurrenaren harira.

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA
Aretxabaleta-Martutene
Domeka, 16:30. Ibarra.
Aloña Mendi-Zarautz
Domeka, 16:30. Azkoagoin.
Bergara-Anaitasuna
Zapatua, 16:00. Agorrosin.
Hernani-Antzuola
Zapatua, 16:00. Zubipe.

ERREGIONAL PREFERENTEA

Mondra-Beasain
Zapatua, 16:00. Mojategi.
Aretxabaleta-Amaikak Bat
Zapatua, 16:15. Ibarra.

LEHEN ERREGIONALA

Bergara-Irun
Zapatua, 17:15. Ipintza.
Arizmendi-Zestoa
Zapatua, 18:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Mondra
Zapatua, 16:30. Azkoagoin.
Bergara-Beasain
Domeka, 16:30. Ipintza.
Ordizia-Aretxabaleta
Zapatua, 12:00. Altamira.

EMAKUMEZKOEN ERREG.

Mondra-Amara Berri
Zapatua, 18:00. Mojategi.
Arizmendi-Añorga
Domeka, 12:15. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA
Eskoriatza-Soloarte
Domeka, 18:00. Basauri

GIPUZKOAKO LIGA

Aretxabaleta-Inter Kafetegia
Gaur, 21:10. Donostia

BIGARREN MAILA

Mondrate-Denak taberna.

GAZTE MAILA

Goierri-Mondrate

ESKUBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA

Ford Mugarri-Alkorta
Zapatua, 18:00. Iturripe.

EUSKADIKO TXAPELKETA,

GIZONEZKOAK

Bergara-Ereintza
Zapatua, 17:30. Labegaraieta.

EUSKADIKO TXAPELKETA,

EMAKUMEZKOAK

Usurbil-Aloña Mendi
Zapatua, 16:00. Oiarde kiroldegia.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Egia Kata-Izarraitz Aloña Mendi
Zapatua, 18:45. Egia kiroldegia.

GIPUZKOAKO

BIGARREN MAILA

Leizaran-Bergara
Domeka, 12:00. Andoain

SASKIBALOIA

EBA MAILA
Pielagos-MU
Domeka, 12:00. Pielagos.

SENIOR GIZONEZKOAK

Natra Oñati-Ibaizabal
Zapatua, 18:00. Zubikoa.

EMAKUMEZKO SENIORRAK

Internazional-Eskoriatza
Zapatua, 16:00. Donostia.

SENIOR GIZONEZKO 2. MAILA

Erroibide-MU
Zapatua, 20:00. Irun.
Oiarzun-Soraluze Bergara
Gaur, 20:00. Oiarzun.

ERRUGBIA

NAGUSIAK
Arrasate-Uni Bilbao
Zapatua, 16:00. Mojategi

ESKU PILOTA

FEDERATUAK

Oñatin, gaur:
Lau partiduko jokatu dira: 2. urteko alebina eta eskuz binakako kadeteen hiru
19:00.

Bergaran, gaur:
Infantilak: Bergara-Tartaloetxea
Jubenilak: Bergara-Zumaia
19:30

Aretxabaletan, gaur:
2. urteko alebina bi partiduko jokatu dira
20:15



PUNTUA ETXEAN ASTERO JASOTZEKO*:
943 25 05 05 edo ***kluba@goiena.eus***



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

KULTURA

Arkatza eta koadernoak esku artean direla marrazkiak egiteko topaketa

- ▶ 46. World Wide Sketchcrawl topaketa egingo dute bihar Balmasedan (Bizkaia)
- ▶ Bergarako eta Arrasateko 27 lagun doaz eta guztira 50 bat marrazkilari elkartuko dira

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Marrazkiak egitea dute gustuko. Marrazkiak egitea orain eta hemen. *Sketchcrawl*-a da. Eta bihar Balmasedan (Bizkaia) elkartuko dira. 50en bat lagun izango dira arkatzak eta koadernoak esku artean, eta marrazkiak egiten jardungo dute goiz osoan. Debagoienetik hainbat lagun doaz: Arrasatek 12 eta Bergaratik 15.

Egun pasa Balmasedan

Marrazteko hitzordua da *sketchcrawl*-a, hiru hilabete behin egiten den deialdia; hilabete azken aste bukaeran. Nazioarteko mugimendua da eta Internet bidez egiten dituzte deiak (Sketchcrawl.com/forum), tokian tokiko deiak. Euskal Herria's Sketchcrawl izenak bateratzen ditu euskaldunak eta bertatik bideratzen dute mugimendua. Oraingoa Gorka Belaskok antolatu du, Enkarterrietan bizi den irakasleak: "Forum baten bitartez egiten da deia, eta gura duena agertzeko libre da".

Euskal Herria's Sketchcrawl taldea 2011n jarri zuten abian, Donostian egindako topaketarekin. Hurrengo urtean egindako deialdietako bat Bergaran izan zen, eta, hala, mordera etorri dira bata bestaren atzean. Poliki-poliki harremanak estutzen joan dira ohikoak diren kideen artean, eta, sarritan, topaketa hutsa beharrean egun pasa antolatzen dute. Bihar, 10:00etan elkartuko dira Balmasedan, eta lanean hasi. Arkatza, margoak eta koadernoak esku artean, hara eta hona, nor bere kasa ibiliko da. "Herriak aukera asko eskaintzen ditu; oso eremu txikian daude ondare historikoa, zubiak, elizak, azoka, bizitzaz betetako kaleak, trenbidea...", dio Belaskok.

Bi orduko lan-jardunaren ostean, Pintxo i Blanco tabernan elkartuko dira, eta 14:00etan, Boinas La Encartada museoan bazkalduko dute. Arratsaldean, osterara, museoa bisitatzeko tartea hartuko dute.

Marraztu eta partekatu

Pili Azkarate Balmasedan izango da bihar. Bergararra da, Beart elkarteko kidea. "Baina neure



Ean, iaz egindako azken *sketchcrawl*-ean elkartutako taldea. | GORKA BELASKO



Debagoienekoak Ean. | GORKA BELASKO



Marrazkilaria lanean Bergaran egindako topaketan. | GOIENA

kasa noa, ez talde bateko kide naizelako", argitu du. Bertan elkartuko da Elgoibar, Elorrio, Ea, Bilbo, Donostia, Iruñea, Gasteiz eta beste hainbat tokitatik joandakoekin. Eta, aldi berean, munduko beste hainbat tokitan elkartuko dira marraztea gustuko dutenak. "Zarautzen elkartu ginenean Kanariar uharteetako bizilagun bat etorri zen. Euskal Herrira bisitan etorri eta deialdietan begiratu ostean topaketan agertu zitzaigun", dio Azkaratek.

Elkartutakoen artean aniztasuna da nagusi. "Adin askotarikoak, jatorri askotarikoak eta lanbide askotarikoak; irakasleak daude, erretiratuak, langabeak...", dio Belaskok. Eta aniztasun horren

barruan estiloak ere ugari. "Eta ezaugarri bat da ez dagoela inolako lehiarik, nahiz eta batzuek serioago hartu eta beste batzuek jolas hutsa izan", dio. Hala, sarean partekatzen dituzte egindakoak; neurea erakutsi, bestean ikusi eta elkarrengandik ikasi: "Munduko edozein txokotan egindakoa begira genezake, eta hango lanak aztertuta ikasi: baliabide plastikoak, grafikoak...".

Iaz, Bilbon, Eibarren, Iruñean eta Ean elkartu ziren, eta aurtengo lehenengoa Balmasedan da. Marrazkiak egiteko gogoz dagoena pozik hartuko dute eta lekua egingo diote. Hurrengoa Donibane Garazin izango da, apiril bukaeran.

PILI AZKARATE
MARRAZKILARIA

"Sekulako koaderno bildumak dituzte askok dagoeneko"

Aspaldi hasi zen halako topaketetara joaten Pilar Azkarate bergararra eta bihar Balmasedan izango da. **Zelako marrazkiak egiten dituzue?**

Ikusten dena marrazten da, lekuan bertan; hortaz, marrazki bizkorak dira, di-da egingoak, eserita edo zutik.

Ez dago baldintzarik?

Ez, ez. Teknika librea da, eta euskarria ere bai. Koaderno erabiltzen dugu, eta askok sekulako koaderno bildumak dituzte dagoeneko; marrazki ibilbidearen lekuko moduan gordetzen ditugu horiek.

Eta marrazkiak gero Internetera igotzen dituzue...

Bai, hala da, marrazki horren gaineko istorio txiki batekin. Elkarrekin partekatzea da kontua.

Herri barruan elkartu izan zarete beti?

Bai, erosoagoa delako, baina edozein toki da ona. Batzuk parkeetan elkartu izan dira, zoon ere bai, geltoki batean... Valladolidekoek, esaterako, hilerri batean egin zuten hitzordua urriko azken aste bukaeran. Deialdia egiten duenak aukeratzen du tokia.

Debagoienetik asko joango zarete Balmasedara; zabal-tzen doala esango zenuke?

Gero eta gehiago gara, ahoz ahokoak funtzionatzen du-eta. Bergarako hainbat joan izan gara, eta orain Arrasatek beste hainbat datoz; eskolak ematen dabiren Bearteko kide Rikardo Azkargortak animatuta.

Dekalogoia

Enrico Casarosa italiarrak 2006an jarri zuen abian ekimena San Frantzisko hirian eta hark egin zuen lehen deia. Dekalogoia ere zehaztuta dute —euskaraz ere badago sarean— eta horrek dio tokian marraztuko dela zuzenean ikusten dena. Hala, inguruko istorioa jasotzen dute eta horiek toki eta une jakin bat erakutsi; eta gero, Internetera igo. Mundua marrazkiz marrazki erakutsi gura dute.

Jon Kepa Zumalde | Markeliñe taldeko kidea

"Pertsonaia-estereotipoetan oinarritu gara adiskidetasun istorioa kontatzeko"

- ▶ Markeliñe taldeak 'Kixote' lana erakutsiko du bihar Amaia antzokian
- ▶ Haurrentzako sortutakoa da, bereziki, antzezlan estreinatua berria

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Cervantesen pertsonaia ezagunenetan oinarritutako *Kixote*, antzezlan estreinatua berria, ekarriko du Markeliñe antzerki taldeak Amaia antzokira; bihar, zapatua, 17:00etan. Sarrerak 5 eurotan eskura daitezke leihatilan eta *Arrasate.eus* atarian.

Zornotzan estreinatuta, Durangon erakutsi zenuten gero. Hirugarren aretoa duzue, bada, Arrasatekoa.

Halaxe da, bai; orain arteko emaldietatik jaso dugun inpresioa da lana gustukoa dela; baina bereziki adierazi digutena da, harritu egin dituela ikusleak. Uste dut lortu dugula, nolabait, jendearen arreta jasotzea eta jendeari momentu goxo bat pasaraztea.

Cervantes idazlearekin lotzen den antzezlan da, istorioak baino gehiago, pertsonaiek horrela bideratuta.

Cervantesen eleberriko pertsonaiaetan oinarritu gara: Kixote eta Santxo; guk Santxa deitu diogu. Eta estereotipo horiekin guk beste istorio bat kontatu dugu. Egia da, baina, eleberriko une batzuk ere aipatzen direla.

Adiskidetasunari buruzko istorioa.

Bi pertsonaia horien arteko harremanaz, haien arteko adiskidetasunaz eta elkarren artean duten beharraz jarduten dugu. Santxak, esaterako, Kixote zaintzeko eta bere onera ekartzeko, hau da, mundu erreala ekartzeko beharra du. Baina, era berean, Kixotek egiten duena da Santxak duen hutsunea bete; hau da, bere zoramarekin eta duen hegan egiteko gogoarekin eta irudimenarekin,



Markeliñeko kide da Jon Kepa Zumalde. | MARKELIÑE

"Hitzik erabili barik, ahotsekin egindako soinuen bitartez komunikatzen dira"

Santxari bizitzeko beste era bat ezartzen dio. Adiskidetasun horretatik abiatuz sortu dugu istorioa. **Kixote eta Santxa izan daitezke bi lagun, familia bereko bi kide edo erietzeko gaixoa eta zaintzailea.** Ikusleak erabaki dezala nortzuk diren, gure ustez ez du garrantzi

"Bi mundu ikuskera erakusten ditugu: erreala, bat; ameslaria, bestea"

handirik. Agian, ikusleek ezagutzen dute pertsonaia horien antza duen gertuko pertsonarik. **Kixote ameslaria eta baikorra da; eta bestelakoa da Santxa: pragmatikoa eta errealista.** Oso estereotipo garbiak dira Cervantesek eraikitakoak; guk egin

duguna da hori aprobeztatzu hainbat egoeratan kokatu. Azken batean, Santxak duen erronka da bereziki erakusten dena; hau da: Kixoteri bera den modukoa izaten utzi behar dion edo hegoak murriztu behar dizkion bere muntura ekarri horrela. Hor dago kontakizunaren gakoa.

Sandra F. Agirre da Kixote; eta Itziar Fragua, berriz, Santxa.

Urteetako taldekideak dira biak ala biak. Sandra oso polifazetikoa da, musikaria eta abeslaria ere bada. Itziarrek ere askotariko paperak egiteko gaitasuna du; energiaz betetako oso emakume indartsua da.

Bi pertsonaia dira, baina aktoreak, berriz, hiru. Maitane Azpiroz da taula gainean dagoen hirugarrena.

Kixoteren irudimena irudikatzen du trapezio baten gainean zintzilikatuta dagoen Maitanek. Zirkutik dator eta oso aberasgarria izan da gure taldera ekartzea.

Ahotsek indar handia dute, antzezlan hitz bakoa den arren.

Ahotsekin osatzen dute ia soinu banda osoa. Zaraten bitartez, batetik, hainbat egoeratan kokatzen gaituzte, eta bestetik, aktoreen askotariko sentimenduak adierazten dituzte: asfixia, poza... **Dekoratu xumean, objektuak dira protagonista.**

Bi mundu ikuskera irudikatu ditugu objektuen kokapenarekin: Santxarenean, besteak beste, mahaia eta aulkiak behar duten tokian daude, geldi; Kixoterenean, berriz, zintzilik jarri ditugu, mugimendua adierazteko.

Euskal Herriko kulturgintzaz hausnartzera dator Topaldia

A. A. | ARRASATE

Euskaltzaleon Topagunean aspaldiko kezka da eragile euskaltzaleek euskal kulturgintzan izan beharko luketen funtzioa. Hori horrela, eguean, urtarrilaren 29an, Durangoko Landako Elkartegian, *Kultur komunitate bizia: zein da eragile euskaltzaleon egitekoa?* izenburua duen XII. Topaldian, erantzunak aurkitzen saiatuko dira, askotariko euskaltzale eta kulturgileen esperientziak jaso eta elkarrekin eztabaidatuta.

Aurreko edizioak bezala, egun osoko jardunaldia izango da, eta interesa duen edozeinendako dago zabalik. Astelehena (urtarrilaren 26) bitartean eman daiteke izena, *Topaldia.wordpress.com* atarian; 30 euroren truke.

Teoriatik eta praktikatik

Hiru ataletan banatu dute bereziki hitzaldiekin osatutako egitaraua: lehenengoan, euskararen normalizazioan eta hizkuntza komunitatearen garapenean kulturgintzak zer garrantzia duten aztertuko dute. Bigarren atalean, berriz, herrietako euskaltzaleen topaguneek eta eragile euskaltzaleek kulturgintzan duten egitekoa landuko dute. Eta azkeneko atalean, berriz, adibide praktikoak jasota, egiteko hori betetzeko zelako jarduerak antola daitezkeen aztertzea da asmoa.

Ezagunak eta anonimoak

Izen ezagunak daude hizlarien artean: Gotzon Barandiaran eta Igor Elortza, horien artean. Baina baita proiektu herrikoietako kideak ere: Kooltur Ekimenak taldeko Iker Barandiaran, esaterako.

Oñatin eta Aretxabaletan ere umeentzako antzerkiak

Txalo Konpainiaren komedia "magikoa" bihar eta Zirika Zirkusen "akrobazia musikatuak" etzi

A. A. | ARRASATE

Antzerkiak familia giroan gozatzeko hainbat aukera daude asteburuan. Txalo Konpainiak duela sei hilabete estreinatutako *Mollie Malonen ipuin sinestezina* egingo du bihar, zapatua, Oñatiko Santa Ana aretoan. Aretxabaletako Arkupe kultura etxean izango da, berriz, Nafarroako Zirika Zirkus taldea etzi, domeka, *Txarlestrop* ikuskizunarekin.

Oñatiko emanaldirako sarre-
rak, 3,50 eurotan eskura daitezke leihatilan, eta baita *Bibe.me* ata-

rian ere. Aretxabaletako saiorako, berriz, 3 eurotan daude salgai Arkupe kultura etxean.

Aldaketa klimatikoaz

Iraitz Lizarraga, Alfonso Diez eta Aitor Fernandino aktoreek aldaketa klimatiko oinarri duen gai serioa aukeratu dute Oñatin erakutsiko duten umeentzako antzezlan dibertigarria eta bukaera harrigarria duena sortzeko. Mollie Malonek aitaitaren dendan aurkituko dituen pertsonaiekin denborarekin gozatzearen garrantzia

jardungo du, bizirik daudela diruditen dekoratuetan murgilduta.

Antzerkia, musika eta zirkua

Zirkuko akrobazia ariketekin eta zuzenean egindako musikaren gainean egindako dantzekin osatuko du Zirika Zirkus antzerki taldeak Aretxabaletan erakutsiko duen *Txarlestrop* lana. Hori guztia, talde nafarraren ikur diren ezinbesteko beste osagaiekin: umorea eta erritmoa.

Taularen gainean izango direnak, bada, ezin aktore moduan soilik aurkeztu; izan ere, antzezteaz gainera, musika tresnak jo eta akrobaziak ere egiten dituzte. Honako hauek izango dira Arkupe: Oier Bravo (klarinetea); Luis Lainez (*washboard*-a), Maribel Martinez (pianoa) eta Ainhoa Juaniz (kontrabaldea).

FITXA



MOLLIE MALONEN IPUIN SINESTEZINA

Generoa: Komedia.

Egilea: Txalo Konpainia.

Eguna: Urtarrilaren 24an (17:00).

Tokia: Oñatiko Santa Ana aretoa.

Sinopsia:

Aitaitaren urtebetetzean, haren erloju-dendara joan da Mollie Malone neskatila berezia. Ustekabean, abentura zirraragarriak bizi izango ditu han.

FITXA



TXARLESTRUP

Generoa: Zirkua eta komedia.

Egilea: Zirika Zirkus.

Eguna: Urtarrilaren 25ean (12:00).

Tokia: Aretxabaletako Arkupe kultura etxean.

Sinopsia:

Kantatu, dantzatu eta akrobaziak egiten dituen taldea da Txarlestrop. Taldeko zuzendaria falta dute eta ikusleen artean egingo du aukeraketa.



Governorsen *Morphinapolis* diskoaren aurkezpena Arrasateko gaztetxean, iaz. | IMANOL SORIANO

Governors: DVDan bilduko dute zuzeneko "ikusgarria"

Hilaren 31n Bilboko Santana27 aretoan kontzertua eskainiko du taldeak, hainbat kolaboratzaileekin

MAIALEN TORRES | BERGARA

Zaleekin batera gozatzeko moduko kontzertua antolatu du Governors taldeak hilaren 31rako. Euren biretan egindakoaren ildotik, musikaz gain ikuskizuna ere izango dela ziurtatu du Juan *Sangre* abeslariak. "Ikusgarria izan dadin saiatuko gara, jendea ez da aspertuko", esan du.

Hain zuzen, zaleei ahotsa eman nahi izan diete, Facebook bidez zein abesti entzun nahi dituzten galdetuta. 80 bat proposamen jaso dituzte, eta *Sangre*-k esan du *Vertigo*, *Galdutako laztanak* eta

Harrien arteko lokatza izan direla, besteak beste, bozkatuenak, eta ziur joko dituztela.

Kontzertua eta ikuskizuna

"Hiru aste daramatzagu guztia prestatzen. Gogotsu eta baikor gaude, baina baita urduri ere", dio *Sangre*-k. Izan ere, abeslariak esan duenez, datorren zapatuan Bilbon egingo duten ikuskizuna "bakarra" izango da, eta jendeak Governors kontzertu batean berriro "sekula ikusiko ez dituen gauzak" izango dira han. 20:30ean irekiko dituzte ateak, eta DJ Ele-

punto izango da giroa berotzen. Horren ondoren, 21:30ean puntuan ekingo diote kontzertuari, orduetgia "oso zorrotza" da-eta. Horregatik, ordua zaintzeko gomendioa egin diete zaleei.

Kontzertuan ez dira oholtza gainean bakarrik izango, eta, besteak beste, Zuriñe Hidalgo, Aitor Antruejo eta Naroa Gaintza izango dituzte eurekin. *Sangre*-k azaldu duenez, ordea, beste kolaboratzaile batzuk ere izango dira, baina zehazteke daude oraindik.

Santana27 aretoan 1.500 pertsona sartzen dira, baina *Sangre*-k

onartu du Governors ez dela halako jendetzak mugitzekoa. Dena den, jende gutxiagorekin ere giroa ona izango dela esan du, prestatu duten muntaiak horretarako bidea emango duelako. "Jendea gure oso gainean egongo da", azaldu du.

Hartze bakarrean eta zuzenean egingo dute grabaketa, eta Arteman enpresa arduratuko da horretaz, aurretik ere elkarlanean ibili izan dira-eta. "Zuzenekoaren arriskuak hor daude, baina horrek ere badu bere xarma", dio *Sangre*-k, eta gaineratu du: "Rockak beti dauka arrisku puntu bat, eta hori da politena". Izan ere, uste du horrelako erronkek musikari bezala garatzen laguntzen diotela, eta horregatik erakartzen dute horrenbeste.

Irudien eta soinuaren nahasketa otsailaren amaierarako amaitzea espero dute, eta horren ostean kaleratuko dute DVDa.

Sarrerak eskuragarri

Kontzertu berezi hori zuzenean ikusi nahi duenak dagoeneko eros dezake sarrera, *Codetickets.com* webgunean, lau eurotan. Egunean bertan ere jarriko dituzte salgai leihatilan. Dena den, oraindik bada debalde eskuratzeko aukera, taldearen Facebook orrian kontzertuan entzun nahi diren kantuen eskaera eginda, hainbat sarreraren zozketan parte hartu daiteke-eta.

Ondoren, atsedena

DVDa aurkezteko bira gehienez urrira arte izatea espero dute; eta, ondoren, 2017ra arte ez dute kontzerturik eskainiko. Izan ere, konposatzeko tartea hartzeko asmoa dute. "Ez dugu gelditzeko asmorik, baina bai etapa berri bati ekitekoa. Atsedenen ostean, material berriarekin itzuliko gara", esan du *Sangre*-k.

'Loreak'-ek Espainiako film onenaren Sant Jordi saria irabazi du

Kalifornian lortutako arrakastaren ostean, astelehenean, Espainiako irrati publikoaren eskutik (RNE), Kataluniako Sant Jordi sariketan Espainiako film onenaren saria jaso zuen *Loreak*-ek. Jon Garañoren eta Jose Mari Goenagaren filmak, baina, ez du atsedetik hartzen. Izan ere, sariketa bat baino gehiago ditu aurretik. Domeka honetan zine aditu eta kazetariak ematen dituzten Feroz sarietarako sei izendapen jaso ditu; besteak beste, pelikula dramatiko, zuzendaritza eta gidoi onenak. Gainera, Itziar Aizpuru taldeko emakumezko aktore onena izateko izendatu dute.

Gosariak proiektuak Eskoriatzan izango du hurrengo geldialdia

Korrika Kulturala egitasmoaren baitan, atzo eskaini zuten *Gosariak* proiektuaren lehen zuzenekoak, Guggenheimeko auditoriumean. Lehen ikuskizunera sartzeko, ezinbestekoa zen gonbidapena izatea, baina *Gosariak*-en hurrengo zuzenerako sarrerak erosteko aukera izango da. Eskoriatzako Zaldibar antzokian egingo dute, urtarrilaren 31n. Herriko hainbat tabernatan -Inkeru, Goxo Txiki eta Hotelajarriko dituzte salgai sarrerak, hamar eurotan, eta Aretxabaletako Urbaltzen, Bergarako Pol Polen, Oñatiko Arranon eta Arrasateko Txukun kopiatagian ere izango da eskuratzeko aukera.

Maratoiaren aitzakian, bizitzaren muinera lasterka

Mario eta Roberto izango dira Joaquin Molla eta Chechu Molto 'Maratón a Nueva York' antzezlanean

M.T. | ELGETA

Irribarreak eta dramak, biek dute tokia *Maratón a Nueva York* antzezlanean. Criadero De Morsas konpainiaren eskutik, Espalioan ikusgai izango da gaur, 22:30ean. Gizakiaz eta haren jokabideez hausnartzeko aukera ematen du antzezlanak, baina, funtsean, New Yorkeko maratoirako entrenatzen ari diren bi lagunei buruzko istorioa kontatzen du. "Antzezlanaren erakargarri egiten duena ez da gu korrika ikustea, interesgarriena da ikusleak lasterka ari garela ahaztu egiten duela, eta kontatzen ari garen istorioarekin geratzen direla", dio Chechu Moltok, Roberto pertsonaiari bizia ematen dion aktoreak.

Hasiera batean era batekoak diruditen bi pertsonaiek -Roberto eta Joaquin Mollak antzeztan

duen Mario- badute halako armadura bat gizartearen aurrean, pixkanaka arrakalatu doana, eta, istorioak aurrera egin ahala, pertsonaien benetako izaera erakusten dute. Moltok hauxe dio: "Dikotomia hori da interesgarria, pentsarazi egiten duelako".

Antzezlanaren ez da leku zehatz batean gertatzen, eta, horregatik, erabiltzen duten dekoratua erabat minimalista da, inondik inora identifikagarria: hartxintzarrezko zoru eta hondo beltza.

"Inora eramaten ez duen bidaia da", dio Moltok, baina ez du gehiagorik argitu nahi. Izan ere, ikusleari utzi nahi diote obraren esanahia era askean interpretatzen. "Ikusle bakoitza leku, ideia edo pentsamendu batera garraiatzen du, eta, azken finean, horixe da artea", azaldu du aktoreak.



Joaquin Molla eta Chechu Molto, antzezlaneko pasarte batean. | CRIADERODEMORSAS

Etengabe korrika

Antzezlanaren une gehienetan korrika dabiltzan itxura eginez antzeztu beharra erronka latza izan zen hasieran aktoreentzat, baina erraz egokitu ziren, aspalditik dira-eta kirolariak.

Era berean, lasterka ari diren bitartean, oinatzek antzezlanaren

soinu banda osatzen dute. "Ia hipnotikoa da", onartu du Moltok. Urratsekin jolas egiten dutela esan du; izan ere, askorik ez diren arren, badira momentu batzuk ikusleak jasotzen duen bakarra horixe dela, eta baliatu egiten dute aktoreek, urrats ozen edo leunagoez, istorioa indartzeko.

Hainbat faktorek bat egin zuten bikote hori antzezlanaren egitera bultzatzeko. Izan ere, aspalditik ezagutzen dute elkar, baina testu bera elkarren artean harremanik ez zuten bi pertsonaren gandik jasota, seinale bat bezala interpretatu zuten, eta eurek ekoiztea erabaki.

Aitor Murua | Trial-zalea

"Kirol guztiei bezala, trialari denbora luzea eta sakrifizio handia eskaini behar zaio"

ANDONI MUXIKA | ARETXABALETAKO

Aretxabaletako gazte hori trialean ibili da betidanik. Txikitatik, bizikleta gainean ibili da erosoan, baina, urteak eta lehiaketak pasatu ahala, bigarren maila baten jartzeko premia sentitu du. Orain, umeei kirol hori ikasten laguntzen die; beraz, nahi duena probatzera animatzen du.

Zelan hasi zinen trialsina praktikatzen?

Bizikleta asko gustatzen zait eta asko ibili naiz. Behin, aitak bizikleta bat ekarri zidan, eta hori, justu, trialeko bizikleta bat zen. Horrela, pixkana-pixkana probatzen hasi nintzen, eta, halako batean, lehiaketa batera aurkeztea erabaki nuen. Bada, emaitzak nahiko onak izan ziren; horrenbestez, esango nuke horrela zaletu nintzela.

Zertan datza trialsina?

Bost zirkuituz osatutako ibilbidea jartzen dute, eta horiek trialsineko bizikleta batez pasatu behar dira. Horretarako, denbora zehatza dago: bi minutu eta erdi, hain zuzen ere. Pista bakoitza hainbat salto eta oztopoz dago osatuta eta horiek hiru aldiz pasatu behar dira. Hori guztia, noski, hanka edo gorputzeko edozein atal lurtean jarri gabe egiten bada, askoz hobeto; izan ere, gorputzeko edozein atal lurtean jartzen bada, zigortu egiten da. Gainera, gehienez, bost aldiz jar daiteke.

Zelan entrenatzen zarete kirol hori praktikatzen duzuenok?

Azkenean, kirol guztietan bezala, konstantea izan behar da, eta, noski, gustukoa izan behar da. Kirol zaila da, egunero landu beharrekoa. Zorionez, pista bat dugu Aretxabaletan entrenatzeko; lehen, mendira joaten ginen, edo kostaldera, harrien artean entrenatzera.

Orain, umeei entrenatzen dituzu, ezta?

Bai. Ume batzuk entrenatzen hasi naiz eta orain arte oso gustura nabil hori egiten. Nirekin harremanetan jarri ziren eta ikasi egin nahi zutelako esan zidaten. Gertu nengoen laguntzeko eta mundu honetaz dakidan guztia irakasteko; horrenbestez, horrela hasi nintzen. Hain zuzen ere, zapatuetan elkartu eta Aretxabaletan jarri zuten pistan entrenatzen gara. Umeei oso gustura pasatzen dituzte orduak, eta denak animatzen ditut etor

daitezen; zenbat eta gehiago, orduan eta hobeto.

Gainera, lehiaketa askotan parte hartu duzu, eta irabazi ere bai, ezta?

Bai; Espainiako txapelketa irabazi nuen. Europakoan ere, nire ustez, lan ona egin nuen, lehenengo hamarren artean geratuta. Munduko txapelketan ere izan naiz, bi aldiz, hain zuzen: batean hamahirugarrena eta bestean hamalagarrena izan nintzen. Euskadin eta Gipuzkoan ere ibiltzen naiz, baina horiek ez dute zailtasun handirik. Gainera, lehiaketa horiek leku askotan egoteko aukera eskaini didate; Alemanian, Frantzian eta Espainia osoan, besteak beste.

Hala ere, alde batera utzi dituzu lehiaketak, ezta?

Bai. Txikitatik dena eman diot kirol horri. Azkenean, kirol guztiak bezala, denbora luzea eta sakrifizio handia eskaini behar zaio; izan ere, txikitik, egubakoitzetan, eskola bukaturako orduko, zortzi orduko bidaiak egiten genituen, autoan, lehiaketetan parte hartzeko. Bukatu eta gero, domeketan, buelta egiten genuen eta oso berandu heltzen nintzen etxera. Beraz, hurrengo egunean eskolara joateko esnatu behar nuenean, oso astuna egiten zen. Horrenbestez, bi aukera nituen: ikasketak edo trialean jarraitzea. Mundu honetan etorkizun handirik ez dagoenez, ikasketekin jarraitzea erabaki nuen.

Horretaz gain, etorkizunerako ze plan dituzu?

Psikologia ikasten nabil, Donostian, eta, oraingoz, oso gustura nago. Horregatik, etorkizunean gustatuko litzaidake ikasten nabilen horretaz bizi izatea; hau da, kiroleko psikologo izatea, esate baterako. Izan ere, kirol honetan izan ditudan presioak, esperientziak, eta abar baliagarriak izango lirarteke pertsona bati laguntzeko.

MARRA AZKARREZ

Ibilbide gustukoena: Jeneralean, kostaldean ibiltzea.

Musika talde gustukoena: El Canto Del Loco eta Gatibu, adibidez.

Bizi izateko toki bat: Mendia.

Amets bat: Gustatzen zaidan horretatik bizi ahal izatea.

Leku gustukoena: Basoak asko gustatzen zaizkit.

Janari bat: Makarroiak.

Aitor Murua
bizikletarekin
Aretxabaletako plazan.



ZORION AGURRAK



ARETXABALETA

Anje Arriola Serrato

Urtarrilaren 28an, 7 urte. Ai zipriztin! Jada zazpi urte. Jarraitu orain arte bezala, txapeldun! Patxo erraldoi bat etxeko danen eta, batez ere, Laiaren partetik.



ESKORIATZA

Mikel Pagaldai Olea

Urtarrilaren 27an, 3 urte. Zorionak, Mikel! Muxu goxo-goxoak familia guztiaren eta, bereziki, aitatxoren eta amaxoren partetik. Milesker hiru urte zoragarri hauengatik! Mua!



BERGARA

Eneko Gantxegi Gallastegi

Urtarrilaren 27an, 4 urte. Zorionak! Disfrutatu eguna.



OÑATI

Izar Bikuña Malbadi

Urtarrilaren 27an, 11 urte. Zorionak, Izar! Urtaiki aurrera doiaz baina zu beti izango zara gure printzesatxua. Ondo pasatu eguna eta disfrutatu. Muxu potolo bat etxekuen partetik.



ANTZUOLA

Arantzazu Gezalaga

Urtarrilaren 27an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasa dezazula zure urtebetetze egunean eta opari ugari jaso! Batez ere Julenek. Marrubizko muxu pilo bat zuretzat.



BERGARA

Alaine Da Silva

Urtarrilaren 26an, urtebete. Zorionak, printzesa, zure lehenengo urtebetetzian! Ondo pasatu zure eguna. Etxekuak eta, bereziki, Kenar eta Uxue.



ARRASATE

Eider Prieto Goñi

Urtarrilaren 26an, 12 urte. Zorionak, Eider! Ondo-ondo pasatu zure egunean! Familia eta lagun guztion partetik, patxo!



ARRASATE

Aimar Agirre Lete

Urtarrilaren 26an, 9 urte. Zorionak, Aimar! Ondo-ondo pasatu eta ederto ospatu zure eguna! Etxeko danen eta, batez ere, Ekainen partetik!



OÑATI

Aiur Moreno Zubia

Urtarrilaren 26an, 4 urte. Zorionak, Aiur! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunian. Patxo eta besarkada handi bat etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu. Mua!



OÑATI

Marina Axpe Del Amo


Urtarrilaren 25ean, 6 urte. Zorionak, printzesa! Muxu potolo bana etxeko guztien eta, bereziki, Carlaren, aitatxoren eta amaxoren partetik. Mua!



ARRASATE

Txaber Urgoitia Agirre

Urtarrilaren 24an, 7 urte. Zorionak, laztantxu! Ondo pasatu zure urtebetetzean! Patxo handi bat etxekoen partetik!



OÑATI

Naroa Letamendi

Narraspe Urtarrilaren 23an, 6 urte. Zorionak, maitia! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE

Luken Ormaetxea Artola

Urtarrilaren 23an, 9 urte. Makarroiak baino hobea... zure irribarra! Zorionak eta musuak, laztana, familia osoaren partetik!



MUTRIKU

Oihan Iriondo Lasaga

Urtarrilaren 22an, 5 urte. Zorionak, gizontxo! Musu handi bat danon partetik!



ARETXABALETA

Ekaitz Oscoz Barrena

Urtarrilaren 22an, 12 urte. Zorionak, txapeldun! Ze handi egiten ari zaren. Ondo-ondo pasatu zure eguna eta mila muxu familixa danaren eta, bereziki, Iratiren partetik.



OÑATI

Ander Iciar Garcia

Urtarrilaren 22an, 4 urte. Zorionak, Ander! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bat etxeko guztion partetik.



ESKORIATZA

Ibai Apraiz

Urtarrilaren 22an, 7 urte. Zorionak, txapeldun, etxekoen partetik.



OÑATI

Balendin eta Leire Letona

Balendinek urtarrilaren 21ean, 40 urte eta Leirek 23an, urtebete. Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta patxo handi bana etxeko danen partetik.



ESKORIATZA

Aimar Ortiz Esnaola

Urtarrilaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Aimar! Espero degu ondo-ondo pasatzea zure egunean eta merendola goxoa prestatu. Aitaxo, amaxo eta bereziki Aneren partetik!



BERGARA

Olatz Basterra

Urtarrilaren 20an, 18 urte. Zorionak, *guapa!* Oso-oso ondo pasatu eguna eta primeran zelebratu. Oin badakizu ze tokatzen jatzun... 18 patxo handi, *moñi*.



BERGARA

Olatz Gallastegi Visitacion

Urtarrilaren 19an, 11 urte. Zorionak, Olatz! Musu pila bat etxeko guztien partetik. Ondo-ondo pasatu zure eguna.



ARRASATE

Paula Andres Carmona

Urtarrilaren 19an, 8 urte. Zorionak gurasoen, lehengusu-lehengusinen eta familiako guztion partetik!



ARETXABALETA

Axel Anduaga Cortes

Urtarrilaren 19an, urtebete. Zorionak, pitxitxo! Ze handi ein zaren, urtetxo bat jada! Patxo handi-handi bat familixako danon partetik.



OÑATI

Iker Gil Albizu

Urtarrilaren 19an, 11 urte. Zorionak! Jada 11 urte! Patxo pila bat familiaren partetik eta jarraitu horrelako jatorria izaten. Eskerrik asko zaren bezalako izateagatik.



ARRASATE

Eider Kortabarría

Urtarrilaren 18an, 7 urte. Zorionak, maitia! Zazpi urte jada! Zure egunean oso ondo pasatzea espero dugu. Besarkada handi bat maite zaitugunon partetik!



ANTZUOLA

Goiuri Azkarateaskasua

Urtarrilaren 17an, 20 urte. Zorionak, prexioxa! Ondo pasatu zure eguna eta segi zaren bezalako izaten urte askotarako. Etxekuen partetik patxo galantak.



OÑATI

Haizea eta Aner Lizarralde Garcia

Urtarrilaren 16an, urtebete. Zorionak, politok! Urteko bat jada gure txikitxuak! Patxo handi bana etxeko danen partetik!



ARRASATE

Irati Zaitegi Manzanos

Urtarrilaren 13an, 8 urte. Zorionak, Irati! Oso ondo pasatu zure urtebetetzea, maitia! Alaitzen, aitatxoren eta amaxoren partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurra@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrik bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEA GOIENAN



Osoko bilkurak ikusgai

Astelehenean egindako Bergarako osoko bilkura ikusteko aukera izango da Goiena telebistan martitzenean, 22:30ean. Eguaztenean, berriz, martitzenean egin zen Arrasateko osoko bilkura ikusteko aukera izango da, 22:00etan.

'Osoko bilkura' Astelehena, 22:00



'Altzorraren uhartea' musikala ikusgai

Oñatiko Ganbara Txikikoek Zubikoa kiroldogian estreinatutako Altzorraren uhartea musikala osoko ikusteko aukera izango da aste bukaeran Goiena telebistan. Zapatuan 16:00etan eta domekan, 11:00etan eta 19:00etan, hain zuzen ere.

'Altzorraren uhartea' Zapatuan eta domekan.

GOIENA TELEBISTA

ARRASATE IRRATIA

Table containing TV program schedules for various days: EGUBAKOITZA, ZAPATUA, DOMEKA, ASTELEHENA, MARTITZENA, EGUAZTENA, and EGUENA, listing times and program titles.

Goseren 'Gosariak' kontzerturako sarrearen zozketa Eskoriatzako Zaldibar antzoki berrian Gose taldearen Gosariak lana izango da urtarrilaren 31n, 23:00etan. Sarrerak 10 euro balio du, eta baldele eskuratu nahi duenak egubakoitzean izango du aukera, 943-25 05 05 zenbakira deituta edo irratia@goiena.com helbidera idatzita.

Koultur ekimena eta Gazte Bulegoa izango dira mintzagai Datorren aste elkarriketa tartean, Gazte Bulegora hurbilduko gara martitzenean, gazte informazioari buruzko xehetasunak jakiteko asmoz. Eguenean, berriz, Koultur ekimen arituko gara Arrasate Irratian. Orain arteko musika taldeez eta datozenez hitz egingo dugu.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Table listing pharmacy addresses and phone numbers for various towns including Arrasate, Bergara, Oñati, and others.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Weather forecast for Debagoiena, showing icons for rain and sun, and temperature ranges (Max. 8°, Min. 1°).

ZAPATUA, 24 Goiza aurrera joan ahala, hodeiak sartuko dira eta eguerdirako kostaldean euritarra joko du. Elurraren maila 1.000 metroan egongo da. DOMEKA, 25 Prezipitazio gutxiago egon arren, aire hotzagoa sartuko da eta baliteke elurraren maila 700-800 metrora jaistea.

EUSKAL HERRIA

Map of the Basque region showing weather icons (sun, rain, clouds) for different areas, with text indicating the best front for weather systems.

GAZTE INFORMAZIOA

BEKAK

Praktikak enpresetan. Santander Bankua. Baldintzak: Espainiako unibertsitateren batean edo programa honetara atxikitako zentzoren batean matrikulatuta egotea, ikasketa-planaren bigarren zatian dauden ikasleak. Epea: urtarrilak 31.

Graduondoko ikasketak. La Caixa Fundazioa. Obra Social La Caixa 145 beka deitu ditu, Espainia (25), Europa (65), AEB eta Kanada (48) eta Asian (7), graduondoko ikasketak egiteko. Askotariko epeak. otsailak 9.

EUSKADIKO GAZTEAK LANKIDETZAN

Garapen bidean dauden herrialdeetan udan lankidetzako proiektuetan parte hartzeko programa.

ma. Eusko Jaurlaritzak. Baldintzak: 20-30 urte bitartean izatea. Epea: otsailak 23.

LANA Komunikazio teknikaria. Bertozaile Elkarteak. Baldintzak: goi edo erdi mailako ikasketak izatea, komunikaziorako teknologien ezagutza, gidatzeko baimena eta autoa. Epea: urtarrilak 23.

Lan-poltsa Osakidetzan. 2011ko EPE kategoriak, Informatikako goi mailako teknikaria, Euskararen Normalizaziorako goi mailako teknikaria, Seguratasun eta Higienearen Prebentzioarako goi mailako teknikaria, Euskararen Normalizaziorako erdi mailako teknikaria, Seguratasun eta Higienearen Prebentzioarako erdi mailako teknikaria. Epea: urtarrilak 30.

HILDAKOAK

Josu Uribeetxebarria Bolinaga. Arrasaten, urtarrilaren 16an. 59 urte.

Felix Perez Larrañaga. Bergaran, urtarrilaren 16an. 81 urte.

Pakita Ezkurra Arozena. Arrasaten, urtarrilaren 18an. 70 urte.

Natalio Arabaolaza Arregi. Larderon, urtarrilaren 19an. 77 urte.

Juli Beistegi Umerez. Bergaran, urtarrilaren 19an. 91 urte.

M. Pilar Egaña Calles. Bergaran, urtarrilaren 19an. 93 urte.

Gloria Aldalur Zabala. Bergaran, urtarrilaren 20an. 81 urte.

URTEURRENA

Paulino Ibabe Zubizarreta

Biziola baserrikoa



Gesalibarren hil zen 2014ko urtarrilaren 27an, 93 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 25ean, 11:00etan, Gesalibarko Santa Ageda elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Arrasaten (Gesalibar), 2015eko urtarrilaren 23an.

URTEURRENA

Maria Luisa Zuburruti Maortua

Bonifacio Arantzabalen alarguna



2014ko urtarrilaren 25ean hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 25ean, 11:00etan, Angiozarko San Migel parrokian.

Beti gure bihotzetan izango zara.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Bergaran (Angiozar), 2015eko urtarrilaren 23an.

URTEURRENA

Maria Angeles Gordoa Altolagirre

Juan Arregiren alarguna



2014ko urtarrilaren 19an hil zen, 87 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko urtarrilaren 23an.

URTEURRENA

Concepcion Kortabarría Ruiz de Azua

'Kontxes'
Marcelino Arkauzen alarguna



2014ko urtarrilaren 22an hil zen, 83 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan izango da, urtarrilaren 24an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Urtebete pasa da
astiro-astiro,
goieneko zerura
zinenetik igo.
Zutaz oraitzen gara


lokartu aldira.
Martxeli muxutxo bat
eman maitekira,
berarekin elkartu
bazara berriro.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2015eko urtarrilaren 23an.

URTEURRENA

Segundo Lete Madinabeitia

Kontxa Unzuetaaren alarguna



2014ko urtarrilaren 17an hil zen, 90 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan izango da, urtarrilaren 25ean, 12:00etan, Mendiolako San Juan Bataiatzailearen elizan.

Beti izango zaitugu gogoan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Eskoriatzan (Mendiola), 2015eko urtarrilaren 23an.

ESKER ONA

Severiano Martin Ramos



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Ondra meza domekan izango da, urtarrilaren 25ean, 12:30ean, Oñatiko agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi, aldeaz aurretik, eskerrik asko.

Oñatin, 2015eko urtarrilaren 23an.

ESKER ONA

Iosu Uribeetxebarria Bolinaga



Arrasaten hil zen 2015eko urtarrilaren 16an, 59 urte zituela.

Lerro hauen bidez losuren sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 23an.

ESKER ONA

Pakita Ezkurra Arozena



Arrasaten hil zen 2015eko urtarrilaren 18an, 70 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno eskerrik asko, sendikoen izenean.

Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 23an.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo eskela@goiena.eus

Eskelaren prezioa: 130 euro.

Goiena Klubeko bazkideendako 118 euro.

Goiena: irakurriena Debagoienan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Oñalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun elkarteak: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

OÑATI Bikion publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

ELGETA Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

MEZA

Natalio Arabaolaza Arregi



Larderon hil zen 2015eko urtarrilaren 19an, 77 urte zituela.

Bere arimaren aldeko meza zapatuan izango da, hilak 24, 19:00etan, Oñatiko San Migel parrokian.

Bizilegea ere batzutan
izaten da hain krudela
zu joan zara June ta Hodei
araindik txiki direla

agian ez dira oroituko
agian ez gu bezela
baina jakingo dute osaba
handi bat izan zutela.

Aintzane, Julen eta Hodei; Usue, Sergio eta June.
Oñatin, 2015eko urtarrilaren 23an.

OROIGARRIA

Pakita Ezkurra Arozena

Josu Alonsoren ama



Arrasaten hil zen 2015eko urtarrilaren 18an, 70 urte zituela.

Bat egiten dugu
senideen saminarekin.

b + b
batu-banatu
banaketak neurria

goiena

Arrasaten, 2015eko urtarrilaren 23an.

OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Hain une delikatu batek eskatzen duen errespetu, arreta eta ardura handienarekin,
nire asmoa da familiari ahalik eta traturik beroena eta hurbilekoena ematea*

*Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure aseguru-konpainiak
esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:*

**NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua
AUKERA DEZAKEZULA BETI.**

**maribi 617 44 21 55
BERGARA**



ARETXABALETA Ipuin kontaketa

Maite Frankok ipuin kontaketa saioa egingo du, doan. Bihar, zapatua, liburutegian, 11:30ean.

ESKORIATZA Poxpolo Ta Konpainia

Pailazo taldeak emanaldia egingo du. Sarrerak agortuta. Etzi, domeka, Zaldibarren, 17:30ean.

DANTZA**ELGETA Herrixa Dantzan**

Patxi Monterorekin. Etzi, domeka, Espaloian, 19:00etan.

OSPAKIZUNAK**ESKORIATZA Zaldibar antzokiaren inaugurazioa**

Zaldibar antzokia inauguratuko dute. 13:00etan, ekitaldi ofiziala egingo dute. Arratsaldean, bisita gidatuak izango dituzte herritarrek: 18:00etan, 19:00etan eta 20:00etan. Bisita gidatua egiteko sarrera hartu behar da, doan, liburutegian.

Gaur, egubakoitza, Zaldibarren, 13:00etan.

OÑATI Txokolatea, ipuin kontaketa eta film emanaldia

Txokolate-jana (18:30), 3-7 urte artekoendako ipuin kontaketa saioa (17:00) eta 7 urtetik gorakoendako *Eragon* filma (17:00) Elkar Heziko Lehen Hezkuntzako eraikinean.

Etzi, domeka, Elkar Hezin, 17:00etatik aurrera.

**ARRASATE Markeliñe taldearen azken lana: 'Kixote'**

Cervantesen obra ezaguneko pertsonaia-arketipoetan oinarrituta, adiskidetasunaren gaineko istorioa du ardatz. Hiru aktore oholta gainean. Hirurak emakumeak: Sandra Agirre, Itziar Fragua eta Maitane Azpiroz. Sarrerak, bost euro. Etzi, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan.

LITERATURA**ARAMAIO Irakurzaletasuna eta elkarbizitza indartzeko saioa**

Aramaioko San Martin eskolako komunitatearen harremanak sendotzeko helburuarekin. Castillo Suarezen *Ebelina Mandarina* liburua oinarri hartuta hainbat ekintza egingo dituzte.

Gaur, egubakoitza, San Martinen, 20:00etan.

ARRASATE Literatura lehiaketak

Martxoaren 14an bukatuko da lanak aurkezteko epea. Hiru ataletan parte ahal izango du Debagoienean bizi, lan egin edo ikasten duen edonork: ipuina, poesia eta bertso-paperak.

Martxoaren 14ra arte, AEDn.

BESTELAKOAK**ELGETA Bisita gidatua lubakietara**

Intxortara bisita gidatuak, ele bitan. Erreserba egiteko: 943-71 89 11 eta 943-79 64 63 telefono zenbakiak eta turismo@debagoiena.net helbidea.

Etzi, domeka, Espaloitik, 10:00etan.

ARAMAIO 'Herri txiki, infernu handi bat' telebista saioa

EITBren saioa Aramaiotik pasako da. Mikel Pagadi eta Zuhaitz Gurrutxaga Aramaion izango dira domekan. Paraje ederrekin gozatu eta aramaioarren bizitza eta ohiturak gertutik ezagutuko dituzte.

Etzi, domeka, EITBn, 21:30ean.

BERGARA Oihan Vega Ipintzan

Euskal Herriko ikastetxeetan zehar dabil Oihan Vega esataria. Irratia zelan egiten duten erakutsiko die Ipintzako institutuko ikasleei.

Urtarrilaren 26an, Ipintzan, 14:00etan.

ARETXABALETA Odol-ateratzea

Arabako odol bankuko kideak egongo dira osasun etxean.

Urtarrilaren 26an, osasun etxean, 16:30ean.

DEBAGOIENA Baserrietako plastikoa

Urteko lehen bilketa egingo dute. Siloa estaltzeko, belar boletako eta berotegietako eta ortuko lurra estaltzeko plastiko beltza eta berotegietako plastiko zuria jasoko dituzte.

Urtarrilaren 27an, herri bakoitzean zehaztutako lekuetan, 17:00etan.

BERTSOLARITZA**OÑATI Sari banaketa ekitaldia**

Gaztelekuko VI. bertso-paper lehiaketako sariak Amets Artzallus txapeldunak banatuko ditu. Gaur, egubakoitza, gaztelekuan, 18:00etan.

IZEN-EMATEA**ELGETA Kantsatzeko mendi taldea**

Bazkide egiteko eta federatzeko aukera, urtarrileko eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara, kultura etxeko bigarren solairuan.

Urtarrilaren 28an, kultura etxean, 19:00etan.

HITZALDIA**ARRASATE 'Doluaren bidetik'**

Bidegin elkarteko kideek heriotzaren ondorengo dolu prozesuaz zabal hitz egingo dute. Era berean, Bidegin elkartea zer den eta zer egiten duen azalduko dute Maite Urzain eta Mari Carmen Sanchez elkarteko kideek.

Urtarrilaren 28an, Kulturaten, 19:00etan.

LEHIAKETAK**ARRASATE Aratusteetako kartela**

2015eko Aratusteetako kartel lehiaketako lanak hilaren 30era arte aurkez daitezke. Irabazleak 400 euroko saria jasoko du.

Urtarrilaren 30era arte, BAZen.

ARRASATE Martxoaren 8rako kartel lehiaketa


Aurtengo leloa *Feminismoaz danok aurrera goaz!* da. Lanak otsailaren 20ra arte aurkez daitezke BAZen. Saria 450 euro da.

Otsailaren 20ra arte, BAZen.

KIROLA**ESKORIATZA 'Zumba' eta spinninga**

Zumba (pilotalekua) eta spinning saioak (kiroldegia) egingo dituzte. *Zumba*-n 40 lagunek parte hartuko dute eta spinningean 60 batek, bi txandatan.

Bihar, zapatua, aipatutako lekuetan, 10:30ean.



Zure bainuontzia kendu eta dutxa jartzen dizugu

EGUN BATEAN

hori guztia kalitate eta zerbitzu onena emanda.

Dei egiguzu konpromiso barik eta dituzun zalantza guztiak argituko dizkizugu.



Iturgintza, gasa, kalefakzioa eta eguzki-plaka termikoen instalazioa etxeko urarendako
Mitarte 5 behea - Tel.: 943 71 52 51 - 605 71 66 92 - ARETXABALETA

Zeu irabazle

Goiena Klubeko txartela erakutsi eta aprobetxatu abantailak.



goienakluba

ALDAPE

taberna

ALDAPE Jatetxea
Iturriotz kalea 41 Arrasate
Tel.: 943 79 63 69

- Asteleheneratik ostiralera eguneko menuan (bazkaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).
- Asteburuetako menuan (bazkaria edo afaria) kafea doan (Goiena Klubeko txartelaren titular bakoitzeko).

AZPEITXI

AZPEITXI JATETXEA
Aranerrekalea 13, Bergara
Tel.: 943 76 55 00

- Eguneko menuan, bazkarian kafea doan.
- Asteburuetako menuan, bazkarian eta afarian kafea doan.

Esko Sport

ESKO SPORT Kirol denda
Intxaurtxueta 5, Eskoriatza
Tel.: 943715296

- Arropa eta zapatiletan %10eko deskontua.



943 25 05 05 kluba@goiena.com | goienakluba.com

goiena

2015-01-23

BUKATZEKO

Ur ertzetako hegodun bizilagunak

- ▶ Ur inguruetan bizi diren hegaztien zenbaketa egin dute Itsas Enara ornitologia elkarteak
- ▶ Urkuluko eta Aixolako urtegietan eta Deba ibaian, Elgoibarreraino, bizi direnak zentsatu dituzte

MIRARI ALTUBE | DEBAGOIENA

Neguarakin batera urteroko bisitariak iritsi dira Euskal Herrira, baita Debagoienara ere: Europa iparraldeko lurretatik datozen hegaztiak. Eta sasoi hori aprobetxatzen dute urtegi, ibai eta kostaldera iritsitako hegazti urtarren errolda egiteko. Itsas Enara ornitologia elkarte kideek toki bakoitzeko hegazti kopurua zehazten dute, zein espezie dagoen eta espezie bakoitzetik zenbat.

Mundu mailako neurketa da. 60ko hamarkadan hasi ziren lehen urratsak egiten eta Euskal Herrira 80ko hamarkadaren bueltan iritsi zen. Eusko Jaurlaritza sustatzailea da eta Hazi fundazioak koordinatzen du. Gipuzkoako kasuan, Itsas Enarak egiten du zenbaketa beste elkarte batzuen laguntzarekin; horien artean, Arkamurka, Zumaia natur taldea eta Iparraldeko Saiak; 40 lagun ibili izan dira. Antzeko data hartzen dute erreferentzia munduko bazter guztietan, eta, guztira, 20.000 lagun ibili izan dira urtero.

Urkulun hegazti gutxi

Urkulu urtegiaren elkarte ziren joan den zapatuan Josemi Devesa elorriarra, Asier Sarasua eibararra eta Iker Novoa oñatiarra.



Ornitologoak hegaztiei begira. | ARGAZKIAR: ITSAS ENARA ORNITOLOGIA ELKARTEA



Basahatea, uroiloa, kopetazuria eta murgila.

Eta urtegiari buelta emanaz zenbatzen joan hegaztiak: "Poliki-poliki joaten gara begira, han eta hemen geratuta. Toki zabalenetan teleskopioa erabiltzen dugu, eta bestela, kataloxak", dio Sarasuak. Gero, Deba ibaikoak zenbatu zituzten, Elgoibarrerainokoak; baita Aixolako urtegiakoak ere. Zein da, baina, zenbaketa horren helburua: "Jakin gura da zein espezie dagoen eta bakoitzak zein joera daukan;

hau da, gehitzen doan, gutxitzen... Eta horrekin batera, hezegunearen ezaugarriak eta horren garrantzia. Hain zuzen, hegaztiak dira adierazle jakiteko hezeguneari ondo dauden edo ez, eta zein neurri hartu behar diren hobetzeko", gaineratu du. Urkuluren kasuan, hegaztirik ez egotetik mordoa egotera pasatu zen 90eko hamarkadan: murgilariak, ahateak... Eta azken urteotan jaisten joan

da kopurua: "Basahate batzuk, kopetazuri batzuk... ikusten dira, baina askoz gutxiago. Ez dakigu uraren kalitatea aldatu egin dela, anafidoen elikagai diren beheko landaretza ere bai, arrainen espezieak... Eboluzio naturala ere izan daiteke".


Martin arrantzalea bueltan

Deba ibaiaren kasuan, alderantzizkoa gertatu da, haren egoerak hobera egin du azken hogeitau urteotan, eta, ondorioz, berriro itzuli dira hegaztiak, beste ornodun eta ornogabe batzuekin batera: "Ez da arraroa uroiloak, paitak, ubarroiak edo beste hainbat ikustea Eskoriatzan hasi eta Debaraino, eta zenbait espezie, martin arrantzalea eta ur-zozoa, esaterako, ugaritzen dabilta", dio Sarasuak.

Hala, zapatuan zentsatu zituzten espezieen artean daude horiek guztiak. Zenbatutakoan artean nagusi izan dira basahateak, 551; gero, uroiloak, 53; eta hirugarren, ubarroiak, 22. Eta askoz kopuru txikiagoan gainerakoak: kopetazuriak, 16; murgilak, 9; ur-zozoa, 4; lertxun hauskarak, 3; kaio hankahoriak, 3; ahate txistulariak, 2; martin arrantzaleak ere 2; eta antzara bakarra.

AZKEN BERBA

AGURNE BARRUS



Seminarioko eliza

Udalak Seminarioko Elizan egin asmo duen antzokia aurkeztu zuenean ezin izan nintzen aurkezpenean egon. Durangoko azokaren testuinguruan San Agustin elizan daukaten antzokia ikusten aukera eman zidan lagun batek. Ederra!!!

Gabonetako oporretan Udaleria joan naiz eta Seminarioko elizarako dagoen proiektuaren maketa ikusteko aukera izan nuen. Ederra, hau ere!!!

Herriko kultura-eskaintza gehienetarako izango dugu, azkenean, toki aproposa. Kontziente naiz oraindik Udal pilotalekua zapaldu beharko dugula pilota-partidak ez diren ikuskizunetarako. Baina 900 jarleku ez dira askotan betetzen eta Seminarioko elizak tamaina ertainetako ikuskizunenez gozatzeko aukera emango digu, non eta herriko plazan. Hortik gorakoak (Pirritx eta Porrotx, Udal Musika Bandaren kontzertu entzutetsuenak, Musika Eskolako kontzertuak...) frontoian. Hala ere, seguru nago programazio gehiena Seminarioko elizan sartzeko modukoa izango dela. Orain artean eraikina izan da arazo; konponbidean dago. Aurrerantzean ez da aitzakiarik egongo kultura-programazio oparora eskaintzeko eta kontsumitzeko. Bergararrok izango dugu zera eta non ikusi eta gozatu.

OSOKO BILKURAK

GOIENA TELEBISTA | UDALBATZARRAK, OSO-OSORIK

BERGARA | Martitzena 27, 22:00

ARRASATE | Eguaztena 28, 22:00

OÑATI | Barikua 30, 22:00



DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

goiena